# Goienkaria

2010eko irailaren 17a > Egubakoitza > X. urtea > 434. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 urte · www.goiena.net · TOKIKOM




"Bide politiko eta baketsuak bakarrik erabiliko diren ziklo berrian gaude"

**Pello Urizar** EAko idazkari nagusia > 08


**G2a** Gaur hasiko da Arzuaga anaien omenaldia > 32

**OSASUNA** Alzheimer gaixoekiko elkartasuna pizteko ekimenak Arrasaten > 04

**EUSKARA** Bailarako udal euskaltegiek ikasturtea zabaldu dute > 05

**KIROLA** 50 pilotu bihar Leintz Gatzagako auto igoeran (15:00) > 30-31




AUTOBUS BARRUAN Arantza Tapia diputatua, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea eta Alejandro Naya Pesako ordezkaria Oñatiko geltokian, autobus barruan. MIREIA BIKUÑA

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-05
**Iritzia** > 06
**Gutunak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Herriak** > 11-27
**Kirola** > 30-31
**Kultura** > 34
**Sailkatuak** > 35
**Telebista-Irratia** > 36
**Berri-zakua** > 36-37
**Eskelak** > 37
**Non-zer** > 38-39


JENDARTEA > AUTOBUS ZEBITZUA

## Beste 30 autobus zerbitzua hobetzeko

**GEHIAGO** Arrasate-Oñati-Zumarraga joan-etorriko lineak indartu egingo ditu Lurraldebusek astelehenetik domekara

**URRIAN** Linea berriak martxan hasiko dira urriaren 1ean; lehenengo autobusa Arrasatetik abiatuko da 06:00etan > 20

JENDARTEA > APARKALEKUA

## Doako TAO zerbitzua Bergaran

Astelehenean abiaraziko dute, erdigunean, eta denbora mugatukoa izango da. Modu horretan autoen errotazio handiagoa gerta dadin nahi du Udalak. > 16



Autoa irudian ikusten den moduan geratu zen istripuaren ondorioz. ANDER MONEDERO

JENDARTEA > ISTRIPUA

## Auto istripu larria atzo Elorregin

Bergarako 25 urteko mutil bat larri zauritu zen gidatzen zihoan autoak kamioi baten aurka jota. Istripua 12:45ean gertatu zen eta errepidea itxita egon zen ia ordu eta erdi. Zirkulazioa AP-1etik desbideratu zuten. > 04




**ONDAREA** > ZUBIAK

# Lehengo zubiek oraingoen ondoan diraute ibaian zehar

**ZUBI ZAHARRAK** Obrengatik, ur handiengatik... bota egiten dituzte, edo kalteak izaten dituzte, baina oraindik zutik diraute askok

**ESTRATEGIKOAK** Antzinakoen parean zubi berriak eraiki izan dituzte, leku horrek estrategiko izaten jarraitzen duen erakusle


Urruxolan zubia, Artixa errekaren gainean, Oñatin.


Bergaran, Mekolaldeko zubia, Narbaitza parekoa.



**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoienean oraindik asko gelditzen dira, gehienak ezkutuan, mantenu aldetik gainbeheran etorrita, baina edertasuna galdu barik: Deba ibaia gurutzatzen duten zubiak dira, garai askotako lekuko: zaharrenetarikoak Erdi Arokoak dira, eta kondairak eta guzti dituzte batzuek. Gehienak arku batekoak edo bikoak dira, baina badaude hirukoak ere, nahiz eta ezohikoagoak izan.

Deba ibaiaren eta haren adarren ibilbideak jarraituta topatuko ditugu oraindik. "Urtetik urtera gutxiago geratzen dira", ohartarazten du Jerardo Elortza historialari oñatiarrak; izan ere, obra batzuekin, zubi horiek bota egin dituzte. Oraindik bateren bat zutik dago, eta bitxikeria bat dauka: "Ura apurtzeko ertza, tajamarra daukan zubi bakarra da Oñatin", esaten du Jerardo Elortzak. Ulma Polimero ondoan zegoen zubia bota egin zuten.

Bizilagunen hobe beharreko obrak izan dira horiek, uholdeak saihesteko. Dena dela, fenomeno baten adibide bat dira obrak: hain zuzen, antzinako zubiak dauden lekuak estrategiko izaten jarraitzen dutela, eta zubiek beharrezko izaten jarraitzen dutela.

**Elorregi auzoan zenbait pasabide daude; bistan dago San Prudentzio ermita parekoa, arku bakarrekoa, mendeetan oso erabilia**

**Debagoienean oraindik antzinako zubi asko daude; Oñatin bakarrik hamarnaka, baina horietako asko ez dira lehen begiradan antzematen**

Hala, sarritan, gaur egungo pasabide batek inguruan antzinako beste bat dagoen pista emango digu.

Bat, edo hainbat: hori da, esaterako, Elorregi auzoaren kasua; han, San Prudentzio ermita parean badago arku bakarreko bat, "mendeetan erabilia", Elortzaren esanetan, baina ez da bakarra; ingurune hartan gehiago daude, errepide orokorretik ikusten ez direnak. Bestalde, hango presan oinarrituta, akueduktu txiki bat dago. Deba eta Oñati errekek bat egiten dute Oñatiren eta Bergararen arteko muga horretan.

Ingurune hartan ere zubiren bat galdu egin da obrak egin izan direnean: hori gertatu zen Elorregiko biribilgunea egin zenean.

### HAINBAT ZUBI PARALELOAN

Zubibide asko izan dituzten eta oraindik dauzkaten tarteak ere badaude Deba ibaiaren bidea jarraituta; horietako bat Mekolalde auzoa da, Bergaran. Gaur egun industrialde garrantzitsu bat dago han, eta horrekin GI-627 errepidea komunikatzeko zubi bat eraiki zuten orain urte batzuk. Hain justu, zubi haren paraleloan beste batzuk daude, antzinakoak; horietako bat Narbaitza pareko Mekolalde zubia da, puntu erdiko hiru arkukoa; Erdi Arokoa zela uste zen, baina orain, adituek uste dute XVI. eta XVII. mende artean eraiki zutela.

Aurrera jarraituta, Osintxun zubi ikusgarri bat dago, eta bi berezitasun dauzka: bat, lau arku dituela, erdi puntukoak; eta bestea, erdiko arkua besteak baino altuxeagoa dela (9,5 metro). XVI. mendeko bigarren erdiko dokumentuetan aipatzen dute. Jerardo Elortzaren esanetan, "bota, ez bota... ibili ziren orain urte batzuk".

Leintz bailaran ere oraindik ikus ditzakegu halako antzinako zubibideak; baita Aramaion ere. Kontuan hartu behar da Debako ibaiadarretako zubiak, herrietakoak edo auzoetakoak, askotan kamuflatuta edo estalita egoten direla; hala, Oñatiko Kale Zahar eta Kale Barria lotzen, hiru zubi daude, baina estalita daude; hori bai, gutxienez osorik.

Beste batzuetan, estalita egon barik, lehengo eta oraingo itxura, materialak eta egiturak erakutsiko dituzte: "Batzuetan, berritu izan dituztenetan, lehengo egitura gorde dute, baina porlana-eta bota diote", azaltzen du Jerardo Elortzak.

Beste batzuk ez dituzte konpondu, eta mendeetako kalteen eta higaduraren erakusle dira, ur handiek-eta kaltetuta.

DATUA

**4**

**ARKU**

Debagoieneko zubi zahar gehienek arku bat edo bi dituzte; hirukoak badaude batzuk, baina oso ezohikoa da lau arkukoak ikustea; Osintxun badago bat.

Euskara ikasteko bide zuzena
2010-2011 **IKASTURTEA**
**MATRIKULA ZABALIK**
Eskoriatza Aretxabaleta Arrasate Arrasate Oñati Urretxu-Zumarraga Legazpi Beasain Tolosa Azpeitia Lasarte-Oria Eibar Elgoibar Mutriku Hernani Errenteria Deba Zarautz Pasaia Irun Hondarribia
UE www.udaleuskaltegiak.net
**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net
**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Zabalotegi, 13
BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
E-posta: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net





Elorregiko presaren pareko beste zubi bat.



**GI-627 errepideko biaduktua.**



San Prudentzio ermita pareko zubia, Deba eta Oñati errekek bat egiten duten lekuan. ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



Zuatzolako zubi zaharra, Oñatiko Zañartu auzoan. JOSE URTZELAI



Zubibarri, beheko aldetik, Oñatin, berria egin aurretik. JERARDO ELORTZA

## Berritu ala hil, pasabideen patua

Jerardo Elortzak utzitako goiko argazki zaharretan, 1980. urte inguruko-ak, ikusten dira Oñatiko bi zubi. Goikoan agertzen den Zuatzolako zubi zaharra zena, izen bereko errotaren ondoan, bota egin zuten. Behekoa Oñatiko zubi ezaguna da, Zubibarri; hori eta parekoa, Eskolatxo edo Motxon izenez ezaguna, kultura eta ondare aldetik bigarren mailako intereseko aitortu zituzten, eta berritu egin zituzten. Argazkian ikusten da lehengo egiturarekin, denborak eta uholdeek apurtuta.

**KONPONKETAK GI-627AN**

Erdi Aroko edo XV. mendeko zubiek ez ezik, gaur egungoek ere konpontzeko premia izaten dute; are gehiago, gidarion segurtasuna jokoan baldin badago.

Hala, Foru Aldundiak, Bidegiren bitartez, GI-627 errepideko bi zubibide indartu egingo ditu: Elorregi eta Ola bitarteko bi zubibide dira, eta datorren urtean egingo dituzte lanak. Bidegiko ordezkari Oscar Rekalderen esanetan, "60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako Herri Lan Ministerioak egindako biaduktuak dira, errepideak bere eskumena zirenekoak. Ordutik hona garraioa, batez ere kamioi bidezkoa, garatu egin da, eta zubi batzuetatik pasatzeko arazoak dituzte. Hori gertatzen denean, garraiolariek ibilbidez aldatu behar izaten dute". Batez ere, garraio bereziko kamioiei begira egingo dute konponketa hori: 75 tona edo gehiago garraiatzen dituztenak dira –ohiko kamioiek eraman dezaketen gehieneko pisua 42 tona da–, eta Gipuzkoan dabiltzanen artean, batez beste, 100 tona eramaten dute, Foru Aldundiaren datuen arabera.

Zenbait baldintza bete behar dituzte: aldez aurretik Foru Aldundiari jakinarazi behar diote Gipuzkoatik ibiliko direla; horretarako baimena eskatu eta ibilbidea aurretik esan behar diote . Pilotu lanak egiten dituen automobil batekin ibili behar dira eta, kasu batzuetan, ertzainek zainduta.

Beste baldintzarik ere badago: hala, ezin dira autobidetik joan, ohiko errepidetik baizik.



**OSASUNA** > ALZHEIMERRAREN GAINEKO NAZIOARTEKO EGUNA

# Sentsibilizazioa piztu nahian hainbat ekimen Arrasaten

'Elkarrekin ahal dugu' lelopean, Gipuzkoa osotik iritsitako herritarrak elkartuko dira etzi Arrasaten

Bihar mahai informatiboak jarriko dituzte eta eguaztenerako hitzaldia dago aurreikusita

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Hilaren 21ean alzheimerraren gaineko nazioarteko eguna da, eta, horren harira, Gipuzkoako Afagi elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu herrialdean datozen egunotarako, *Elkarrekin ahal dugu* lelopean; tartean, Arrasaten ere egingo dituzte hainbat ekitaldi.

Afagi elkarteko Debagoieneko arduradun Serapi Arantzabalek, horien guztien berri emateaz gain, jakinarazi digu Arrasateko antolaketetan sei lagun ibili direla lanean. Bihar, zapatua, esaterako, mahai informatiboak jarriko dituzte Seber Altube plazan eta Arbolapetan. Goizean egongo dira toki horietan, 11:00etatik 14:00etara bitartean, gaixotasun horren gaineko informazioa gura duenari banatzen.

**BAZKARIAN, 80 LAGUN**

Bestalde, etzi, domeka, aisialdiarekin lotutako emanaldiak egingo dituzte. Eguerdi partean, 12:30ean, trikitilariak, dantzariak eta otxotea izango dira Herriko Plazan. Ez da egun horretako ekimen bakarra izango: hori amaitzean, bazkaria egingo dute Sara jatetxean. Serapi Arantzabalek jakinarazi digu 80 lagun inguru espero dituztela. Domekako jaialdira Gipuzkoa osoko jendea etorriko da, autobusa gertatu dute eta horretarako. Goizeko jaialditxoan zein bazkarian bizipenak elkartrukatzeko aukera izango dute parte hartzen dutenek.

Bestalde, eguaztenerako, irailak 22, gaixotasunaren gaineko hitzaldia iragarri dute Afagikoek. Elkarteko psikologo Maria Victoria Lucerok alzheimer eta dementziez jardungo du Arrasateko Kulturaten, 18:30ean.

**"EZJAKINTASUN HANDIA"**

Afagiko Debagoieneko arduradunak eragile guztien zein gizartearen "inplikazioa" eskatu du: "Diputazioa, udalak, gizartea, komunikabideak... denak inplikatu behar dira". Horren harira, azpimarratu du oraindik ere "ezjakintasun handia" dagoela gaixotasunaren inguruan. Arantzabalen esanetan, "espezialistek gehiago dakite, baina... informazio gehien batzea ezinbestekoa da gaixotasuna ondoen erameteko. Ea Arrasaten egiten ditugun jardunaldiek gutxienez sentsibilizazioa pizteko balio duten".

Arantzabalek, azkenik, gogorarazi du Afagi elkartearekin harremanetan jartzeko interesa dutenek 943 29 71 18 telefono zenbakira, *www.afagi.org* webgunera edo elkarteak Arrasate pasealekuko 3. zenbakian duen lokalera jo dezaketela.

ESANAK

**"Alzheimerraren harira, Diputazioak, udaletxeak, gizartea, komunikabideak..., denak inplikatu behar dira"**

**Serapi Arantzabal** > Afagiko kidea

## Ekimenak, egunez egun

**18, zapatua**
**11:00** Mahai informatiboak jarriko dituzte Seber Altube plazan eta Arbolapetan.

**19, domeka**
**12:30** Trikitilarien, dantzarien eta Txorbela otxotearen saioa izango dira Herriko Plazan.
**14:00** Bazkaria egingo dute Sara jatetxean.

**22, eguaztena**
**18:30** *Alzheimerra eta dementziak* hitzaldia izango da, Kulturaten.

**ISTRIPUA**

# Bergarako gazte bat larri istripu baten

Gidatzen zihoan autoa kamioi baten aurka joan da Elorregi auzoan

**LANDER MUÑAGORRI** > BERGARA

Bergarako 25 urteko mutil bat larri zauritu zen atzo, gidatzen zihoan autoak kamioi baten aurka jota. Istripua 12:45ean izan zen, Elorregi auzoko gatz biltegiaren eta autoak desegiteko gunearen artean (desguazea).

Suhiltzaileek atera zuten autotik, eta Donostiako ospitalera eraman zuten. Suhiltzaileen arabera, gazteak ez zuen konortea galdu. Lehen momentuan masailezurrean, ahoan eta hortzetan mina zuela kexatzen zen. Anbulantzia medikalizatu batek hantxe bertan atenditu zuen.

Istripuaren ondoren, Elorregi eta Bergara arteko errepidea itxita egon zen eta AP-1 autobidetik bideratu zuten zirkulazioa. Errepidea 14:10ean zabaldu zuten.

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA
ARRASATE MONDRAGON

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2010

Irailaren 16-22



ARRASATEKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
AGENDA 21 ARRASATE
21 UDALSAREA

Egitaraua •• Arrasate

EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA
2010EKO IRAILAREN 16tik 22ra

HIRIBUSA
Irailaren 16tik 22ra, hiri busean guztiz DOAN ibili izango da.
• Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batengatik lagunduta badoaz edo ohiko eskolako bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezen)

**Irailak 18 - Zapatua**
**BIRZIKLETA AZOKA – Bigarren eskuko bizikleta azoka - Seber Altube plazan - 11:00–15:00**

**SEG WAY ZIRKUITOA – Biteri plaza – 11:00-15:00 eta 18:00-20:00**

**ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK - "mugitzeko beste era bat" –Biteri plaza– 11:00-20:00**
Auto hibridoak, Auto elektrikoak, Motor elektrikoak, Motor hibridoak, Paseoko bizikletak, Bizikleta tolesgarriak, Bizikleta elektrikoak, Segway ...

**Irailak 19 – Domeka**
**BIZIKLETA BIRA - Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino bidegorritik**
**Irteera 11:00etan - Seber Altube plaza-**

**Irailak 21, Martitzena**
**BIDE HEZKUNTZA ZIRKUITOA**
**Laubide plaza - 17:00–19:00**
Bizikletak egongo dira, baina nahi izanez gero norberaren bizikleta ekar daiteke

**Irailak 22 – Eguaztena**
**"IPAR GAZI – HEGO GEZA" - Ikus-Entzunezkoa**
**Kulturate – Jokin Zaitegi gela**
**19:00**
Familia giroan bizibidaiatzeko esperientzia...

**MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN TAILERRAK**
**Seber Altube plaza - 17:00**
Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilbidea

**JENDARTEA** > EUSKARA

# Bailarako udal euskaltegiek ikasturtea zabaldu dute

Ikasturte berrian udal euskaltegiek langabezian dauden ikasleak kontuan hartu, eta baldintza ekonomiko malguagoak eskainiko dizkiete



Arrasate, Bergara eta Leintz Gatzagako udal euskaltegietako zuzendariak eta euskara zinegotziak. AMAIA TXINTURRETA

**LANDER MUÑAGORRI** > BERGARA

Arrasate, Bergara eta Leintz udal euskaltegietako matrikulazio epea zabaldu da dagoeneko. *Euskara ikasteko bide zuzena* lelopean aurkeztu dute ikasle berriak batzeko kanpaina.

Udal euskaltegiek hainbat esparru sendotuko dituzte. Horien artean, "euskara tituluen baliokidetza, HABEren mailetako azterketak eta tutoretzak indartuko dira", prentsaurrekoan jakinarazi zutenez. Horretaz gain, iaztik eskaintzen duten 4. maila ere emango da.

Horiez gain, ohiko eskaintza ere egingo dute bailarako udal euskaltegiek: euskalduntze maila guztiak, EGA titulua barne, alfabetatzea, hizkuntza eskakizunak, etorkin gazte eta helduei zuzendutako eskolak, autoikaskuntza ikastaroak, euskalki eta hitanoaren erabileraren ikaskuntza eta merkatari eta ostalarientzako ikastaro bereziak. Azken horientzako, gainera, "ordutegi bereziak jarri ditugu" jakinarazi zuten.

Arrasate, Bergara eta Leintz udal euskaltegiek elkarlana bultzatu dute azken urte hauetan, elkarrengandik autonomoak baldin badira ere. Indarrak eta lanak optimizatze aldera, sagardotegira eta Mundumira jaialdira irteerak egin dituzte denek batera.

PUBLIZITATE KANPAINA

### 21 euskaltegietako geltokiak

Udal Euskaltegiek Gipuzkoan barrena sare zabala osatzen dute, lurralde historikoko bailara guztietan baitaukate ordezkaritza, 21 udalerritan.

Publizitate kanpainako irudian lerro zuzen bat agertzen da, autobus edo tren geltoki baten mapa irudikatuz. Lerro horretan 21 geltoki daude, udal euskaltegiek presentzia daukaten herriak irudikatuz. *Euskara ikasteko bide zuzena* leloak zentroen eskaintzari egiten dio erreferentzia.

Horretaz gain, euskara ematetik haratago dago euskaltegien eskaintza. Jendea euskarara erakartzea eta euskaraz bizi dadin lortu nahi dute. Eta horretarako, euskal komunitatearekin egiten dute lan. Mintzalagunen inguruko proiektuak, gazte etorkinentzako euskara errefortzuak eta Leintz udal euskaltegiaren gurasoei bideratutako *Geuria* aldizkaria helburu hori lortzeko tresnak dira.

**KRISI GARAIAN EUSKALDUNTZEN**

Gaur egun bizi dugun krisialdi honek eragina izan du euskaltegietan ere. "Garai zail hauei aurre egiteko, formakuntzari heldu dio hainbat jendek, eta, ildo horretatik, joan den ikasturtean ikasle gehiago izan zen" azpimarratu zuten udal euskaltegietako arduradunek. 2010-2011 kurtso honetan ere joera horri eustea espero dute, gainera.

Hala eta guztiz ere, ez dute ahaztu nahi izan euren ikasleek eta gizarteko hainbat esparruk bizi duten egoera ekonomiko zaila, eta horri ere heldu nahi izan diote. Hori dela eta, "matrikula ordaintzeko garaian baldintza malguagoak" jarri dituztela azpimarratu nahi izan dute. Iazko ikasturtetik hartutako datuen arabera, hiru ikasletik bat langabezian zegoen.

Lorea Diez de Gereñu > Presoaren senidea

## "Presoak euren duintasunaren alde egiten ari diren protestei babesa erakutsi nahi diegu"

**L.M.** > ESKORIATZA

**Biharko (zapatua), Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Frantziako Saint Martin de Re-ko espetxera martxa antolatu du. Bertan dago Mikel Ilarramendi eskoriatzarra. Biharko martxan Lorea Diez de Gereñu haren bikotekidea ere han izango da.**



Lorea Diez de Gereñu. L.M.

**Zein da martxa honen helburua?**

Euskal presoak kartzeletan mobilizatzen ari dira urte hasieratik. Txandaka *txapeoak* egiten ari dira espetxe bakoitzetan. Irailean Saint Martin de Re-ko presondegian ari dira mobilizazioak egiten. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak urtarrilean hasitako borrokaldiaren testigua hartu dute era horretan. Martxa honen helburua presoei gure babesa eta elkartasuna erakustea da, euren eskubideak aldarrikatzeaz gain.

**Zein aldarrikapen dauzkate presoak espetxeetan egiten ari diren protesta hauek?**

Protestak euren duintasunaren alde egiten ari dira. Horien artean, bisitaldietako miaketak amaitzea, ospitaleetako egonaldiak era duinean egin daitezela, dispertsioa amai dadila eta gaixo dauden presoak eta kondena amaituta dauzkatenak aska ditzatela. Guk geuk, martxa honekin, aldarrikapenekin bat egin nahi dugu.

**"Saint Martin de Re-ko espetxean sei euskal preso daude"**

**Zenbat debagoiendar joango zareta Sain Martin de Re-ko presondegira?**

Bailaratik autobus bat aterako da goizeko 6etan, eta gaueko 9etarako bueltan egotea espero dugu. Espetxe aurrean hainbat ekitaldi egingo ditugu: txalaparta, musika eta bertsolariak izango dira bertan.

**Zenbat euskal preso daude bertako espetxean?**

Sei euskal preso daude, eta horietatik batek 20 urte bete berri ditu kartzelaratuta. Preso horien artean dago Mikel Ilarramendi eskoriatzarra ere.

**Zein da gaur egun Mikel Ilarramendiren egoera?**

7 urte daramatza espetxeratuta, eta, dena ondo joanez gero, datorren urtean da kaleratzekoa. 6 urte egin ditu prebentibo moduan eta urtebete darama Saint Martin de Re-n. Aurretik 900 kilometrora zegoen eta bera bisitatzera joateko bidaia gogorra egin behar izaten genuen, haurra alboan generamala. Orain, *gertu* dagoela esan daiteke, lehengo egoerarekin alderatuz gero 500 kilometrora baitago. Bisitaldiak, gainera, gehiagotan egin diezazkiokegu; beraz, haren egoera, hein batean, hobetu egin dela esan daiteke.



Izaskun Moiua, hitzaldia egin aurretik. L.M.

**JENDARTEA** > GENERO BERDINTASUNA

## Berdintasuna izan zuen hizpide Izaskun Moiuak

**L.M.** > OÑATI

Debagoieneko EAJk apiriletik hona hainbat hitzaldi antolatu ditu *Debagoiena eraikitzen* lelopean. Joan den eguaztenean, Izaskun Moiuak hitzaldia egin zuen Oñatin. Sei urtez Emakundeko idazkari nagusi eta beste lau urtez bertako zuzendari izandakoak *Emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna, gizarte transformazioaren gakoak* izeneko hitzaldia egin zuen. Berdintasuna izan zuen hizpide, eta demokrazia berdintasunarekin eraiki den ala ez galdetu zuen. Emakumeen borroka nola izan den ulertzeko hainbat klabe ere eman zituen. "Gaurko historia emakumeen atzean" egin dela azpimarratu zuen Moiuak.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuko aholkularia da egun Moiua. Iaz utzi zuen Emakundek gaur egun duen norabidea kritikatu zuen.

Izaskun Moiuari egindako elkarrizketa *Asteleheneko goienkaria*-n irakurri ahal izango da.



zabalik

Andoni Urzelai

# Zaplast!

Badute zenbait liburuk irakurlea astintzeko dohaina. Musikan ere maiz gertatzen da, disko jakin bat erosi eta… batbatean, danbatum! Sekulako deskubrimendua egin duzula jakitearen barne poz hori... Halakoetan, irakurri edo entzun duzuna konpartitzea baino beste erremediorik ez zaizu geratzen. Barrenak erretzen dizkizu deskubritutako objektu horrek, eta piromanoa bezala hasten zara orduan barreneko sugar hori han eta hemen zabaltzen.

Eta kuriosoa da, liburu, disko, eta filmekin baino ez baita gertatzen hori. Gainontzean, egiten ditugun aurkikuntza guztiak (dela paraje bat, dela altxor bat, dela burtsan inbertitzeko informazio erabakigarri bat) norberarentzat gordetzen ditugu, aukera horiek guk geuk bakarrik baliatu ditzagun eta ez diezaion gu ez garen inork probetxua atera eta gozatu….

Horixe gara eta ez naiz ni orain zergatik garen garena (geurekoi koadrila nazkante samarra) azaltzen hasiko. Kontua zera da: azkenaldi honetan bi liburuk seko harrituta utzi nautela eta nolabaiteko sarrera behar nuela Teletienda itxura hartu ez zezan gomendioak.

**"Egiten ditugun aurkikuntza guztiak norberarentzat gordetzen ditugu"**

Hara, Beatriz Espejo katalanaren *Manifiesto Puta* da lehena. Eta Itziar Ziga euskaldunaren *Devenir perra* bigarrena. Biak ere zuzenak, ezberdinak, argigarriak eta Mohamed Alik emandako belarrondokoa bezain indartsuak. Ni gutxienik horrela utzi naute: nokeatuta. Ez dizuet txintik esango sexualitate eta generoen ikuspegi berritzaile eta iraultzailea dakarten liburuon edukiaz (batez ere oraindik ere bertan irakurritakoa irentsi eta neure egin behar dudalako), baina irrikaz gomendatzen dizkizuet. Total, zer dira ba hamabosna euro, hiru gin-toniken prezioan mundu berri baterako atearen giltza, aizue!

usteak uste

Jokin Bereziartua

# Ezin mugikortasun eredua aldatu

Urtero moduan, irailaren 16tik 22ra bitartean Europan egiten den Mugikortasun Iraunkorraren Astea Arrasaten ere ospatuko da. Beste era batera mugitzea posible dela erakutsiko digun astea. Baina izan gaitezen errealistak: urteko gainontzeko 51 asteetan bizikleta, segway, trikke edo rollerra hartu beharrean autoan mugitzen jarraituko dugu. Edozertarako autoa hartzetik autobusa hartzera jauzi handia ei dago, eta ez gaude gertu hori onartzeko; hala erakutsi dugu urtetan zehar. Bada, hasi dira neurriak: Bergarako TAO, horren adibide.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

# Liburuen dama

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Masajistarengana joan naiz, baina liburúrik gabe. Oker handia. Egunotako prentsak aireratu duen Louise Brown-en kasuarekin entretenitu dut itxaroa. Eskoziarra da dama. Laurogeita hamahiru urte ditu. Hogeita zazpirekin –1946an– bazkide egin zen auzoko liburutegian. Ordutik, sei liburu atera ditu, astero-astero, maileguan. Milaka eraman ditu etxera, eta eramandako gehienak irakurri omen ditu; eta, irakurri gabeak, gainbegiratu..

Irakurketa asko dira. Orduak ere, asko. "Irakurketak zer lapurtu ote dio Louiseren bizitzari?" irakurri dut artikulu batean. Lapurtu? Bizitzari? Eta kirolariek? Edo auto-fabrika batean sailean ari den mekanikariak? Irakurketa ere bizitzaren parte bat da. Bizitzatzat jotzen ditugun egintza-sail asko baino bizitzagoa.

Ni neu, liburuirik gabe nagoenetan sentitzen naiz bizitzaren lapur. Lehentxeago bezala, masajistarenean. Ez nekien zer egin. Eskerrak Liburuen Damarekin gogoratu naizen.

Oharrak:

Zutabean datu garrantzitsu bat falta da, gaiari ekin nionean nik ez nekiena: Louise Brown hil berri da, horregatik iritsi da haren kasu liburujalea periodikoetara.

Irakurri ala bizi? Irakurri eta bizi? Irakurriz bizi? Irakurritakoarekin bizi?

# Susmo txarra

**Joxe Aranzabal**
http://goiena.net/blogak/faroa/

Jose Luis Korta haserre dago Kontxako estropada galdu duelako, eta orain susmoa zabaltzen ari da, esanez Urdaibaik dopinari zor diola garaipena. Bitxia da, zeren aspaldi honetan horixe bera pentsatu izan dut nik Kortak berak gidatu dituen taldeen gainean (eta ez naiz ez batekoa, ez bestekoa): askotan hartu izan du talde bat zuloan zegoena, eta ezerezetik ia, garaile distiratsu bihurtu. Akaso denek ere izan dezakete zer azaldua.

koplak

Eñaut Uriarte

# Desagertu da betiko

Despedida on bat egin
zotzagun
julixuan bukaeran,
Pol-Pol leku mitikua izanik
merezia zeban eran.

Nahiz eta orduan egin giñuan
agur festa edo jaia,
ziur bertan egon giñenontzat
etzala izan alaia.

Txiki-txikitik akordatzen naiz
mendi talde zein taberna,
guk zenbat ordu eman dittugun
bere pareten barrena

Nola edo hala mantentzen /
zeban
honek piztuta herrixa,
baina itxi dabe eta betiko
emendau jako argixa.

Jende askorentzat izan da berau
toki edo bilgunea,
igarriko da taberna honek
utzitako hutsunea.

Ta baitta jakin mendi taldia
kalian geratu dala,
udaletxiai esan nahi dotzat
hori konpondu dezala.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienka2a eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# Andramaixak 2010

**Larraitz Arando Ilarduia**
Aretxabaleta

Uztailean jaietako egitarau tristea heldu zitzaigun etxeko gutunontzira. Azken urteetan bezala, aurten ere aurrekontuaren zatirik handiena kontzertu bakarrean xahutzea izan da Udalaren apustua. Hori eta krisiaren estutzearen aitzakiarekin, egitaraua hutsa bidaltzeko ez dute lotsarik izan. Eskerrak Udalak ez dituen jaiak egiten.

Eskerrak jaiak herritarrok egiten ditugula, eta aurten ere Gazte Ekimenak horixe demostratu zigun. Egitarau tristearen gainetik, jaiak herritarrentzat eta herritarrokin egiten direla. Bertan gelditu ginenontzat eskaintza zirraragarria eskaini ziguten: mozkorraren igoera, herriko taldeen kontzertuak, afaria, umeentzat tailerrak, berbenak, trikipoteoak, jolasak, umorea eta giro ona.

Hau guztia, diru gutxirekin. Oso gutxirekin.

Ilusioarekin eta lanarekin. Udalari ikasgai ona eman zenioten. Zuen lanari esker Andramaixak herritarron jai bilakatu zenituzten eta ederto pasatu genuen. Aupa, zuek! Eskerrik asko.

# Kronika zaharra

**Jose Manuel Pagoaga 'Peixoto'**
Baigorri

1968ko ekainaren 7an, guardia zibilek Bentaundin Txabi Etxebarrieta hil zuten. Ondoko asteetan Euskal Herriko herri askotan Txabiren aldeko hileta mezak antolatu ziren, ia guztiak ("ia denak" diot, zehatz jakiterik ez genuelako izan) egurka eta tiroka debekatu zituzten.

Arrasaten samin, haserre eta egonezin handia arnasten zen herriko alor eta giro askotan. Halabeharrez sortu zen "Herriko indar biziak" komitea, gazteleraz bataiatua.

Komiteko ordezkaritza On Jose Luis Iñarra parrokoarekin batzartu zen meza emateko prest bazegoen, noiz eta nola erabakitzeko. Jose Luis Iñarrak ez zigun eragozpenik jarri. Igandeko hamaiketan izango zen meza, ahoz aho hedatu behar zen berria.

Beste herri batzuetan gertatzen ari zena kontuan harturik, hitzen bat gorabehera, honela aholkatu gintuen On Jose Luis Iñarrak:

"Zuek ikusiko duzue, uste diat denok gaudela erne ibili beharrean. Nik hamaiketako meza bere izenean emango diat, eliza erdi hutsik badago ere. Zuen lekuan, San Frantzisko elizako fraideekin berba egingo nikek, hamaika eta erdietako meza Etxebarrieta zenarentzat lortu ondoren, nahikoa duzue zortziren bat adin gordineko gizon eta emazte, batez ere emazteak, araberako tokietan jartzea, eliztiarrei San Frantziskora joateko esanez".

Horrela egin genuen arren, hamaikak eta laurdenetarako guardia zibilek inguratua zuten San Frantzisko eliza, zakarki, oso zakarki jendeari oihuka eta bultzaka handik aide egiteko aginduz.

Aurrean genituen guardia zibilek ez zuten ezer ikustekorik ordura arte bide ertzean nagi ikusten genituenekin. Erotuta edo mozkortuta zeudela ematen zuen.

San Frantzisko eliza inguruetan noraezean ginaudela, Biona parean, guardia zibilek kulatarekin amandre bat buruan jo eta konorterik gabe zentrora eraman zutela jakin genuenean, orduantxe hasi ziren oihuak eta takarrarak.

Ordura arte "si señor" baizik entzun ez zuten guardia zibil haiek une hartan entzun zituzten bai entzutekoak eta bi.

Arratsaldeko bostetan Elma parean elkartu behar zela hedatu zen gure artean. Hantxe elkartu ginen 200 bat neska-mutilek bidea moztuta geneukala, bi erabaki hauek hartu genituen: guardia zibilak etortzearekin batera lurrean jarriko ginela, jendea erakartzea helburu izanik. Hasieran isilik eta hala bezain poliki egitea onetsi zen. Ez zuen asko iraun egonaldiak, goizean bezain azkar azaldu ziren zibilak, "circulen, fuera de aquí" oihuka. Lurrean jartzen ginela ikusi zutenean, tarra tata… behin eta berriz. Gure arteko askok lehen aldiz entzuten genuen arren, garbi zegoen hura "tiro erreala" zela. Ipurdiekin bidea epeltzeari utzi eta ausartenek, bueltan, kanposantura igo eta azpian zeuden guardia zibilak harrikatu zituztenean, egundoko "bataila kanpala" sortu zen han. Jarririk ginela bota zituzten tiroak, ziur geunden haizera egin zituztela. Orain, aldiz, garbi ikusten da jendea zebilen aldea tirokatzen zutela. Balaz zaurituak bi edo hiru izan zirelakoan nago, puntu hau sekulan ez dut jakin ziur, batez ere, beldurra zelako agintari gorena. Taldetxo bat Oxinagatik bueltan trenbidez sartu ginen herrira, kaleetan urduritasuna eta beldurra arnasten zen, zurrumurruak merke eta ugari. Bederatziak jotzearekin batera hasi ginen plazan biraka. Ia berehala utzi zion bandak musika jotzeari. Hamarrak inguru zirenerako, 400 edo 500 lagun beti biraka eta alkatea azaldu zedila eskatuz. Gure pozerako, plaza inguru guztia jendez bete-betea zegoen. Hala genbiltzala, norbaitek biziki gora oihukatu zuen: "No queremos espectadores". Plazaratzen ikusi nuen lehen buru zuria Gorroñogoitia zaharra izan zen bere alabaren besotik, gaurko Gorroñogoitiaren aita zena eta 36an euskal gudarostean komandante izan zena.

Turuta agintariak jo izan balu bezala, inguruan zegoen jende guztia plazara sartu zen, han ez zegoen itxika ibiltzeko lekurik, denok herriko etxeari begira, alkatea ager zedila oihuka.

Esan zidatenez, hiru jendez osaturiko ordezkaritza bat prest omen zegoen alkatearekin elkartzeko. Hiru jende heldu eta entzute oneko hauen bitartez, alkateari eskatu gura geniona hau da: idatziz gaitzestea zibilen jokaera, "condenar" hitza ezin bazen, "deplorar" hitza onartaraztea gogor saiatzeko asmoz.

Ez dakit zer haizek jota, plaza alboko hormaila gainera jo nuen, neure begiekin ikusi gura nuen jendetza hura. Han zegoen herria, orduan sentitu nuen barne poza bizirik daramat oraindik; eta hara, neure baitan hitz bakoitza azpimarratuz, hauxe pentsatu nuen: hemendik aurrera ez dik inork gehiagok esaten ahalko hau gazte buru bero batzuen kontua dela.

Ba pintaketa edo ikurrina bat azaltzen zenean, tabernetan edo lantokian sarri entzuten nuen: "Gaur ere ez dituk lo egon gazte buru beroak". Esaldi honekin min handia hartzen nuen. Bai, gazteak ginela egia zen, baina pintaketak egiterakoan edo ikurrinak jartzen ibiltzen ginenean, beldurraren eraginez, erne, oso erne ibili beharrak ez zuen buru berokerientzat zirrikiturik ere uzten.

Hamaika eta erdiak aldera, alkatea ez zen azaltzen, bere etxean ere ez zegoela eta, plaza poliki-poliki hustuz joan zen.

Esango dudana guztiz neurtezina izan arren, gero eta konbentzituago nago Txabi Etxebarrietaren gorpuarekin batera ehortzi zela euskaldun asko eta askoren etsipena.

Gau hartan Arrasateko Plazara sartzeko duintasuna izan zuten guztien omenez.

# Aita Menniko langileriari eskerrak

**Jabier, Espe eta Elena Zubizarreta**
Arrasate

Edurne Zabaleta Mendikuteren familiak eskerrak eman nahi dizkizue Aita Menniko langileei urte hauetan amarekin erakutsi duzuen begirune eta hurbiltasunagatik. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

# Bihotzetik, esker onez

**Edurne Agiriano, Rufino Delgado, Joana Urisabel, Santi Betelu**
Oñati

Orain dela aste batzuk, abuztuan, Oñatiko Mikelete inguruan izandako istripua aipatu nahi dugu. Momentu hartan, urduritasun artean, ez geneukan indarrik gertutik eskerrak emateko eta lerro hauen bitartez eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu laguntza emateko prest bertara gerturatu zineten guztioi: Arendui baserrikoei, menditik bueltan zetozenei, Gurutze Gorrikoei, suhiltzaileei… Erreskate lanetan lagundu zenuten guztioi, bihotz-bihotzez, mila esker.

# Minusbaliatuen egoera

**Aritz Bikuña**
Bergara

Bergarako minusbaliatu bat naiz eta kexu baten berri eman nahi dut. Gure herrian ez dago hotel bat bera ere prestatuta minusbaliatuendako. Bada bat, sarrerako eskailerak ekiditeko jasogailua duena, baina gurpildun aulkia ez da atetik sartzen. Logelak ere oso txikiak dira.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Ibarra kalea 6
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com


IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Behin eta berriz errepikatu du Pello Urizar EAko idazkari nagusiak ziklo berri baten aurrean gaudela eta bide baketsuak bakarrik erabiliko direla ziklo horretan. Egoera berrian, Madril oso urduri dagoela dio eta ezker abertzalearekin sinatutako itun estrategikoa epe luzerako dela, oinarri sendoak dituela eta ez dela alkatetza bat edo beste lortzeko egina.

**Pello Urizar** > EAko idazkari nagusia

# "Bide politiko eta baketsuak bakarrik erabiliko diren ziklo berrian gaude"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

**Duela urtebete pasa izendatu zuten EAko idazkari nagusi, San Juan jaien bezperan. Eta alderdia zatitu arren, inoiz baino batuago eta sendoago ikusten du Pello Urizarrek (Arrasate, 1968) alderdia.**

**Egoera asko aldatu da ETAren azken agiriaren ostean?**

Aspaldi euskal jendarteak espero zuen albistea da. Hori da azpimarratzekoa. Hortik aurrera, batzuek alde txarrak nabarmendu nahi izan dituzte, baina ezin da ukatu alde onak ere badituela agiriak, esaterako, duela hilabete batzuk ETAk erabakita zuela ekintza armaturik ez egitea. Hori da garrantzitsua. Bere egunean Bruselan egindako adierazpenari erantzuna eman dio ETAk. Hala ere, urrats bat da eta beste batzuk etorri beharko dira. Atzera bueltarik ez duen aurrerapausoa da.

**Gehiago espero zenuen?**

Espero dut aurrerago beste urrats batzuk egitea, berandu baino lehen. Ezker abertzaleak eta EAk adostua dugu ze urrats egin behar den: ETAk iragartzea su-eten iraunkorra, nazioarteko begiraleek egiaztatua. Horrela bermatuko litzateke prozesuak itzulerarik ez edukitzea. Bide politiko eta baketsuak bakarrik erabiliko diren ziklo berri baten aurrean gaude.

**Jesus Egigurenek eskatu dio Lopezi mugitzeko...**

Jaurlaritza oso motel ikusten dut. Hemen arazoa ez da indar abertzaleena bakarrik, jendarte osoaren interesa dago jokoan. Eta, jendarte osoaren kontua den heinean, Eusko Jaurlaritzak asko dauka esateko, nahiz eta orain arte ezer egin ez.

**Egigurenen esanak aintzat hartzen dituzte euskal sozialistek?**

Sozialisten trauma da PPkoen mendean daudela, bai hemen eta baita Madrilen ere. Horrek arazoa sortzen die pentsatzen dutena ezin dutelako argi eta garbi adierazi publikoaren aurrean.

**Ezker abertzale legez kanporatuak eskatu dio Madrilgo Gobernuari Alderdien Legea bertan behera uzteko.**

Bruselako adierazpenak garbi eskatzen die bi aldeei mugitzeko, eta Espainiako Gobernuari, esaterako, Alderdien Legea bertan behera uzteko eskatzen zaio. Beharrezkoa da prozesuak aurrera egin dezan.

**Popularrek eta sozialistek *Tonto util* esamoldea erabili dute zuei buruz berba egiterakoan.**

Nahiago dut izan tonto edo ergel erabilia, ezertarako balio ez duen eta ezer egiten ez duen *listilloa* baino. Erraza da ezkutalekutik begiratzea eta ezer ez egitea, baina jendeak eskatzen digu arriskatzea, mugitzea, bustitzea.

**Urkullurekin batu zinen joan den astean. Zer moduz?**

Nork bere irakurketa egin du. EAJk aurreratu zigun prozesu honek aurrera egin dezan trabarik ez duela jarriko. Ez da gutxi, baina uste dut harantzago joan beharko litzatekeela, eta, une honetan, EAJ ez dugu ikusten borondate horrekin.

**Jeltzaleek ekimen berria prestatzen dihardute ETAren suetena dela-eta. Horren berririk baduzu?**

Ondo iruditzen zaigu, ekimen konkretu batera batu ez arren beste bat sortzea. Zerbait aldatu dela onartzen da. Ez gaude orain dela urtebete geunden egoera berean, eta urrats berriak egitea beharrezkoa da.

**Iaz ekainean izendatu zintuzten EAko idazkari nagusi. Gauzak hobeto daude orain alderdian?**

Bai. Alderdia batuago eta sendoago dago orain.

**Zer diozu Adierazi Euskal Herriak zapaturako Bilbon deitutako manifestazioa debekatu izanaren gainean?**

Debeku politikoa izan zen. Oso urduri ikusten dut Estatua, sortu den egoera berriaren aurrean. Orain arte dena indarkeriarekin nahastu izan dute eta lasai kudeatu izan dute egoera, eroso, oso mezu sinple bezain eraginkorrekin. Zapatuan ez zuten Bilbo ikusi nahi jendez beteta, oso oinarrizko aldarrikapenak egiten, hau da, aldarrikatzen eskubide zibil eta politikoak, baina horien guztien aurretik giza eskubidea: bizitza eta askatasun eskubidea. Ziklo berriaren aurrean urduri ikusten dut Madril.

**Manifestazio hori bi bider debekatu ostean, eskubideen aldeko mugimendua eratu da. Ze ekarriko du horrek?**



Pello Urizar, EAko idazkari nagusia. ENEKO AZKARATE

POPULARREI ETA SOZIALISTEI

**"Nahiago dut izan tonto erabilia, ezer egiten ez duen 'listilloa' baino"**

ZIKLO BERRIA

**"Ez gaude orain dela urtebete geunden egoera berean eta urrats berriak egitea beharrezkoa da"**

Debeku horrek ez du ezer atzeratu edo geldiarazi. Manifestazio eskubidea bermatu behar da, eskatzen dihardugunа edozein demokratak onartzeko modukoa da eta etorri beharrekoa etorriko da. Ziur nago.

**Beste manifestazio bat deituko dute aurki?**

Seguru; aurki, gainera.

**Udalbiltzaren aurkako epaiketak aurrera jarraitzen du, Udalbiltza ETArekin lotzen duen frogarik ez egon arren...**

*Egunkaria* kasuan baino froga gutxiago dago orain. Ezberdintasuna da aurrekoan fiskalak ez zuela zigor eskaerarik egin eta Udalbiltzakoan, ostera, bai. Bata zein bestea epaiketa politikoak dira eta frogak eduki edo ez, Estatuko botereak tartean daudenean edozer gerta daiteke. Espero dugu *Egunkaria*-ren epaiketarekin bezala hemen ere zigorrik barik ateratzea denak. Udalbiltza da Lizarra-Garazi sasoiko ekimenik positiboena.

**Ezker abertzale legez kanporatua hurrengo hauteskundeetan normal aurkeztu ahal izango dela uste duzu?**

Alderdien Legearen aurka gaude, besteak beste, Euskal Herriko erakundeetako ordezkaritza maila aldatzen duelako eta errealitate faltsua osatzen duelako, gehiengoak aldaraziz. Ezker abertzaleak bere alderdi propioa eduki nahi du. Lortuko duen edo ez, ez dakigu, interes politiko handiak daudelako, tamalez.

**EAren eta ezker abertzalearen arteko elkarlana gauzatuko da hauteskundeetan?**

Ekainaren 20an sinatu genuen akordioan argi utzi genuen elkarlan estrategikoa dela. Helburua da euskal estatua lortzea eta, hori, soilik, bide baketsu eta demokratikoen bidetik. Hauteskundeetatik haratago doan elkarlana da. Hauteskunde hauei begira, elkarrekin eta legearen barruan zerbait sortzea posible izango balitz, egingo genuke, baina berriz diot hori ez dela garrantzitsuena.

**EA hasi da prestatzen hauteskundeetarako zerrendak?**

Bai, gure barruko lan hori egiten gabiltza, batzuek oso modu interesatuan esan arren gure siglak salduko ditugula.

**Arrasateko alkategaia izango zara?**

Gauzak bere sasoian egin eta esango ditugu. Udazkenean barrena, Gabonak baino lehen, jakingo dugu hori.

**Nafarroa Baik irabaz ditzake hauteskundeak Nafarroan?**

Aukera garbiak ditugu lehen indarra izateko, eta aldaketa politikoaren alde egingo dugu.

⊕ **goiena.net**/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.


Kutxa Auto Asegurua
+18
1:1
Hemen, asegurua kontratatzeak esan nahi du
Estaldura handiena zure autoarentzat baldintzarik onenetan
> %60rainoko hobaria gidari ona izateagatik.
> Erabateko ezbehar, lapurreta edo sutea gertatuz gero, auto berriaren balioagatiko kalte-ordaina.
> Kristal-apurtze, lapurreta edo suteagatiko parteek ez dute frankiziarik ordainduko, ezta hobariari eragingo ere.
> Eta hasteko, Esku Libreko bat opari duzula abiatuko zara.
Informa zaitez eta kalkulatu zeure prima kutxaren edozein bulegotan.
kutxa
zugandik zugana
* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.



Argazkia: Martin Diez Zuruzuza
ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA
09:00 -14:00
HILEKO
3. ZAPATUAN
irailak 18
urriak 16
azaroak 20
Antolatzailea:
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea:
ibai-arte
Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.



**> ARRASATE** Bizikleten inguruko hainbat hitzordu, mugikortasunaren aste bukaeran **> 12**



**> BERGARA** TAO sistema astelehenean jarriko dute martxan **> 16**




**> ARETXABALETA** UDAren etxeko lehen partidura animatzera joateko dei egin dute **> 23**



**> ANTZUOLA** Hilabete eta erdi geldirik egon eta gero, hasi dira eskolako obrak **> 25**

**OÑATI** > ARGITERIA PUBLIKOA

# Erdiguneko argiak aldatuta, %65 aurreztuko du Udalak elektrizitatean

**AZAROAN** Kale Zahar, Kale Barri eta plazako arkupeetako argiak aldatzen azaroan hasiko da

**TEKNOLOGIA** VSAP teknologiadun –sodiozko lurruna– bonbillak ipiniko dituzte

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Kale Zahar osoko, Kale Barri osoko eta Foruen plazako zati bateko kale-argiak aldatuko ditu Udalak. Egunotan jaso du herriko argiteria publikoaren gaineko azterketa bat, eta horren ondotik, osoko bilkuratik pasatu beharko da aldaketa proposamena, eta azaroan hasiko dira lanak. Aurrekontua 130.000 eurokoa da –Euskal Energiaren Erakundeari dirulaguntzak eskatuko dizkio Udalak–, eta oraingo argiteria publikoaren gastua %65 txikituko da.

Erabaki hori Udalak duen "konpromiso" baten ondorioa da, Lourdes Idoiaga alkatearen esanetan: dirua aurrezteko eta kutsadura murrizteko –gero eta iraunkorrago izateko, alegia–, duen konpromisoa.

Presio handiko sodiozko lurruneko (VSAP, gaztelaniazko sigletan) teknologia aukeratu du Udalak kale horietako argi berrietarako. Alkateak azaltzen duenez, "LED teknologia baino aproposagoa da argiteria instalazio berbera erabili gura bada, eta mantenua ere merkeagoa da". Hala, obra txikia beharko da Kale Zaharra, Kale Barria eta Foruen plazarako, ez da kableatua aldatu beharrik izango-eta; bakarrik bonbillak eta luminariak edo lanparak. Luminariook zelakoak izango diren oraindik ez du erabaki Udalak; hainbat aukera begiratzen dabiltza.

**"POTENTZIA LARREGI"**

Oñatiko kale-argiteria osoa aztertu du Sematec etxeak, Udalak eskatuta. Ondorioetako bat da eraginkortasun txikiena aipatutako hiru guneek –Kale Zaharrak, Kale Barriak eta Foruen plazak– daukatela; hau da, "potentzia larregi kontratatuta" daukala Udalak, alkatearen esanetan; VSAP teknologiadun argiteriarekin, "orain adina argi emango da, eta hobeto banatuta egongo da", esaten du Xabier Zelaia udal aparejadoreak. Gaur egungo farolekin, argi asko alferrik galtzen da –adibidez, luminariek gorantz ere botatzen dute argia, eta hori ez da beharrezkoa; bestalde, gaur egungo bonbillekin, farola biren artean iluntasun guneak geratzen dira, eta hori konpondu egingo da esandako aldaketekin.

Bestalde, luminaria berriei esker, CO2 gutxiago sortuko da: Udalak enkargatutako txostenaren arabera, urtean 514 tona CO2 gutxiago sortuko dira herrio erdiguneko argi guztiak aldatzen direnean. Bestetik, argi-kutsadura delakoa ere txikitu egingo da: hala, luminariek goitik estalki bat izango dute, argia gorantz sakabanatu ez dadin.

Eraginkorrago izateko beste neurri bat izango da argiak hobeto erregulatzeko sistema bat ipiniko dutela; hala, noiz isiotu eta noiz itzungi kontrolatzeaz gain, bonbillek argi gehiago edo gutxiago emango duten kontrolatuko da.

Obrak nahi eta nahi ez bukatuta egon beharko dira datorren urteko uztaila bukatu baino lehen, dirulaguntzak jaso ahal izateko. Alkateak dioenez, baina, epe hori soberan beteko dute.

**GERO, BESTE KALE BATZUK**

Esandakoa lehenengo fasea da bakarrik, baina asmoa da herri osoan premia dagoen lekuetan kale-argiok aldatzen joatea, zatika. Ordena eraginkortasun azterketak markatzen du, alkatearen eta udal aparejadorearen esanetan: "Eraginkortasun txikienetik hasi eta handiena dutenetara, hori da jarraituko den ordena". Hurrengoaz galdetuta, hauxe erantzuten dute udal arduradunek: "Seguru asko, erdigune inguruko kaleak: Atzeko Kale, Arantzazuko Ama, Aita Madina...". Betiere, esandako irizpidea jarraituko da: eraginkortasun txikiena dutenetik handiena dutenera aldatuko dituzte.

Baliteke argi batzuk aldatzeko beharrik ere ez egotea, gura adina eraginkorrak direla –argi kopuru egokia eta kutsadura maila txikia dutenak– ikusten bada. Udalak 1.200.000 euroko inbertsioa kalkulatzen du proiektu osorako, eta 7-8 bat urtean amortizatuko da.

ESANAK

**"Iraunkortasunarekin konpromisoa dugu: dirua aurrezteko eta kutsadura txikitzeko"**

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

**"Orain adina argi emango dute bonbilla berriek, baina hobeto banatuta"**

**Xabier Zelaia** > Udal aparejadorea



Kale Zaharreko luminaria bat, laster aldatu egingo dutena. LEIRE KORTABARRIA

LABUR

## Udaletxeko faktura erdira jaitsi guran

Udaletxeak elektraindar kontsumo "neurribakoa" du, udal arduradunen esanetan, eta hori konpontzea ere badago argiztapena berritzeko proiektuaren barruan. Kontuan hartu behar da udaletxea monumentua dela eta ezin dela edozein obra egin. Horrela bada, oraingo argi-puntu berberetan, lanparak aldatu egingo ditu Udalak. "Orain ditugunak kontsumo handiko bonbilla goriak (inkandeszenteak) dira, eta fluoreszenteetara joko dugu", esaten du alkateak. Energia eta dirua aurrezteko beste neurri batzuk ere hartuko dituzte udaletxerako, eta oraingo faktura erdira txikituko da. Inbertsioa 772.000 eurokoa izango da.

DATUA

**514**

**TONA CO2**

Erdiguneko kale-argi guztiak aldatzen direnean, gutxiago kutsatuko du argiztapenak: urtean 514 tona CO2 gutxiago botako dira atmosferara. Hori da Udalak jasotako txostenak dioena.

DATUA

**130.000**

**EURO**

Kale Zaharreko, Kale Barriko eta Foruen plazako argiak aldatzea 130.000 euro kostatuko da. Dirulaguntzak eskatuko dituzte. Herri osoko argiteria aldatzea 1.200.000 euro kostatuko da.

**INGURUMENA** > MUGIKORTASUN ASTEA 2010

# Herri barruko bizikleta sarea, Ingurumen Sailaren lehentasun

## Arrasatera etortzeko edo Arrasate zeharkatuko duen bizikleta sarea osatuko dute herri barruko sarea baino lehen, Diputazioarekin elkarlanean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Birzikleta azoka da, duda barik, egunotan Arrasaten egiten den Mugikortasun Astearen ekitaldi garrantzitsuenetako bat. Herritarren interesa erakartzen du, herritarren zaletasun garrantzitsu batekin bat datorrelako: bizikletan ibiltzea; eta ez bakarrik aisialdirako edo kirola egiteko, baita garraio moduan ere.

Hala erakusten dute, esaterako, Gipuzkoako Diputazioaren datuek: 2008arekin alderatuta, iaz %17,3 gora egin zuen bizikletaren erabilerak .

**Hitzordu batzuk**

**18, zapatua**
**11:00-15:00** Birzikleta azoka, Seber Altube plazan.
**11:00-15:00 eta 18:00-20:00** Segway zirkuitua, trikke eta roller zirkuitua, Biterin.
**11:00-20:00** Emisio txikiko ibilgailuen erakusketa, Biterin

**19, domeka**
**17:00-19:00** Bizikleta Bira; Arrasatetik Eskoriatzako plazaraino, bidegorritik.

**HERRI BARRUKO BIZIKLETA SAREA**

Arrasaten ere bide horretatik jo gura dute: "Lehentasunetako bat eta gure sailetik bultzatu gura duguna da bizikletaren erabilera", adierazi du Nerea Lazpiurrek, Ingurumen Saileko teknikariak.

"Helburua da herrian mugitu ahal izateko sarea osatzea; ez bakarrik aisialdirako, baita eskolara edo lanera joateko ere, erosketetarako… herri erditik ibiltzea traba barik, eta errailak izatea bakarrik bizikletendako; erraila konpartitzeak arriskuak ugaritu egiten ditu eta erosotasuna jaitsi", gaineratu du.

**EUROPATIK URRUN**

Oraingoz, baina, asmoak dira Udalak dituenak: "Planak egin egin behar dira, eta orain diru gutxi dago planak egiteko, eta horiek exekutatzeko are gutxiago". Hala, Europako zenbait herrialderen egoeraren parera iristeko Arrasateri "urte asko" falta zaizkiola adierazi du teknikariak.

**KANPOKO SAREA**

Hala ere, Arrasatera etortzeko zein Arrasate zeharkatzeko bidegorri-sare osoa izateko gutxi falta dela ere gogora ekarri gura du du Lazpiurrek: "Diputazioak badauka bidegorrien planean San Prudentziotik Arrasatera etorriko dena. Hark, bat egingo du, batetik, Gernika zumardiarekin; eta bestetik Kataidetik etorriko da, Eroskitik pasatu eta joango da ospitaleraino. Hori izango da ardatz nagusia. Hain justu, Diputazioa iritsiko da zubitxoraino, eta Udalak egin beharko du konexioa Zerrajerako etxe berrietako bidegorri zatiarekin".



Herritarra bizikletan, Erdiko kaletik gora. U.M.

Eta teknikariak gogora ekarri du, baita ere, bidegorri zati pare bat faltan leudekeela:" Zatirik nekezena eta arazo gehien emango duena izango da Maiatzaren Bata biribilgunetik sartu, Gipuzkoako plazatik (Eskola, Ikerlan lotzen duena…) Alecoopera egin eta Garagartzarekin lotzeko egin beharrekoa. Eta falta den beste zati bat da Etxaluze atzetik (San Josepe) pasatzeko bidea eta hura lotzea Fagorretik datorrenarekin."

> ODOL EMAILEAK

### Odola emateko deia, datorren astean anbulatorioan

Datorren martitzenean (irailak 21) hasi eta egubakoitzera arte odol ateratzeak egingo dituzte Arabako odol bankukoek Arrasateko anbulatorioan, 16:30etik 20:00ak arte. Irailaren azken astean, berriz, hilaren 28an, 29an eta 30ean atzera ere etorriko dira, ordu eta leku berera.

> ERLIJIOA

### Katekesirako izenematea datorren astean izango da

Arrasateko parrokiak iragarri du martitzen eta eguaztenean (irailaren 21ean eta 22an) eman ahal dela izena katekesirako (2004an jaiotakoak). Lau lekutan eman daiteke: San Juan parrokian, San Andresko parrokiaren lokaletan, Uribarriko abadetxean edo San Isidron, 18:00etatik 19:00etara.

> SUKALDARITZA

### Sukaldaritza naturala lantzeko ikastarorako izenematea zabalik

Zortzi modulutan banatuta, "sukaldaritza energetiko eta naturala" lantzeko ikastaroa aurkeztu du Econat elkarteak. Asteburuetan dira eskolak, hilean behin (urriaren 23an eta 24an hasita). Izenematea zabaldu dute dagoeneko: 695 78 00 58 (Jesus Romero).







NAHI BADUZU, AEK-rekin AHAL DUZU!

- EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI
- ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.
- MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
- 1. MAILA 2 egun astean
- 2. MAILA 2 egun astean
- 3. MAILA / EGA 2 egun astean
- 4. MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua + tutoretzak
- AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + 45 minutu tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

ikasi euskara
eman izena aek-n
www.aek.org

AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK

MATRIKULA ZABALIK irailaren 30era arte
MATRIKULATZEKO ORDUA:
11:00etatik 13:00etara
18:00etatik 20:00etara

BEKAK
Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

ERDU AEK
Garibai etorbidea 14, 3 ARRASATE
943 77 03 69 arrasate@aek.org



Itxaronaldi luzearen ostean, Etxaluze eraikina domekan zabaltzeko asmoa du Udalak. JOKIN BEREZIARTUA

**ZERBITZUAK** > ETXALUZE ERAIKINA

# Abaroa berria etzi, irailak 19, irekitzeko asmoa du Udalak

Asteleheneko osokoan onartu zenez, Agurtzane Urizar arrasatearra arduratuko da tabernaz

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

"Tabernako arduradunak eta udalbatzak adostu dutenez, irailaren 19an zabaltzea da asmoa". Iñigo Garitano Gizarte Ongizate teknikariburuaren hitzak dira, Etxaluze eraikinaren gainean berbetan. Beraz, datorren astean zabalik beharko luke Etxaluzek, herriko erretiratuen eta San Andresko auzotarren beharrak aseko dituen eraikinak. Etxaluze San Juan egunean inauguratu zuten, baina azken egokitzapenak egin eta tabernako arduraduna zehaztu arte ez da erabilgarri egon.

Taberna ustiatzeko eskubidea lehiaketa publikora deitu zenean, Udalak bederatzi proposamen jaso zituen. Eta zerbitzua esleitzeko lau irizpide hartu ditu aintzat Udalak: gaitasun profesionala, euskararen ezagutza, giza egoera eta Arrasaten bizi izatea. Gaitasun profesionala neurtzeko proba praktikoa egin zuten joan den ekainaren 15ean Gasteizko Gamarra ostalaritza eskolan. Hala, Agurtzane Urizar aukeratu du Udalak; astelehenean egindako osokoan aho batez onartu zen.

**BOST URTE GEHIENEZ**

Kontzesio administratiboan utzi diote tabernaren ardura Urizarri. Bost urte egongo da gehienez eta Abaroako zuzendaritzarekin adostu artean, honakoa izango da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:30era. Aste bukaeretan: 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

**ZERBITZUAK** > MUSAKOLAKO KIROLDEGIA

# Instalazioak erreserbatzeko epea zabalik hilaren 22ra arte

Abendura arteko erreserba finkoetarako izango da

**J.B. / U.M.** > ARRASATE

Musakolako kiroldegiko kirol instalazioak erreserbatzeko epea zabalik dagoela jakinarazi du Aukea kirol erakundeak. Abendura arteko erreserba finkoak egiteko epea dago zabalik, hain zuzen. Erreserbok egiteko eskaera epea datorren eguaztenean, irailaren 22an, bukatuko da. Kiroldegiko frontoiak, tenis, padel eta squash kantxak eta areto futbol eta futbol zelaiak erabili gura dituztenek egin beharko dituzte erreserba horiek.

**ESKAERA ORRIA BULEGOETAN**

Hain justu, urriari, azaroari eta abenduari dagozkion erreserbak dira datorren eguaztena baino lehen egin beharrekoak. Eskaera orriak Aukearen bulegoetan entregatu behar dira; hala jakinarazi du Aukeak.

**OSASUNA** > TXERTOAK

# Astelehenean hasiko dira gripearen kontrako txertoa ipintzen, urriaren 31ra arte

Anbulatorioan eta bost auzotan ipiniko dituzte txertoak eta etxean dauden ezinduek etxean hartu ahalko dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Udaren amaierarekin bat abiarazi ohi du Osakidetzak gripearen aurkako txertaketa kanpaina, eta aurten ere hala egingo dute.

Arrasateko Lehen Mailako Atentzioko ordezkariek jakinarazi dute astelehenean, irailaren 20an, hasi eta urriaren 31ra arte hartu ahal izango direla txertoak Arrasaten.

**ADINDUAK ETA GAIXOAK**

Honako ezaugarriak dituzten bizilagunei gomendatzen die Osakidetzak txertoa jartzea: 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoei: bihotzeko, biriketako edo giltzurruneko gaixotasunak, adibidez, edo diabetea dutenei.

**ANBULATORIOAN ETA AUZOETAN**

Txertoa anbulatorioan bertan har daiteke, astelehenetik egubakoitzera bitartean, aldez aurretik txanda hartuta.

Edo bestela, Arrasateko bost auzo nagusietan ere hartu ahal izango da: San Andresko alkatetzan, Abaroan, Uribarrin, Santa Marinan eta Musakolan. Auzoen kasuan, 12:00etatik 13:00etara joan beharra dago.

Horrez gainera, etxetik atera ezinda daudenek txertoa etxean har dezakete, mediku edo erizainari abisatuta.

## Auzoetako hitzorduak

**23, eguena**
San Andresko alkatetzan.

**24, egubakoitza**
Abaroan.

**27, astelehena**
Uribarriko zaharren egoitzan.

**28, martitzena**
Santa Marinako egoitzan.

**29, eguaztena**
Musakolako zaharren egoitzan.






**bere ustez**



Aitor Izagirre

## Bergarako TAO sistema, txalogarria

Lan kontuengatik, azken bi urteetan egunero Arrasatetik Bergararako bidea egiten dut goizero, eta herriko erdialdean aparkatzen dut beti. Aspaldion, oso zaila da edonon aparkalekua topatzea, ez bakarrik Bergaran. Edozein herri eta hiriburutan arazo bilakatu da. Arrazoi ezberdinengatik gero eta auto gehiago topatzen dira alde guztietan. Hala, Bergarako Udalak TAO sistema ezartzea erabaki du erdigunean, baldintza nahiko zorrotzekin, eta egunotan ezarriko da. Azken asteotan, lagun artean komentatzen da, tabernetan, askok dute gaia ahoan. Eta orokorrean aurkako iritziak entzun ditut nik.

**"Erabakiak hartu beharko ditugu, gure mugikortasun eredua ez da-eta sostengarria"**

Niri neurria txalogarria iruditzen zait. Apurka-apurka guztiok hartu beharko ditugu erabakiak, gaur egungo mugikortasun eredua argi dagoeta ez dela sostengarria. Ez da batere samurra honelako neurriak hartzen lehena izatea eta ez da batere gozoa, honelako aldaketen aurrean herritar asko izaten direlako aurka. Baina guztiok egin beharko ditugu egunerokotasunean esfortzu ezberdinak, esaterako, auto kopurua murriztea, autoaren erabilera gutxitzea, edo garraio publikoaren aldeko benetako apustua egitea. Aldaketa lortzen badugu, denok irabaziko dugu.

**Unai Aranburu** > Arrasate Kanpanzar taldeko kapitaina

# "Durangokoekin entrenatzeak taldea osatzeaz gain esperientzia emango digu, eta hori ondo dago"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**12 urte inguru daramatza Unai Aranburuk (Arrasate, 1984) errugbian jokatzen, eta, Ander Herizen lesioaren ostean, iaztik da Arrasate Kanpanzar taldeko kapitaina. Mojategin harrapatu dugu, entrenamendu saioaren aurretik, eta irailelo azken aste bukaeran hasiko duten berritasunez jositako denboraldiaz egin dugu berba. Denboraldi-aurrean egindako lanaz "oso pozik" dago.**



Unai Aranburu, asteon egindako entrenamendu saioan, Mojategin. JOKIN BEREZIARTUA

**Nola baloratzen duzu Durangorekin sinatutako hitzarmena?**

Proiektu polita da. Durangok jokalari askotxo ditu eta oso ondo etorriko zaigu jende aldetik hobeto ibiltzeko. Bi talde egitea da asmoa: Durango Ohorezko B mailan eta Arrasate Euskadiko ligan. Bi talde egiteak jokalarien arteko trukea ahalbidetuko du. Arrasaten ondo dabilenak Durangorako jauzia egin dezake, eta, alderantziz, Durangok jokalari berriekin hornituko du Arrasate.

Horrez gain, Durangok urte askotxo daramatza maila altuagoan eta eurekin entrenatzeak esperientzia emango digu jokalari moduan, asko irakatsi diezagukete. Hori ondo dago.

**Beraz, jokalari gutxi izatearen mamua utxatzea lortuko duzue aurten?**

Durangoren harrobia izango gara, baina, esandako moduan, Arrasateko taldera ere etorriko dira hango jokalariak. Jende gutxi izatea aspaldiko arazoa da; denboraldi hasieran izaten da jendea, baina, lesioak eta beste arrazoi batzuk direla eta, larri ibili ohi gara liga amaieran.

**Harrobi edo errelebo falta izan daiteke, agian?**

Oso jende gutxi dago, egia esan. Badaude jokalariak, baina oso gutxi. Gainera, iaz seniorretan zeuden hiru jokalari gazte mailara jaitsiko dira, gazte mailako egonaldia urtebetez luzatu dute-eta.

**"Jende gutxi izatea aspaldiko arazoa da, denboraldi amaieran larri ibili ohi gara"**

**Iraileko azken astean hasiko da Arrasate Kanpanzar ligan. Nola doa denboraldi-aurrea?**

Oso ondo. Abuztuaren 30ean hasi ginen, eta bi partidu jokatu ditugu, Elorrion eta Getxon. Ez dugu elkar oso ondo ezagutzen, denbora laburra daramagu elkarrekin; bi partidu horiek eta entrenamendu bakarra egin ditugu elkarrekin. Hala ere, nahiko ondo moldatu gara, eta bi norgehiagokak irabazi egin ditugu. Denboraldi-aurrean taldeak erakutsi duen itxurarekin oso pozik nago.

**Fisikoki nola dago taldea?**

Fisikoki ere oso ondo ikusi dut taldea. Hori bai, badago zer hobetu, normala denez.

**Zehaztu dituzue 2010-2011 denboraldirako helburuak?**

Euskadiko ligan espero dugu goiko postuetan ibiltzea. Durangoko jokalariekin eta etxekoekin ea zerbait polita egiten dugun.

**Zerbait gaineratu nahi?**

Neska-mutikoak gonbidatu gura nituzke errugbia ezagutzera.

**MENDIA**

## Besaide eguna izango da domekan

Azken urtean mendian hildakoen oroimenezko meza 11:00etan izango da

J.B. > ARRASATE

Aurten ere Besaide egunak ez du hutsik egingo; domekan izango da, hilak 19. Egun berezia antolatzeko txandakatze sistema erabiltzen dute Arrasate, Aramaio eta Elorrioko mendizale taldeek. Aurten Aramaioko Orixol mendizale taldeak antolatuko du. Egitaraua urterokoa izango da: mendizaleek 11:00etarako dute hitzordua, Besaiden. Ordu horretan hasiko da azken urtean hildako mendizaleen oroimenezko meza. Meza ostean txalapartariak, trikitilariak, bertsolariak eta dantzariak izango dira. Eta azkenik, lore eskaintza egingo dute.

**IRTEERA IRAILAREN 26AN**

Bestalde, mendi irteera antolatu du Besaide mendizale elkarteak datorren irailaren 26rako. Egun osorako irteera izango da, Ordunte mendikatera; 07:30ean irtengo dira, Garibaitik. Izena eman gura duenak datorren astean izango du aukera, hilaren 20an, 21ean eta 22an –19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan.




PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

2010–2011 ikasturtea

NOIZ: Astelehenetan (urritik ekainera)
ORDUTEGIA: 1. maila ...... 18:30 - 20:00
2. maila ...... 20:00 - 21:30
NON: AED (Pablo Uranga 4 - Arrasate)
HASIERA: Urriak 4
IZENA EMATEA: AED (943 77 12 28)
aed@aedelkartea.com
Epea: Urriak 1

Antolatzailea PORTALOI taldea Herri kantu eta dantza
Laguntzailea aed arrasate euskaldun dezagun

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

KIMETZ taberna
Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak
943 10 97 30
Maalako Errebala 15. ARRASATE

JAIALDIA

# Jai berezia, lagunarte berezia aurkezteko

St. Pauli klubaren aldeko 'Beste bat!' taldeak kontzertuak antolatu ditu biharko

**J.B.** > ARRASATE

Alemaniako lehen mailan –Bundesliga– lehiatzen ari den futbol talde baten lagunartea aurkeztuko dute bihar gaztetxean. *Beste bat!* izena hartu dute, lagunarteko kideek diotenez, "beste gol bat, beste kantu bat, beste garagardo bat..." aldarrikatzeko. St. Pauli klubak sortzen dien zirraragatik elkartu dira, klub ezberdina delako. Bizitza eredu alternatibo baten inguruan sortutako kluba, hain zuzen.

Taldeko kide batzuek ezagutzen dute Millerntor estadioan izaten den giroa; beste batzuek, ordea, ez. Hala, asmoa da urtean behin Hanburgora joan eta partidu bat bertatik bertara jarraitzea.

**ARRASATE ETA BERLIN**

Taldea ezagutzera emateko jaia bihar egingo dute, 22:30ean hasita. Punk-rocka izango da nagusi: Arrasateko Dirty Brothers eta AMD taldeak eta Pascal Briggs musikari alemaniarrak zuzentzen duen Berlingo District taldea izango dira agertokian. Sarrera hiru euro izango da.



Eserlekuan lasai-lasai gozatzeko proposamen ezin egokiagoa izango da Maderitaren zuzenekoa; bihar, 20:00etan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > 'KULTURATE AKUSTIKOAK'

# Umbert eta Maderita, akustikoak amaitzeko

Gaur Nacho Umbert-en pop-folka izango da eta bihar Maderita: meditaziorako musika

Kulturateko areto nagusian izango dira bi emanaldiak; 20:00etan hasita eta musu truk

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Aulkiaren erosotasunean zuzeneko doinu akustikoez gozatzeko azken aukera izango da gaur eta bihar, *Kulturate akustikoak* ekimenaren azken aste bukaeran.

Gaur Nacho Umbert izango da Kulturateko areto nagusian eta bihar, berriz, La Maderita taldea osatzen duen laukote valentziarrak agurtuko du ekimenaren bigarren edizioa. Bi emanaldiak 20:00etan hasiko dira eta sarrera doakoa izango da.

**UMBERT-EN SINPLETASUNA...**

Urtetako isiltasunaren ostean agertoki gainean da berriz Nacho Umbert. Eta berpizte horren lekuko izango da gaur Kulturate. Ez da ohiko taldearekin agertuko; bi lagun bakarrik izango ditu ondoan, akordeoi eta txirularekin. Bi instrumentuon eta Umbert-en gitarra eta ahotsaren arteko fusioaren emaitza izango da emanaldia, beraz. Ez du-eta askoz gehiagorik behar: sinplea, samurra da Umbert-en musika, baina aldi berean polita, entretenigarria eta ikus-entzulea harrapatzen duena. Eguneroko istorioak kantatuko ditu, ondo landutako ahotsarekin.

*Ay!* izeneko disko berriarekin dator musikari kataluniarra; diskoa asko gustatu zaio antolakuntzari, Udaleko Kultura Sailari. Finean, diskoa gustatu zaielako dator gurera.

**...ETA MADERITAREN GERTUTASUNA**

Bihar, bestalde, Maderita izango da agertokian, Julio Bustamante artistaren gidaritzapean. 60 urte betetzear, idazle, musikari eta margolaria da, bizitza osoa eman du arteari lotuta. Maderita taldea Bustamantek Ciudadano taldearekin topo egin zuenean sortu zen: gitarrek eta hitzek hartzen dute pisua, gogo biziz abestuta. Kaleko musika da, edozein txokotan eseri eta ikusleak ezin gertuago gozatzekoa. On egin!

EKIMENA

## Orain arte, espero baino jende gehiago

*Kulturate akustikoak*-ek bi aste bukaera hartuko ditu. Aurrenekoan Audience eta Boat Beam izan ziren Kulturaten, eta, Udaleko Kultura Sailaren ustez, "espero baino erantzun jendetsuagoa" izan zuten bi saioek. Audience-kin sorpresa gutxi, talde ezaguna delako eta gurean lehenengoz jotzen zutelako. Hainbat disko eta kamiseta saldu zituzten.

Baina Boat Beam-ekin, talde ezezaguna izanda, harritu egin dira antolatzaileak: aretoa ia beteta eta, jende gazteaz gain, 60 urteko jendea gustura. Ekimenaren helburua da gurean ohikoak ez diren proposamenak ezagutaraztea. Bada, berria denaren kuriositatea asetzea doakoa denean, arrakasta bermatuta dago.




UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE




ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**JENDARTEA** > UDALA

# Astelehenean abiaraziko dute doako eta denbora mugatuko TAO zerbitzua

Beheko lerrootan, zerbitzuaren erabilerari buruzko informazioa laburtu dugu


Gertek enpresako langilea Oxirondo plazan tiket-makina jartzen. M.B.

### Doakoa izango da?

Bai. Horren aldeko apustua egin du Udal Gobernuak. Urtean 86.000 euro inguruko gastua izango da Udalarendako, baina "kostu hori asumigarria" dela uste du.

### Zein kaletan jarriko da?

Lau gunetan egongo da:

1. gunea: Oxirondo plaza.
2. gunea: San Martin plaza.
3. gunea: Ibargaraiko parking publikoa.
4. gunea: Ibargarai (1etik 14ra), Zurradero, Telesforo Aranzadi, Joan XXIII.a plaza, Fraiskozuri, Irizar eta Herri Lagunak.

### Ze irizpide erabili da kaleok aukeratzeko?

Zerbitzuaren helburua da erdigunean autoen txandakatzea egotea. Hortaz, erdiguneko kaleak hartu dira aintzat. Proposamena egin duen enpresak –Gertek– aztertu du erdigunean zenbat auto dauden erroldatuta, zenbat garaje dagoen, zenbat biztanle, zenbat aparkaleku plaza... eta ondorioztatu du esandako kaleetan dagoen aparkaleku kopurua –326– nahikoa dela txandatzea lortzeko.

Bestalde, badira erdigunean hainbat kale, Kruz Gallastegi eta Masterreka, esaterako, baina horiek ez dira gune urdinaren barruan sartu. Horren arrazoia da komenigarria dela kale batzuk aparkaleku librearekin lagatzea, betiere, ondoan aparkatzeko gune handiagoa dutela kontuan izanda (Bideberri).

### Ze ordutegi izango du?

Gune guztiek ordutegi bera izango dute: astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:30-20:00; eta zapatuetan, 09:00-13:30. Salbuespena: San Martin plazan zapatu goizean ez da TAOrik egongo; izan ere, plaza itxita egongo da, gaur egun egoten den moduan.

Gainerako orduetan, hau da, eguerdian eta gauez, ez da TAOrik egongo; inon ez.

### Denbora mugatua izango da?

Bai. 1. eta 3. guneetan –Oxirondo plaza eta Ibargaraiko parking publikoa– aparkatu ahal izango da, gehienez, hiru orduz.

2. gunean –San Martin plaza– aparkatu ahal izango da gehienez 30 minutuz; eta 4. gunean –erdiguneko kaleak– aparkatu ahal izango da, gehienez, 90 minutuz.

### Aparkatze-aldia igaro eta gero, aparkatu ahal izango da leku berean?

Ez. Guneari dagokion denbora igaro eta gero, autoa lekuz aldatu beharko da. Ezingo da beste txartelik atera makinatik –makina programatuta dago horretarako–, eta ondorioz, ezingo da aparkatu ez leku berean, ez gune berean, ezta gainerako beste guneetan ere, hurrengo hiru orduetan.

Salbuespen bakarra San Martin plaza izango da. Han aparkatu eta gero, ezingo da gune horretan hurrengo hiru orduetan aparkatu, baina bai beste hiru guneetako baten.

### Nola atera behar da tiketa?

Bederatzi makina egongo dira. Eguzki plaken bidez funtzionatuko dute eta bederatziak GPRS bidez konektatuta egongo dira; hortaz, makinetako batean sartutako datuak gainerako guztiek ere izango dituzte.

Tiketa eskuratzeko autoaren matrikula sartu beharko da eta makinak guneari dagokion denborako tiketa aterako du. Matrikula da aintzat hartuko dena beti. Tiket hori autoan jarriko du erabiltzaileak, ondo ikusteko moduan.

### Isunak jarriko dira?

Bai, jarriko dira. Gertek enpresako langile batek egingo ditu zaintza lanak eta isunak ere hark jarriko ditu.

Gune urdineko arau-hausteek arin izaera dute, eta, ondorioz, 20 euroko isuna, Udaleko ordenantzaren arabera. Hala ere, 20 egunen barruan ordainduz gero, 10 eurotan geratzen da. Isuna tiketmakinetan ordaintzeko aukera egongo da.

### Bertakoendako txartela nork eskura dezake?

Oinezkoendako kaleetako zein epe ertainean oinezkoendako bihurtuko diren kaleetako bizilagunek. Era berean, txartel hori eskuratzeko aukera dute TAO gunean dauden kaleetako bizilagunek.

Kale horiek guztiak dira: San Pedro, Mizpildi, Goenkalea, Artekalea, Komenio, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ibargarai 1etik 14ra, Zurradero, Irizar, Irala, Joan XXIII.a plaza, Herri Lagunak, Fraiskozuri eta Simon Arrieta, hain justu ere.

### Ze baldintza bete behar da txartel hori eskuratzeko?

Ezinbesteko baldintzak dira ibilgailua erroldatuta egotea aurreko galderan erantzundako kaleetako baten –zirkulazio baimenean dakar hori–, eta ibilgailuaren jabea ere helbide berean erroldatuta egotea.

### Nola erabili behar da?

Txartel hori duten ibilgailuek ez dute aparkatzeko denbora mugarik izango 1. eta 4. guneetan. Aldiz, Ibargaraiko parkingean eta San Martin plazan gainontzeko erabiltzaileentzat ezarritakoa bete beharko dute.

### Non eskura daiteke txartela?

Udaletxean. Datorren astean egokituko dute udaletxeko sarreran leihatila bat tramitazio hori egiteko.

Txartela egiteko eroan behar da ibilgailuaren zirkulazio baimena –originala eta fotokopia– eta han emandako eskaera orria ere bete beharko da.

### Non alda daiteke autoaren errolda?

Trafikon egin behar da eskaria, eta horretarako Donostiara joan beharra dago. Aldaketa egiteko ezinbestekoa da jabearen udal errolda agiria eramatea.

### Minusbaliatuendako lekuak TAO barruan sartuko dira?

Ez. Izaera berezia izango dute, orain arte bezala.

ARKUPE
AHOLKULARITZA
Ondo ibili San Martinetan!
Fiskalitatea
Kontabilitatea
Laborala
Inbertsioen aholkularia
BERGARA
Labegaraieta industrialdea
Telleria, 6 bis, 2. bulegoa
ARRASATE
Garibai etorbidea 4
Tel.: 943 76 26 09 / 943 79 94 72
Faxa: 943 76 38 53
arkupe@arkupe.net - www.arkupe.net

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918


IRAILAK 25
III. IKASTOLA EGUNA
jokoak
puzgarriak
Aranzadizalea bazara...
ARANZADI
ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa
ibilaldia
txorizo eta salda
bazkaria
...zatoz gurekin ondo pasatzera!!!
erromeria
Irailak 25: III. IKASTOLA EGUNA Aranzadin
Urriak 3: Kilometroak Pasaia-Lezon
Urriak 17: Nafarroa Oinez Atarrabian
Bazkarirako izen ematea: Aranzadi Ikastolan irailaren 13tik 22 arte
San Martin Plaza 4 • 20570 BERGARA
Tel. 943 76 90 71 • bergara@ikastola.net • www.aranzadiikastola.org

**JENDARTEA** > AZOKA

# Orhipean parke tematikoa gaur hasi eta domekara arte

## Erdiguneko kaleetan azoka, hitzaldiak eta ikuskizunak egongo dira, besteak beste

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Gaur hasi eta domekara arte Orhipean parke tematikoa izango da herrian. Antolatzaileek –Txoriak Txori egitasmoa eta Nabarralde– diote, "euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna babestea, garatzea eta bultzatzea" dela parkearen ildo nagusia; "euskal kultura plazaratuko" duen ekimena, azken batean. Ekimen hori herrira ekartzeko arrazoia da "herritarrenako aberasgarri" jo dutela Udal arduradunek, Enara Minguez kultura zinegotziaren esanetan.

Askotariko ekitaldiak egongo dira ekimen horren baitan; familia osoarendako ekitaldiak, erdiguneko kaleetan barrena: azoka –artisautza eta elikagaiekin–; Pottoka Gunea, zaldikomaldiko, asto karabana, ludoteka eta ipuinekin; eta Historia Gunea, memoria historikoaren zein Euskal Herriko historiaren gaineko hainbat ikus-entzunezkorekin.

### Parke tematikoaren egitaraua

**Irailak 17, egubakoitza**
**17:00** Azoka. Artisautza eta elikagaiak.
**19:30** Mahai-ingurua. *Euskal Herria, Euskadi, Nafar Estatua eta Baskonia kontzeptuak.* Hizlariak Angel Rekalde, Koldo Martinez eta Beñi Agirre.
**20:30** Ikuskizuna. *Agur Everest: 30 urte gailurrean*".

**Irailak 18, zapatua**
**10:00** Azoka. Artisautza eta elikagaiak.
**10:30** Mahai-ingurua. *Ezina ekinaren ekinez eginda.* Hizlariak Mikel Berhokoirigoik eta Dominik Agergarai.
**12:00** Musika emanaldia. Jean Bordaxar laukotea.
**13:30** Ekitaldi nagusia. *Orhiko xoria, orhin laket.* Antzezleak: Marifeli Etxeandia eta Josu Kamara.
**16:00** Literatura eskola. *Eskuen sustraiak.*
**20:00** Dokumentala. *Sagarren denbora.*

**Irailak 19, domeka**
**10:00** Azoka.
**12:00** Multimedia. *Euskal Herriko ekonomiaren eta gizartearen atlasa.*
**17:00** Antzerkia. Kukubiltxoren *Txikirriz.*



Alkartu-nai anbulantzia eta guzti etorri zen. ENEKO AZKARATE


Aurten sukaldariak ere izan dira. E.A.

**JAIAK** > SAN MARTINAK

# Jose Luis Elkororen alde egin zuten danbor hotsek

**M.B.** > BERGARA

Topikotan erortzeko arriskuarekin, San Martin jaietan giro aparta egon da.

Danborradari dagokionez, Alkartu-nai herri mugimenduko garaiak gogora ekarriz, Jose Luis Elkoro omendu zuten. Hain justu, Alkartu-naik Bergarara lehen anbulantzia ekarri zuela gogoratu zuten, Elkoro herri mugimenduko buru zela. Sokamuturra ere egon zen atzo, eguena, eta gazte batek buruan hartutako kolpeaz gain, guztia ederto joan zen. Baita atzo eguerdian Musika Bandak plazan egindako kontzertua.


Sokamuturraren une bat. JULEN IRIONDO

## oharrak

ZOZKETA

**> Bergarako Realzaleak taldeak eskerrak eman nahi ditu**

Autoaren zozketa antolatzen laguntza emandako kolaboratzaile guztiei eman nahi dizkiete eskerrak.

IKASTAROAK

**> Yoga eta eskulan ikastaroak egiteko aukera San Joxepen**

Yoga ikastaroa hasiko da hilaren 20an eta eskolak izango dira astelehen eta eguaztenetan, 10:00-11:30 ordutegian. Eskulan ikastaroa hilaren 21ean hasiko da eta eskolak izango ira martitzenetan, 15:30-18:30 ordutegian.

HEZKUNTZA

**> Irailaren 25ean ospatuko du Aranzadik 3. Ikastola eguna**

Jokoak, puzgarriak, ibilaldia eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Bazkarirako izenematea da hilaren 22ra arte, ikastolan.

ERLIJIOA

**> San Pedro eta Santa Marinako katekesirako izenematea, zabalik**

Irailaren 20an, 21ean eta 22an izango da izenematea, 17:00-18:00 ordutegian, Komenio kalean.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04
• Proiektuak
• Koltxoiak
• Horma-armairuak
• Altzariak neurrira
• Ateak
• Eskailerak
• Leihoak
• Tarimak
• Egur lanak orokorrean





**JENDARTEA** > ERREILENO ETA TOSTOIEN KOFRADIA

# "Ohorezko kofradekide izendatzeak ilusio galanta eman digu; gurea da ohorea"

## Domekan egingo dute Erreileno eta Tostoien Kofradiaren 11. kapitulua, 12:15ean hasita

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

GOIENKARIA domekan ohorezko kofradekide izendatuko dituzten bergarararrekin izan da, izendapena zelan hartu duten galdetzen, eta euretako askorekin atzera ere egin dugu, lehengo sasoiak gogoratzen. Hain zuzen, Txintxurreta anai-arrebekin egin dugu atzera, ostalaritzan lanean urteak egin dituztenekin. Hala, Felisa Txintxurretak (Gorlako lehengo kantina), Antxoni Txintxurretak (Antxoni jatetxea), Euxebio Txintxurretak (Euxebio taberna) eta Florita Txintxurretak (Mekolalde taberna) adierazi digute ilusio handiz hartuko dutela domekan bergarararrek egindako errekonozimendu hori: "Oso hunkituta gaude anai-arreba guztiok, ohorea da guretako horrelako izendapen bat jasotzea.

**IZENDAPEN GEHIAGO**

Ez dira izendapen bakarrak izango, dagoeneko 100 urte badituen Galarreta zapata dendakoak ere pozik daude izendapenarekin, eta baita Musika Eskolakoak ere.

Jokin Etxanizek ere izendapena jasoko du: "Egia da horrelako ekitaldietan deseroso egoten naizela, baina herritarrek norberaren lana errekonozitzea gauza oso polita da".



**> GORLAKO KANTINAN** Felisa Txintxurreta eta Txomin Lete, 80ko hamarkadan egindako argazkian. Goian, berriz, kantina elurtuta, 1974an: "1971n zabaldu genuen kantina, eta urte batzuetara obrak egin genituen kantina handitzeko. Zenbat aldiz egin ziguten lapurretan!".

**> REALEKOEKIN** Antxoni Txintxurreta, Realeko ordezkari Arkonadarekin eta Toshackekin, 1983an Antxoni jatetxera egin zieten bisitan: "Urte haietan Realekoak urtero birritan-edo etortzen ziren gurera bazkaltzera". 2001ean itxi zuten jatetxea.





**> MEKOLALDE TABERNAN** Antxoni ahizparekin jardun eta gero, 1984an Mekolalde taberna zabaldu zuen Florita Txintxurretak. Hain justu, goiko irudia irekiera urtekoa da eta haren senarra zen Javier Laskurainekin dago. Iaz itxi zuen Floritak Mekolalde taberna.

**> EUXEBIO TABERNAN** Aldizkari baterako ateratako erretratua da hau, 1976an. Euxebio, Arantza emaztea eta tabernako langileak "argazkirako animatu ziren bi bezerorekin". 1970ean zabaldu zuten eta 1988an hura utzi eta 1989an Ganbara zabaldu zuten, 1994ra arte. Gero, Euxebio II.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

> DEIALDIA
### Euskara olinpiada egingo dute Ulmako langileek gaur

Ulmako langileek laugarren euskara olinpiada egingo dute gaur plazako pilotalekuan, 16:30ean. Sokatira, euskaraokea, taula-jokoa, lokotx bilketa, mihiluze, bakailao lehiaketa eta mus txapelketa egingo dituzte eta Ulma taldeko negozio ezberdinetako langileek parte hartuko dute.

> DEIALDIA
### Trikitilarien festa egingo dute bihar Kale Zaharrean

Lizargarate trikitilari taldeak antolatuta erromeria egingo dute bihar arratsaldean Kale Zaharreko plazatxoan. Bi zatitan banatuko dute: 19:00etatik 21:30era Laja eta Narbaitza bikoteak girotuko ditu kaleak. Eta 23:30etik aurrera Izer eta Alabierrek egingo dute erromeria.

## oharrak

DEIALDIA
**> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute**

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxako 30350005340051042653 kontu zenbakian.

DEIALDIA
**> Hitzaldia egingo dute eguztenean**

Brais Varela abokatu eta Gurutze Gorriko boluntarioak *Los jóvenes en prisión* delako hitzaldia egingo du kultura etxean, 18:30ean.

BIRZIKLAPENA
**> Etxeko olioa batuko dute irailaren 25ean**

Etxean batutako olioa birziklatzeko furgoneta plazako aparkalekuan egongo da hilaren 25ean, 09:00etatik 13:00etara, etxeko olio erabilia batzeko.



Alejandro Naya, Arantza Tapia eta Lourdes Idoiaga, Pesako autobusaren kanpoaldean. MIREIA BIKUÑA

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Oñati eta Zumarraga lotzeko 30 autobus gehiago jarriko dituzte

Arrasate-Oñati-Zumarraga linearen joaneko eta itzulerako autobusak urriaren 1ean hasiko dira zerbitzua ematen, astelehenetik domekara arte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

"Agintaldiko egunik garrantzitsuena da gaurkoa. Oñatitik Zumarragara joan ahal izateko 30 autobus berri gehiago edukiko ditugu oñatiarrok urriaren 1etik aurrera, egun dagoen zirkularraren osagarri moduan". Horixe adierazi zuen Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak atzo. Zerbitzu berriaren gaineko informazioa emateko prentsaurrekoan egon ziren Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Arantza Tapia eta Pesako arduradun Alejandro Naya.

Guztira, 30 autobus gehiagok egingo dute Zumarragako joanetorria (ikus ondoko taula): 11 autobus ibiliko dira astelehenetik egubakoitzera; hamar zapatuetan; eta bederatzi domeketan eta jaiegunetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentuak 140.000 euro jarri ditu linea berriak martxan ipintzeko.

**LANGILEAK, IKASLEAK...**

Arrasate-Oñati-Zumarraga linearen joaneko eta itzulerako zerbitzuekin bete gura duten helburua da Debagoiena eta Goierri artean dauden loturak hobetzea eta bidaien maiztasuna handitzea. "Oñatira pertsona asko datoz lanera Zumarraga eta Legazpi aldetik. Eta alderantziz, geroz eta oñatiar gehiago doaz lanera Goierri aldera. Bestalde, ikasle asko datoz Enpresagintza fakultatera. Autobus gehiagorekin aukera handiagoa izango dute ongien datozkien autobusa hartzeko. Gainera, Donostiara trenez joan gura dutenek ordutegi eskaintza handiagoa izango dute autobusa hartzeko", esan zuen alkateak.

Bestalde, linea berriari esker bidaiariek errazago egingo dituzte Arrasatetik irtenda Gasteizekin eta Donostiarekin lotzen dituzten autobus aldaketak. "Aldaketa horrekin, Arrasateko itxarote denbora bost eta hamar minutu artekoa izango da. Baina zerbitzuen arteko loturak ziurtatuta egongo dira", esan zuen Idoiagak.

**19 MILIOI ERABILTZAILE**

Tapia diputatuak emandako datuen arabera, 2009ko irailetik 2010eko abuztura 19 milioi bidaiarik erabili zuten Lurraldebus. Hori horrela, erabiltzaileen kopurua %5,73 hazi da. "2010ean hiru linea berri abiarazi ditugu. Horrek erakusten du krisi egoeran Foru Aldundiak apustu estrategikoa egin duela herri arteko bidaiarien garraioa indartzeko eta hobetzeko, Lurraldebusen integratutako enpresen bitartez", esan zuen Tapiak.

**INTERNET BIDEZ**

Idoiagak eta Tapiak Lurraldebus erabiltzera animatu zituzten herritarrak, eta diputatuak gaineratu zuen 2010a bukatu aurretik txartelak Internet bidez kargatu ahalko direla. "Irakurgailua duten taxietan txartelarekin ordaindu ahalko da, eta autobus aldaketak doakoak izango dira 30 minutuko tartean egiten badira", esan zuten.

### Ordutegi berriak Oñatiko geltokian

**ARRASATE - OÑATI -ZUMARRAGA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehenetik egubakoitzera** | | |
| > 06:25 | > 12:00 | > 18:00 |
| > 08:00 | > 14:00 | > 20:00 |
| > 09:00 | > 15:00 | > 21:00 |
| > 11:00 | > 17:00 | |
| **Zapatuak** | | |
| > 08:00 | > 14:00 | > 20:00 |
| > 09:00 | > 15:00 | > 21:00 |
| > 11:00 | > 17:00 | |
| > 12:00 | > 18:00 | |
| **Domekak eta jaiegunak** | | |
| > 09:00 | > 14:00 | > 18:00 |
| > 11:00 | > 15:00 | > 20:00 |
| > 12:00 | > 17:00 | > 21:00 |

**ZUMARRAGA - OÑATI -ARRASATE**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehenetik egubakoitzera** | | |
| > 06:55 | > 12:55 | > 18:55 |
| > 08:55 | > 14:55 | > 20:55 |
| > 09:55 | > 15:55 | > 21:55 |
| > 11:55 | > 17:55 | |
| **Zapatuak** | | |
| > 08:55 | > 14:55 | > 20:55 |
| > 09:55 | > 15:55 | > 21:55 |
| > 11:55 | > 17:55 | |
| > 12:55 | > 18:55 | |
| **Domekak eta jaiegunak** | | |
| > 09:55 | > 14:55 | > 18:55 |
| > 11:55 | > 15:55 | > 20:55 |
| > 12:55 | > 17:55 | > 21:55 |

ESANAK

**"Ikasleek, langileek... ordutegi malguagoa izango dute Zumarragara joateko"**

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

**"Aldundiak apustua egin du herri arteko bidaiarien arteko garraioa indartzeko"**

**Arantza Tapia** > Diputatuta



JENDARTEA > JAIAK

# Haur Dantzarien Egunak 40. aldia beteko du etzi, domeka

450 bat neska-mutikok girotuko dituzte herriko kaleak; 17:00etan, talde guztiek erakustaldia egingo dute plazan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Herriko dantzariek egun handia bizi izango dute domekan. Izan ere, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute; etzikoa, gainera, 40. edizioa izango da. Oñatz dantza taldeak antolatuta 12 taldek parte hartuko dute festan. Hain zuzen ere, Urratz (Soraluze), Salleko (Sestao), Ibai Ega (Lizarra), Oinarin (Antzuola), Elai-Alai (Gernika), Lore Gazteak (Arrasate), Txikitxu (Arrasate), Mollarri (Zarautz), Leizaran (Aretxabaleta), Aratz (Gorliz), Korosti (Legazpi) eta Oñatz (Oñati) taldeak ibiliko dira kalerik kale.

Hala, 450 bat neska-mutiko bilduko dira 10:15ean Otadui zuhaiztian. 12:00etan, Ainhoa Arrizabalaga alkate txikiaren agurra jasoko dute guztiek. Hortik aurrera, egun osoko festa egingo dute. 17:00etan, dantzari guztiek alardea egingo dute plazan. Mutilek banakoa, jorrai-dantza eta xakarrankoa dantzatuko dituzte. Neskek, aldiz, zinta eta arku-dantzak eta kaskarotz. Bukatzeko, guztiok elkarrekin dantzatuko dituzte euzko-dantza, zapatagina, makil jokoa, Sant Petit, txulalai, fandangoa eta arin arina.


Oñatz dantza taldeko kideak, 1979an Zarautzen egindako festan. OÑATZ

**"GAINBEHERA DATOR"**

Domekako festan parte hartuko duten umeak etxeetan (%40) eta elkarteetan (%60) banatuko dituzte bazkaltzeko. Hasierako urteetan guztiek bazkaltzen zuten herritarren etxeetan. "Asko aldatu da Haur Dantzarien Eguneko funtsa. Gainbehera dator, eta horren adibide da parte-hartzaile kopurua. Hasieran 2.000 ume batzen ziren Oñatin", esan digu Jesus Irizar *Txutxin*-ek.

Dena den, Oñatzek Haur Dantzarien Eguna antolatzen jarraitzeko asmoa du. "Nagusien taldeko dantzariak harrobitik ateratzen ditugu. Bi urtetik behin hamar mutikorekin eta hamar neskarekin hasten gara lanean, talde nagusirako prestatzeko. Ezinbestekoa da guretzako halako festekin jarraitzea", esan digute dantza taldekoek.


Oñatzeko dantzariak, 1979ko ibilaldian. OÑATZ

## Domekarako egitaraua

**10:15** Taldeei ongietorria Otadui zuhaiztian.
**11:00** Ogitartekoak umeendako plazako pilotalekuan.
**12:00** Ainhoa Arrizabalaga alkate txikiaren agurra.
**12:15** Ibilaldia egingo dute kalerik kale.
**13:30** Neska-mutikoak banatuko dituzte bazkaltzeko.
**17:00** Alardea plazan.
**18:30** Buruhaundiak eta erraldoiak.

> ZERBITZUAK

### Suteen kontrako alarmak 80 urtetik gorakoen etxeetan

Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako herritarren etxeetan sutearen kontrako alarmak ipiniko ditu Udalak. Helburua da etxean bakarrik edo beste adineko batekin bizi direnen pertsonen autonomia eta segurtasuna bermatzea.

Aparailua eta instalazioa Udalak ordainduko du. Erabiltzaileek mantenua bakarrik ordaindu beharko dute: 12 euro urteko.

Interesatuek irailean eman beharko dute izena Bidebarrieta kaleko gizarte zerbitzuetan.

> KIROLA

### Golfa, areto futbola eta arku-tiroketa aste bukaeran

San Migeletako egitarauaren barruan hainbat kirol hitzordu daude aste bukaerarako. Bihar, goiz eta arratsalde, zazpiko futbol txapelketa jokatuko dute Azkoagainen. 16:30ean, areto futbol txapelketa jokatuko dute Zubikoan.

Bestalde, domekan, baso ibilbideko II. arku-tiroketa proba egingo dute Arantzazuko Bellotza baserri inguruan 09:00etan. Azkenik, 09:30ean, golf txapelketa jokatuko dute Irelore zelaian.

> DEIALDIA

### Behaketa astronomikoa bertan behera geratu da

Ulma fundazioak eta Ilatargi astronomia taldeak gaurko, egubakoitza, antolatu zuten behaketa astronomikoa bertan behera gelditu da. Euria aurreikusita dagoelako erabaki dute hori egitea. Urriaren 15ean egingo dute, eguraldia lagun.

Behaketa hasteko planisferio bat nola erabiltzen den azalduko dute Ilatargi taldekoek, eta ibilbide gidatua egingo dute, izarrak, konstelazioak eta beste ikusteko.



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99

ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin 1970-2010

LORTU 2010eko EROSKETA DEBALDE*

Erreforma integralak
gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezao auzoa - Oñati
943 78 20 08

* **1.000 eurotik gorako** erosketa bakoitzarekin **hiru zenbakidun txartel bat** eskuratuko duzu.
**Horietako baten** azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa **debalde lortuko duzu!**






Eraikina husten hasi dira langileak. MIRIAN BITERI

**HEZKUNTZA** > OBRAK

# Ikus-entzunezkoen fakultatea, hasita

Irail hasieran hasi ziren eraikin berria egiten; datorren udarako gertu egotea espero dute

Aurrekontua 5 milioi euro da; eraikinaren azalerak 3.000 bat metro koadro izango ditu

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Dagoeneko hasi dira Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko Komunikazioa (IKO) ikasketak hartuko dituen eraikin berria eraikitzen. Irail hasieran hasi ziren lan horiekin eta asmoa da datorren urteko uztail edo abuzturako amaituta egotea.

IKOko koordinatzaile Aitor Zuberogoitiak azaldu digu 2011-2012 ikasturterako ikasketa horiek Aretxabaletan eman nahi dituztela, baina ohartarazi du tamaina horretako obrekin "inoiz" ez dela jakiten. Gaineratu du aurrekontua 5 milioi euroren bueltan ibiliko dela, eta eraikinaren azalerari dagokionez, 3.000 metro koadro inguru izango dituela, hiru solairutan banatuta.

**LABORATEGIA**

Ikasgelak, platoa, multimedia gunea, irrati estudioa, animazio tailerra, edizio gelak, hitzaldi aretoa eta beste zenbait gune izango dira han. Zuberogoitiaren esanetan, "azpimarratzekoa da azken solairuan laborategi bat kokatzeko proiektua ere badagoela: ikus-entzunezko eduki eta formatu berriak ikertzea eta sortzea litzateke horren helburua".

**HIL BUKAERAN, OSOKO BILKURAN**

Bestalde, Tubos lantegia egondako tokian fakultatea eta etxeak egiteko Udalak eta Ortubos enpresak sinatutako hitzarmena argitaratu zen abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Hitzarmen hori hilabete honen bukaerako osoko bilkuran berretsiko du udalbatzak; hala eta guzti ere, unibertsitateak dagoeneko badauka baimena lanak hasteko. Bien bitartean, udalbatza aztertzen dabil Hamaikabat! alderdiak aurkeztutako alegazioak, fakultate berria eta etxebizitzak eraiki ahal izateko arau subsidiarioetan egindako aldaketen harira.

**ZERBITZUAK** > ORDUTEGI BERRIA

## Zapatuetan ere liburutegia zabaltzen hasiko dira asteon

**M.B.** > ARETXABALETA

Joan den astelehena ezkero (hilak 13) ordutegi berria dago herriko Udal Liburutegian. Astelehenetik egubakoitzera, goizean 09:30etik 13:00etaraeta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara dago zabalik; eta zapatuetan, 09:30etik 13:30era.

Azkenaldian, aretxabaletarrek iradokizun nahiko bidali dizkiote Udalari, liburutegiak zuen ordutegi murritzaz kexu. Udalak jasotako eskaerak aztertu ditu eta astegunetako ordutegia nabarmen luzatzea erabaki du; baita zapatu goizetan zerbitzua ematea ere.

**HIRU LANGILE**

Horretarako, joan den martxoan onartu zuen Enplegu Planaren bitartez, Udalak liburutegi teknikaria kontratatu du: Nerea Altuna aretxabaletarra, hain justu ere. Harekin gaur egun hiru lagun daude Arkupeko liburutegian lan egiten.

## oharrak

ERRETIRATUAK

**> Abesti zaharren lehiaketa egingo du bigarrenez Basotxok**

Joan den urtean izandako arrakasta ikusita, aurten ere abesti zaharren lehiaketa egitea erabaki du Basotxo erretiratuen elkarteak. Horren gaineko informazio askorik ez dute aurreratu, baina azaldu dute urrian izango dela lehiaketa hori. Horrekin batera, antolatzaileek jakinarazi dute kantuez gainera narrazioak, poemak edo erromantzeak ere aurkeztu ahal izango direla oraingoan. Baldintza bakarra da aspaldiko piezak izatea.

**KULTURA** > ARETXABALETA ABESBATZA

# Gaur aurkeztuko du abesbatzak 30 urteko ibilbidea duen DVDa

## Arkupen da ekitaldia: ikus-entzunezkoaren aurrerapena eskainiko dute eta hainbat abesti kantatu; salgai jarriko dute gero

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gaur, hilak 17, aurkeztuko du Aretxabaleta Abesbatzak 30 urteko ibilbidea jaso duen ikus-entzunezkoa: *Aretxabaleta Abesbatza, 30 urteko ibilbidea*. Arkupe kultura etxean da ekitaldia (19:00): lehenengo, DVDaren aurrerapen bat eskainiko dute eta gero, salgai jarri –12 euro.



Abesbatzako zuzendaritzako kide batzuk DVDa eskuetan dutela. M.A.

**DOKUMENTALA ETA MUSIKA BIDEOA**

Ikus-entzunezkoan bi atal egin dituzte: batetik, dokumental historikoa, 35 minutuan 30 urteko ibilbidea jaso dute; eta bestetik, musika bideoa, Aretxabaletako irudiekin eta abesbatzaren doinuekin osatutakoa. Euskaraz eta gaztelaniaz dago DVDa.

Dokumental historikoa osatzeko irudi zaharrak erabili dituzte: Arrasate Telebistako eta Goiena Telebistako artxiboetatik jasotakoak; TVEk New Yorken 90eko hamarkadan grabatutakoak; argazki zaharrak... Protagonisten adierazpenak ere jaso dituzte eta aurten grabatutako urteurren kontzertuko irudiak ere bai. Hainbat musikologoren eta gregoriano doinuetan adituak direnen adierazpenekin osatu dute dokumental hori.

Abesbatza 35 bat lagunek osatzen dute eta Angel Barandiaran da zuzendaria azken 29 urteotan.

**BIHAR, OTAÑOREN DISKOA**

Gaurko ekitaldia, baina, ez da izango Aretxabaleta Abesbatzak egingo duen aurkezpen bakarra. Izan ere, bihar, hilak 18, Loiolako Inazioren santutegian Nemesio Otaño konposatzaile jesuitaren kantuekin egindako diskoa aurkeztuko dute: *Nemesio Otañoren omenez*. Azken hilabeteotan lan handia egin dute abesbatzako kideek diskoa egiteko.

# UDAzaleek Ibarra berotzeko dei egin dute




Futbol denboraldia hasi berri dute eta ohorezko erregionalean jokatzen duen UDAko taldeak lehen partidua dauka etxean domekan; Zumaiako izango du aurrez aurre. Iaz bezala, aurten ere Ibarra futbol zelaia ikuslez betetzeko dei egin dute hainbat UDAzalek: "Etxekoak animatu, kanpokoei errespetua erakutsita". Argazkian, Are Hooligans taldeko zale gazteak *Fito*-rekin.

LUIS MARI OTXOA

**OSPAKIZUNA** > URTEURRENA

# Urbaltzen 25. urteurrena ospatzeko jaia bihar

## Bertsolariak, bazkaria, rock kontzertua eta erromeria giroa Mitarte plazan

**M.A.** > ARETXABALETA

Urteurren ospakizunetan dabiltza astean Urbaltz elkarteko kideak eta bihar egingo dute jai nagusia Mitarte plazan.

Eguerdian hasiko dituzte ekitaldiak Rikardo eta Enbeita bertsolariak lagun hartuta (13:00). Txikiteoa egingo dute gero Aretxabaletako gaitariekin eta bazkaltzera joango dira 14:30ean. Bazkalostea Lide eta Lur trikitilariek girotuko diete eta arratsaldean gaztelu puzgarriak izango dituzte umeek (17:00-19-:00).

Ilunkaran gazteen txanda etorriko da eta rock kontzertua eskainiko diete hiru taldek: The Convicts (Arrasate); Gorroto (Aramaio); eta Degenerados (Eskuernaga). Ospakizuna bukatzeko erromeria izango da eta Elviskaino DJak gauerdi arte berotuko du giroa.

## oharrak

IKUSKIZUNA

**> Poxpolo eta Konpainia pailazoak domekan (17:00)**

*Segi jotzen!* antzezlana eskainiko dute. Sarrera, 3 euro.

MARTXA

**> Bizikleta martxa domekan**

Mugikortasun Astearen barruan Eskoriatzatik etorriko den martxarekin bat egingo dute gurean, Iturrigorri pilotalekuan (10:20). Arrasatera joan eta berriro bueltatuko dira.

FUTBOLA

**> UDAko futbol eskola abian**

Astelehenean (16:45) hasiko dute denboraldia 2000, 2001 eta 2002. urtean jaiotako neska-mutikoek. 2002koek Ibarra futbol zelaian eman behar dute izena astelehenean.

BAZKARIA

**> San Migel jaietako bazkarirako txartelak salgai**

Gurea, Orly eta Urbaltz tabernetan daude salgai.

KARATEA

**> Denboraldia hasiko da gaur**

UDAko karate taldea lanean hasiko da. Entrenamendu saioak martitzen eta egubakoitzetan dira Kurtzebarri eskolan: lehenengo taldea, 18:00-19:00 eta bigarren taldea, 19:00-20:15. Izenematea Kurtzebarri bertan egin behar da.

DEIALDIA

**> Ile-apaintzailea gura du Basotxo elkarteak**

Interesatuek telefonoz dei egin dezatela: 680 76 75 97. Azken eguna bihar.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna
• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.
Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

**INGURUMENA** > MUGIKORTASUN ASTEA

# Ohitura osasungarriak itzuli dira ostera ere herrira

Gaur, patinaje zirkuitua egingo dute; eta etzi, urteroko bizikleta martxa dago

Eguaztenean, umeak oinez joan daitezen, 'Goazen oinez ikastetxera!' izango da

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Aurten ere, iaz bezala, Eskoriatzak bat egin du Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin, eta, hori dela-eta, hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunotarako. Gaur, egubakoitza, patinaje zirkuitua egingo dute Luis Ezeiza ikastetxeko kantxan, 17:00etan. Saioa Altzua teknikariak azaldu digu ludotekak zirkuitu bat gertatuko duela han, motorrik gabeko ibilgailuak erabiliz, tarte dibertigarria pasatzeko.

Asteburuan beste ekimen bat ere izango da. Etzi, domeka, herritarren artean oso harrera ona duen bizikleta martxa egingo dute Eskoriatza eta Arrasate artean. 10:00etarako jarri dute hitzordua, plazan. Handik Aretxabaletarantz abiatuko dira eta 10:20ean aretxabaletarrekin elkartuko dira Iturrigorri frontoian; 11:00etan, ostera, arrasatearrekin batuko dira Seber Altube plazan. Eskoriatzara bueltan, hamarretakoa egongo da plazan.

**'GOAZEN OINEZ IKASTETXERA!'**
Bestalde, eguaztenean, joan den urtean abian jarritako ekimena egingo dute: *Goazen oinez ikastetxera!* Nor bere autoan joan beharrean, haurrak ikastetxera oinez joan daitezela lortu nahi dute horren bidez. Horretarako, bi ibilbide prestatu dituzte: bata Intxaurtxuetatik, eta bestea, Aranburuzabalatik. Petoarekin jantzita joango diren arduradunek hainbat tokitan jasoko dituzte umeak, eta euren ikastetxean utzi. Horretaz aparte, Arizmendiko Almen gunean ikasten dutenak bizikletaz joan ahal izango dira batera. Herriko plazan egin dute hitzordua, 08:30ean. Eguerdian etxera itzuliko dira, eta bazkaldu ostean, ikastolara itzuliko dira ostera ere bizikletan. Mugikortasunaren Astearen harira, laugarren ekimen bat ere antolatu dute: Erreka Eguna. Hilaren 25ean izango da.


Joan den urteko bizikleta martxa. ESKORIATZAKO UDALA

**KULTURA** > ANTZERKIA

# Hortzmuga eta Kukubiltxo taldeek bisitatuko gaituzte

Lehenengo taldea gaur arratsaldean izango da, 'Zirku iluna' antzezlanarekin, eta bigarrenak 'Morttimer' aurkeztuko du bihar gauean

**M.B.** > ESKORIATZA
Antzerkia gustuko duten herritarrek ezin dute hutsik egin, emanaldi bi dituzte-eta egunotan. Gaur, egubakoitza, arratsaldean izango da lehena. Kultura Sailak antolatuta, Hortzmuga taldearen *Zirku iluna* izeneko antzezlana dago, 19:00etan, Herriko Plazan. Zirkua oinarri duen ikuskizunak gaur egungo gizartea salatu eta emozio eta pasioetan eragin gura du, hausnarketarako bidea zabaldu.

**ADIN GUZTIETARAKO**
Antzezlana adin guztietarako modukoa da. Zirku zahar bateko azken langileek zirku horren historia kontatuko dute euren esperientzietan oinarrituta. Bidaia sinboliko eta zirraragarria izango da, txotxongiloak, zirkuko akrobaziak eta umorea uztartuz.

**KUKUBILTXOREN 'MORTTIMER'**
Hori gaurko egunari dagokionez. Bestalde, Aitzorrotz kultura elkarteak irailerako gertatutako egitarauan aldaketak egon dira, eta, Zurrunka taldea izan beharrean, Kukubiltxo antzerki taldea izango da agertokira igoko dena, *Morttimer* izeneko antzezlanarekin. Bihar, zapatua, izango da hori, 22:30ean, kontzejupean.

Ikuskizun horretan, *clown* teknikaren bidez, Morttimer izeneko pertsonaia ilun baina dibertigarria urteak hilda daramatzan bere maitalearekin elkartzen saiatuko da, publikoa inplikatuz; baina ez da samurra izango, eman beharreko lehen pausoari beldur dio-eta.

Antzeko egoeran dauden lagunak bilatuko ditu, taldean bidaia hastea errazago gertatuko delakoan, baina alferrik da. Bizitza gordin bihurtuko zaio, maitaleak etenik gabe deitzen dio-eta. *Clown*-a, musika zuzenean eta akrobaziak dira ikuskizun horren osagarriak.

**KIROLA**

# Dagoeneko izena eman daiteke kirol eskaintzan

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako 2010/2011 ikasturterako kirol eskaintzan izena emateko epea zabalik dago. Izena emateko dauden ekintzak honako hauek dira: pilatesa, hirugarren adineko gimnasia, multifitnessa, spinninga, adimen urrituendako gimnasia, GAP/Stretching, defentsa pertsonala, aerobika eta stepa, igeriketa, aquagyma eta funka.

Izenematea kiroldegian egin behar da irailean; horren harira, Kirol Zerbitzutik erabiltzaileei gomendatu diete aurretik matrikula egiteko argibideak irakur ditzatela. Informazio gehiago gura duenak kiroldegira dei dezake, 943 71 53 28 zenbakira.

**oharrak**

ERRETIRATUAK
**> Urteko omenaldiko ekintzetan izena eman daiteke**
Aurten ere 65 urtetik gorako herritarrei omenaldia egingo die Udalak. Hilaren 26an izango da hori. Parte hartu gura dutenek bihar arte dute izena emateko aukera, erretiratuen bulegoan, 11:00etatik 12:30era. Horretarako txartelek 6 euro balio dute.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

# Hitzaldiak eta tailerrak erretiratuen kontsumo astearen barruan

Irailaren 27tik urriaren 1era egingo dituzte ekitaldiak euren elkartean, 16:30ean

Tailerretan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute hilaren 21ean

MIREIA BIKUÑA > ANTZUOLA

Udako oporren ondoren Antzuolako erretiratuak hasi dira ekitaldiak antolatzen. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin kontsumo astea egingo dute hil bukaeran. Hain zuzen ere, irailaren 27tik urriaren 1era hitzaldiak eta tailerrak egingo dituzte herriko erretiratu guztiendako, 16:30ean.

Bi hitzaldi eta horien gaineko bi tailer egingo dituzte. Hilaren 27an *Medikazioa eta automedikazioa* delako hitzaldia egingo du Marisa Bouzas medikuak. Bestalde, hilaren 29an, elikagaien segurtasunaz berba egingo dute erretiratuendako. Oraindik ez dakite nork egingo duen egun horretako berbaldia.

Bi egun horietan teorian landutakoa praktikatuko dute irailaren 28an eta 30ean: hitzaldien izenburu bera duten tailerrak egingo dituzte. Begoña Olabarrieta izango da irakaslea.

**IZENAK, IRAILAREN 21EAN**

Erretiratuen elkartetik esan digute tailer bakoitzean gehienez 25 lagun onartuko dituztela. Hori horrela, izenemate egun bat zehaztu dute: interesatuek irailaren 21ean eman beharko dute izena erretiratuen elkartean, 16:00etatik 18:00etara arte. Bestalde, kontsumo astea bukatzeko irteera egingo dute Donostiara. Aldundiko kontsumo gelara bisita egingo dute eta tailerretan ikasitakoa nola praktikatzen duten ikusiko dute.

Donostiako irteerara joan nahi dutenek ere hilaren 21ean eman beharko dute izena erretiratuen elkartean. Autobusa 10:00etan irtengo da Antzuolatik.

**URRIRAKO EKITALDIAK**

Kontsumo astea bukatu ondoren, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte urrian. Zumarragako erretiratuen elkarteko antzerki taldea gonbidatu nahi dute, baina ez dute datarik zehaztu. "Gure asmoa da urriaren 11tik 15era arteko astean egitea antzerkia, baina ez dugu eguna zehaztu", esan digu erretiratuen taldeko Florentino Lamarianok.

Aurreratu digu urrian kultura astea, irteera eta merienda egingo dituztela erretiratuen elkartean.



M.B.

## Eskolako aterpeko lanak, martxan

Hilabete eta erdi geldi egon ondoren, hasi dituzte berriro ere eskolako jolaslekua estaltzeko lanak. Izeizko egurrez egindako habe batzuk jarri dituzte dagoeneko eta besteak datozen egunetan ipiniko dituzte. Aterpearen azalera 1.466 metro koadrokoa izango da. Estalkiak aluminiozko txapa izango du kanpoaldean.

**Jose Luis Rosales** > Zinema irakaslea

# "Argazki kamera sorkuntzarako tresna dela erakutsiko diet "



Jose Luis Rosales. M.B.

M.B. > ANTZUOLA

**Kultura Sailak ikus-entzunezkoen gaineko ikastaro bat egingo du hilaren 20tik 23ra. Etxeko argazki kamerak sorkuntzarako tresna direla erakutsiko du Jose Luis Rosales irakasleak. Harekin egin dugu berba.**

**Zer landuko duzue ikastaroan?**

Ikastaro hau ikus-entzunezkoen inguruko oinarrizko ezagupenak ikasi nahi dituztenei dago zuzenduta. Erakutsiko diet etxeko kamera txikia sorkuntzarako tresna dela. Alegia, kamera askok bideoak grabatzeko aukera ematen digute, baina oso gutxik erabiltzen dugu. Kalitate oneko irudiak graba ditzakegu, kamera handiaren edo bideokameraren beharrik gabe.

**Nola planteatuko duzue ikastaroa?**

Teorikoa eta praktikoa izango da. Ikasle bakoitzak bere kamerarekin irudiz osatutako diskurtso xume bat egiten ikastea da helburua. Ikasiko dugu gidoi bat egiten. Gai zehatz barik, askotariko irudiak grabatuko ditugu Antzuolako txokoetan, etxean, familian... Eta horiei begira, gidoi baterako gaia topatzen erakutsiko diet. Kalean grabatutako irudiak ordenagailura jaitsiko ditugu ikus ahal izateko.

Teoria ere landuko dugu. Argazki kamera erabiltzeko oinarrizko arau batzuk azalduko ditut: nola erabiltzen den, ze bideo mota grabatzen dituen...

**Nortzuek parte har dezakete ikastaroan?**

Ikasteko gogoa duen 16 urtetik gorako edonor etor daiteke ikastarora. Hori bai, norberak etxeko argazki kamera edo mugikorra eraman beharko du.

Gehienez hamar laguneko taldea osatuko dut, eta oraingoz bost pertsonak eman dute izena. Hortaz, interesatuek lehenbailehen eman dezatela izena.

**Non eman daitekez izena?**

Bi telefono zenbaki dituzte aukeran: 943 76 65 67 eta 655 70 96 34.

**Ikastaro hau 12 ordukoa izango da, ezta?**

Bai. Hilaren 20tik 23ra, egunero hiru orduko eskolak emango ditugu, Olaran etxean.

KIROLA > PILOTA

## Aitor Mendizabalek Lezoko txapelketa irabazi zuen

Antzuolarrak 22-14 menderatu zuen Uriarte-Lopez bikotea Galarragarekin

M.B. > ANTZUOLA

Aitor Mendizabalek Lezoko pilota txapelketa irabazi zuen martitzenean, Galarragarekin bikote eginez. 22-14 menderatu zuten Uriarte-Lopez bikotea. Hori horrela, 2008an lortutako txapela berretsi zuen antzuolarrak.

22 urtez azpikoen finala 11-11koarekin apurtu zen Mendizabal-Galarragaren alde. Ordura arte, partidua oso parekatua izan zen. 0-4 atzetik egon arren, Mendizabalek gogor astindu zuen pilota aurreko koadroetan. Antzuolarrak erakutsi zuen sasoi onean dagoela.

Mendizabal fin ibili zen aurrean, baina Galarragak lan itzela egin zuen atzean. Lehia estua izan zuen Lopezekin. Biek ala biek tanto ederrak egin zituzten. Finaleko jokalari ahulena Uriarte izan zen.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**AZPIEGITURAK** > ITXITAKO ERREPIDEA

# Udala, Diputazioa eta Adif bildu egin dira

Luis Alberto Zarrabeitia Herrilan eta Garraio diputatua eta Emilio Alvarez Adifeko obra zuzendaria alkatearekin bildu ziren eguaztenean

**T. MADINA/E. MENDIBIL** > ARAMAIO
Luis Alberto Zarrabeitia Herrilan eta Garraio diputatuak, Emilio Alvarez Adifeko obra zuzendariak eta Asier Agirre alkateak bilera egin zuten eguaztenean udaletxean. Bileran, Udaleko beste zenbait ordezkari izan ziren. Ia ordu eta erdiz jardun zuten urtarrilaren 31 ezkero itxita dagoen A-2620 errepidearen egoeraren gainean. Alkatearen esanetan, bilera tentsoa izan zen. Hainbat herritar ere batu ziren udaletxearen kanpoaldean errepide mozketa dela eta bizi izaten ari diren egoera salatzeko. Itxitako errepidea lehenbailehen zabaltzea aldarrikatu zuten herritarrek.

Udaletxeko bileraren ostean, kaltetutako errepidera joan ziren, eta, Emilio Alvarez Adifeko obra zuzendariak adierazi zuenez, lanak martxa onean doaz eta desbideraketa urtea amaitu aurretik amaituta izango da.

**ALKATEAK DIPUTAZIOA SALATU**
Asier Agirre alkateak, berriz, Diputazioak behar besteko azkartasunarekin erantzun ez izana salatu zuen eguaztenean: "Lurjausia urtarrilaren 31n gertatu zen eta uztailaren 4ra arte ez dira desjabetzeekin eta bestelako lanekin hasi. Proiektua egiteko bost hilabete gehiegi dira", adierazi zion Asier Agirrek Goiena Telebistari.

**DIPUTATUAK KONFIANTZA ESKATU**
Luis Alberto Zarrabeitia diputatuak, berriz, positibotzat jo zuen eguazteneko bilera, eta onartu zuen errepide alternatiboaren egoera ikusita hainbat lan urgentziaz hasiko direla, batez ere eguraldiak ekar ditzakeen arazoei aurre egiteko. Bide alternatiboa baldintza egokienetan izatea ezinbestekotzat jo zuen, datozen hilabeteotan elurrarekin eta izotzarekin izan daitezkeen arazoak saihesteko.

Zarrabeitiak gaineratu zuen ulertzen dituela Udaletik eta herritarren aldetik egon diren kexak, baina zera azpimarratu zuen: Diputazioak erantzukizunez jokatu duela. Era berean, herritarrei konfiantza eskatu zien arazoa behar bezala konpontzeko.

Gogoratu behar da uztailean Aramaioko udalbatzak mozioa onartu zuela aho batez, Sustapen Ministerioari hauxe eskatuz: sortutako kalteei aurre egitea eta auzoetatik doan desbideratzea eta herriko sare ezberdinak (saneamendua, urak eta baserrietarako bideak) konpontzea. Herritarrek protesta ekitaldia egin zuten Diputazioan uztailaren 27an.

## Haur Hezkuntzako ikasleen txotxa

San Martin ikastetxeko Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko umeak Salgora joan ziren aurreko eguenean, sagarrak batzera. Egubakoitzean, berriz, sagar zukua egitera joan ziren herriko kooperatibara. Ederto azaldu ziguten Pedrok, Kepak eta konpainiak prozesu guztia eta umeek azalpenok adi-adi eta emozioz jarraitu zituzten. Bukatzeko, nola ez, guztiek sagar zuku gozoa dastatzeko aukera izan zuten. Txoooootx!



SAN MARTIN

**KULTURA** > MUSIKA

# Gasteiz Big Band taldearen emanaldia gaur Sastiñan




Gasteiz Big Band taldeko kideak. GAZTELUPEKO HOTSAK

**E.M.** > ARAMAIO
Gasteiz Big Band musika taldeak emanaldia egingo du gaur, barikua, Sastiñan, iluntzeko zortzietan. 20 bat lagunek osatutako taldea da eta *Bing Bang* izenburuko diskoa kaleratu zuten ekainean Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Aurretik bi single argitaratuta zituzten. Jolasteko, dantza egiteko eta ondo pasatzeko musika egiten dutela diote taldeko kideek. Jimmy Bidaurreta ezaguna da taldeko burua, musika zuzendaria. Atzean 12 urteko ibilbidea du taldeak.

Big band musika XXI. mendera egokitzeko ahaleginetan, hots klasikoak eta joera berriak uztartzen dituzte gasteiztarrek: euskarri elektronikoak, rapa, scratchinga, perkusio latindarra... Musika festa iragarri dute gaurko emanaldirako.

**FOLK ON, HILAREN 24AN**
Sastiñako kontzertuekin jarraituz, datorren barikuan, irailaren 24an, Folk On taldea izango da Aramaion, ordu berean.

**MENDIA**

# Besaide eguna domekan Orixolek antolatuta

**E.M.** > ARAMAIO
Orixol mendi elkarteak antolatuta Besaide eguna ospatuko da domekan. Ohi denez, urtean zehar mendian hildako euskal mendizaleei omenaldia egingo diete. Meza izango da Besaiden 11:00etan eta ondoren musika, bertsoak eta dantzak. Bukatzeko, lore eskaintza egingo dute eta salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango da. Elorriok, Arrasatek eta Aramaiok txandaka antolatzen dute Besaide eguna; aurten Orixoli egokitu zaio antolaketa. 1955a ezkero ospatzen da Besaide Eguna.

**oharrak**

KIROLA
**> Sasoian egoteko gimnasia hirugarren adinekoendako**
Martitzenean hasi ziren hirugarren adinekoendako sasoian egoteko gimnasia eskolak. Martitzen eta eguenetan dira, kiroldegian, 10:00etatik 11:00etara. Izenematea udaletxean egin daiteke.

Aperribay, s.l.
*Marmoldegi eta granitoak*
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



Fermin Iribar, Lambretta motorretako baten, garajearen atarian. LARRAITZ ZEBERIO

**Fermin Iribar** > Motor klasikoen zalea

# "Topaketaren helburua da motorzaleok elkartu eta giro onean ibiltzea"

J.B. > ELGETA

**Bost urte beteko ditu aurten Vespa eta Lambretta motorren topaketak Elgetan. Aurten ere 90 motor inguru batzea espero du Fermin Iribar antolatzaile nagusiak. Beti egon izan da lehia Vespa eta Lambretten artean; Iribarrek bigarrenak ditu gustukoago.**

**Bosgarren edizioa duzue dagoeneko. Zein egitarau prestatu duzue?**

Egitarauan aldaketa gutxi izango dira. Egun horretan 10:00etatik 12:30era ikusgai izango dira plazan motor guztiak. 12:00etan pintxoak banatuko zaizkie motorzaleei eta 12:30ean irtengo gara urteroko bueltatxoa egitera.

Bueltatxoaren ostean, txikiteo labur bat egingo dugu eta 14:30ean Iñaki jatetxean bilduko gara guztiok bazkaltzeko. Gero, bazkalosteak luze joko du. Helburua da motorzaleok bildu eta, gure saltsan gaudela, eguna giro onean pasatzea.

**Bada berritasunik aurten?**

Ibilbidea aldatu behar izan dugu. Durango eta Matiena aldean obretan ari dira eta aurten ez gara Bizkaitik pasako. Horren ordez Oñatira joango gara. Beraz, honakoa izango da ibilbidea: Elgeta, Bergara, Ozaeta, Elorregi, Zubillaga eta Oñati. Oñatin buelta eman eta Arrasatera egingo dugu. Handik Kanpanzarrera eta bertatik Elgetara. 44 kilometro dira eta ordu eta erdi inguru egingo dugu errepidean.

**Zenbat Vespa eta Lambretta batuko dituzue aurten?**

Espero dugu 90 bat biltzea. Espainian zehar hainbat lagun ditugu eta horietako asko Elgetan izango dira. Adibidez, Castrillo de la Vegako (Burgos) topaketan lagun batzuekin egon ginen eta hamar Vespa ekarriko dituzte, sidekar eta guzti.

**Nola moldatzen zarete motor zahar horien mantenurako?**

Askotan kanpotik lortu behar izaten ditugu piezak eta lan nekeza izan ohi da. Gainera, oso garesti jartzen dituzte. Halako piezak ez ditu inork eskatzen, eta aprobetxatu egiten dira.

Malagatik eta Italiatik erosten ditugu hainbat pieza. Eta beste batzuetan motor zahar bat desegiten dugu motor on bat egiteko.

**JENDARTEA** > AZOKA ETA SAGARDO EGUNA

# Baserriko jakien erakusleihoa, sagardoz eta musikaz blai

Egun handia bihar: azoka, Sagardo Eguna, umeendako jolasak, tortilla lehiaketa eta musika

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Egun handia izango da bihar Elgetan. Goizetik gaueko ordu txikiak arte hamaika ekintza izango dira: besteak beste, baserritarren azoka, Sagardo Eguna, umeendako jolasak, tortilla lehiaketa eta zuzeneko musika izango dira.

Baserritarren azokarekin hasiko da eguna. 11:00etatik 13:00etara denetarik izango da Herriko Plazan. 11 postu izango dira aurten –ardi gazta salgai izango den postua ziurtatzeke dago–: frutak, barazkiak, ogia eta eztia izango dira, eta baita Pili Arinen artisautza postua ere. Aurten ez da baserriko esnearen posturik egongo. Hala, Leire Basauri baserritarren batzordeko zinegotziak adierazi duenez, azokaren helburu nagusia da, baserritarrei saltzeko aukera emateaz gain, bertako baserrietan ekoizten diren produktuak herriari erakustea: "Salerosketa soila baino gehiago, herriko baserrien erakusleiho izan gura du azokak, herritarrek Elgetan bertan jasotzen diren produktuak bertatik bertara ezagut ditzaten". Euria egiten badu, plazako arkupeetan jarriko dituzte postuak.

Gainera, Sagardo Eguna ere izango da. Kupelak izango dira kalean eta edalontzi batengatik zenbateko bat ordainduta gura beste sagardo edan ahalko da.

**MUSIKA JAIALDIA GAZTETXEAN**

Tortilla lehiaketa ere arratsaldean egingo da. Iaz 30 taldek hartu zuten parte eta aurten ere, iaz moduan, hiru sari banatuko dituzte: itxurosoenari, onenari eta txarrenari. Pintxoak sagardoarekin laguntzeko aukera izango da lehiaketa amaitzean.

Azkenik, kontzertuak izango dira gaztetxean: Sumision city, UK Bill eta Plan B taldeek joko dute, 22:30ean.



Epaimahaiak ez zuen lan erraza izan iaz tortilla onena aukeratzeko orduan. GOIENKARIA

**PILOTA TXAPELKETA**

## Hil amaiera aurretik eman behar da izena

J.B. > ELGETA

Laster jarriko da abian herriko pilota txapelketa. Izena emateko epea zabalik dago, eta, Fernando Zenitagoia txapelketaren antolatzaileak jakinarazi duenez, iraileko azken egunetarako izena ematea komeni da, "egutegia zehaztu ahal izateko". Izan ere, Gabon zaharretan izaten dira finalak.

Txapelketak bi modalitate ditu: 40 urtetik gorakoak eta 18 urtetik 40 urtera artekoak. Lehen modalitatearen zazpigarren urtea izango da aurten; bigarrenekoak, berriz, hiru urte egingo ditu. Iaz hamar bikote izan ziren beteranoen artean eta gazteen artean bi talde egin behar zituzten, pilotari askok eman zuten-eta izena.

**PILOTA, AITZAKIA**

Zenitagoiak dioenez, pilota "aitzakia" da herriko jendea kalean batu eta "giro onean" ibiltzeko. Erantzuna ikusita, helburua bete du ekimenak.

> GERTAERA

## Elgetar bat atxilotuta txeke bati 3.000 euro gehitzeagatik

39 urteko gizonezkoak 3.350 euroko txeke manipulatua kobratu zuen Bergarako banketxe batean, astelehenean. Txekearen jaulkitzailea zen banketxeak Bergarako banketxeari jakinarazi zion txeke hori manipulatua izan zela. Hala, bertako langile batek Ertzaintzari eman zion abisua. Ertzainak ustezko faltsutzailearen etxera joan ziren eta hark aitortu zien txekea manipulatu zuela 3.000 euro gehiago jarriz. Ertzainek gizonezkoa atxilotu zuten, dokumentuen faltsutze delituagatik. Izapideak egin ostean, aske utzi zuten epaileak deitzeko zain.

**LEINTZ GATZAGA** > DEIALDIA

# Artisauen izenematea zabalik

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 14an, domeka, ospatuko dute Leintz Gatzagan San Milixan eguneko feria. Artisauekin beteko da pilotalekua egun horretan, baina bertan egoteko eskaera aurrez egin behar dute interesatuek. Izena emateko azken eguna urriaren 8a da.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak dira salgai egongo diren produktuen egilea izan eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea. Horiez gain, eskaera egiteko orduan hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte, tartean artisauen erregistroan izena emanda dagoen ziurtagiria, curriculuma eta postuaren eta salgai jarriko dituzten produktuen argazkiak.

**TAILERRAK EGITEKO**

Artisau tailerra jartzeko aukera ere egongo da, pilotaleku alboan dagoen lokal batean. Feriak iraun bitartean egongo da zabalik (10:00-14:30) eta ume, gazte eta helduei zuzendutako jarduerak egingo dituzte, beti ere artisautzarekin zerikusia dutenak. Lanerako taldeak osatuko dituzte egunean bertan –10-15 lagunekoak.

Artisau azokan parte hartzeko betebehar berberak izango dituzte tailerrekoek ere eta emango duten jardueraren deskribapen zehatza bidali beharko dute.

Gatzagara etorritako artisau guztiendako bazkaria gertatuko du Udalak eta diru sariak jasoko dituzte horiek.

> INTERNET

## Ikastaroak eskainiko dituzte arratsaldean KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea etorriko da gaur (16:00-20:00) KZgunera. Herritarren zalantzak argitu eta hainbat ikastaro eskainiko dizkie gatzagarrei. 16 urtetik gorako edonork egin ditzake ikastaro horiek –bi ordukoak guztiak–: sare sozialak, *Youtube, Skype*, wi-fi sistema…



Ezkerretik eskumara: Ane Miren Iturriaga, Itziar Camino eta Mari Lera; jarrita: Ikerne Lete. Ibargarai kaleko 18. zenbakian dute bulegoa. E.M.

**Aholkularitza fiskala, lanekoa eta kontabilitatea eskaintzen dituzte**

**Tailerrak, denda txikiak, autonomoak eta partikularrak dira haien bezero nagusiak**

ZERBITZUAK

# Lauki Aholkularitza zabaldu dute Ibargarain

EDU MENDIBIL

**Udako oporretatik bueltan, abuztuaren 25ean, hain zuzen, bulego berria zabaldu dute Ibargarai kaleko 18. zenbakian: Lauki Aholkularitza. Lau dira bazkideak eta urte askotako esperientzia daukate atzean. Bergara eta inguruko herrietako bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea da haien erronka. Ilusioz ekin diote etapa berriari.**

Esan bezala, urtetako esperientzia daukate atzean Itziar Camino eta Mari Lera oñatiarrek eta Ane Miren Iturriaga eta Ikerne Lete bergararrek. Harreman handia izan dute Bergara eta inguruko bezeroekin eta badakite zeintzuk diren bezeroen beharrak. Nagusiki zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: aholkularitza fiskala, batetik (zergak, errenta aitorpenak, enpresa berriak sortzeko aholkularitza...); bestetik, lan aholkularitza (nominak, kontratuak, gizarte segurantzako era guztietako tramiteak, autonomoen kontuak, erretiroak, bajak, elbarritasunak...); eta, azkenik, kontabilitate aholkularitza (balantzeak, memoriak eta abar). Era berean, beste hainbat zerbitzu ere ematen dituzte, hala nola erakunde ofizialen laguntza eskaerak, testamentuak, herentziak, alokairu kontratuak, idatziak eta beste hainbat.

Laukikoek esan digutenez, gehienbat komertzio txikiak, tailerrak, autonomoak eta partikularrak dira haien bezeroak: "Informazio zehatzaren bila datoz edozein tramite egiteko eta erakundeekiko betebeharrak eguneratuta edukitzeko. Hau da, guztiek dakite zein garrantzitsua den *paperak* ondo izatea arazorik ez izateko", diote.

Arlo guztietan aholkularitza pertsonala ematen dute. Izan ere, gauza askotan aholkua jasotzea beharrekoa izaten da gaur egun. Haien hitzetan: "Esaterako, testamentuak edo herentziak egiteko orduan edota enpresa baten sorreran funtsezkoa da; etorkizunean ondorioak izan ditzake eta hobe da gauzak garaiz eta ondo egitea".

**BEZEROEN KONFIANTZA**

Ilusioz ekin diote uda ostean hasitako etapa berriari. Ibargarai kaleko 18. zenbakian jarri dute bulegoa: "Hasiera guztiak bezala, ilusioz hasi gara eta egunak pasa ahala bezeroak etortzen hasi dira, eta lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu haiei eta etorriko direnei gugan izan duten konfiantzagatik".

Krisiari dagokionez, zera diote: "Sumatzen da bai, jendea ez delako animatzen negozio berriak zabaltzera, eta beste batzuk itxi egin dituztelako. Hala ere, enpresa eta partikularren erakundeekiko betebeharrak ez dira bukatzen eta gure lana etengabekoa da. Horregatik, guk ere gure tarifak egokitu ditugu eta adibidez eskaintza bezala lehenengo hiruhilabeteko tramitazio fiskala doanekoa izango da".

Laukiko bazkideen erronkarik handiena kalitatezko aholkularitza eskaintzea da, "bezeroen beharrei eranginkortasunez erantzutea hain zuzen. Horixe da gure helburu nagusia, bezeroa gustura geratzea".



■ ELKARRIZKETA: IGOR FERNANDEZ / ARDURADUNA

# "Energia berriztagarrien aldeko apustua egin dugu"

MIREIA BIKUÑA

**Bergarako Altube Renovables enpresa orain dela zazpi hilabete sortu zuten Altube Tailerraren baitan. Ordutik hona, energia berriztagarrien gaineko lanak eta proiektuak egiten dihardute. Enpresa berriek eskaintzen duten zerbitzua zein den jakiteko, Ricardo Arantzabal gerentearekin eta Igor Fernandez arlo teknikoko arduradunarekin egin dugu berba.**

**Noiztik diharduzue energia berriztagarriekin lanean?**

Orain dela zazpi hilabete hasi ginen lanean. Eibarko Efitermik enpresaren egoera ikusita, eurekin fusionatu ginen, eta energia berriztagarrien munduan zuten esperientzia aprobetxatu nahi izan genuen. Horren harira sortu genuen Altube Renovables. Hortaz, enpresak zazpi hilabete ditu, baina hiru urteko esperientzia. Besteak beste, Legazpiko Txillida museoan 54 kilowatteko geotermia eta Santanderko bulego batzuetan 17 zulodun geotermia ipini ditugu.

Altube Tailerraren baitan sortutako enpresa berria da.

**Zein da zuen eskaintza?**

Energia berriztagarrien arloan askotariko lanak egiten ditugu. Besteak beste, geotermiak, instalazio fotovoltaikoak, biomasak eta energia aurrezteko ikerketak egiten ditugu.

**Zeintzuk dira enpresak lortu nahi dituen helburuak?**

Bi helburu ditugu: alde batetik, kalitatezko instalazioak egin gura ditugu; eta, beste alde batetik, zerbitzu ona eman gura diegu gure bezeroei.

**Nortzuei ematen diezue zerbitzua?**

Guztiei. Enpresei, erakundeei, etxe pribatuei, elkarteei... Gure laguntza behar dutenei. Egun, Elgoibarko Udalarendako energia aurrezteko proiektua egiten dihardugu.

**"Kalitatezko instalazioak egin eta bezeroei zerbitzu ona eman nahi diegu"**

**Bezeroek eskatzen dizueten proiektuak enpresan bertan egiten dituzue.**

Bai, hala da. Instalazioa tailerrean egiten dugu. Bezero bakoitzak behar duen azpiegitura ia eginda eramaten dugu eurengana. Tailerrean behar dugun material guztia dugu. Horrek aukera ematen digu bezeroaren etxean ahalik eta denbora laburren egotea, eta eurei ahalik eta kalte gutxien egitea.

Bestalde, instalazioa egiteko orduan piezaren bat falta badugu, tailerrera joan behar dugu bila.

**Zazpi hilabeteko bidea egin duzue. Zer moduz?**

Negozio berri baten hasiera nahiko zaila izaten da beti. Gainera, krisiak eragin zuzena dauka enpresa berrietan. Energia berriztagarrien arloak hartueman estua du eraikuntza arloarekin. Eraikuntza geldi badago, gu ere bai. Dena den, epe ertainari begira egoera hobetu egingo dela uste dugu.

Bestalde, orain arte laguntza asko egon dira energia berriztagarrien arloko instalazioak egiteko. Horiek gutxitu egin dituzte, eta orain jendea gutxiago animatzen da halako instalazioak egitera. Adibidez, sarera konektatutako instalazio fotovoltaikoak geroz eta gutxiago egiten ditugu, laguntza faltagatik.



Ricardo Arantzabal eta Igor Fernandez. MIREIA BIKUÑA

**Bezeroari proiektua egin aurretik, bideragarritasun planak egiten dituzue.**

Bai, hala da. Egiten dugun instalazio bakoitzaren bideragarritasuna bermatzen ahalegintzen gara. Bezeroei azaltzen diegu zenbat urtetan amortizatuko lukeen egingo diogun lana. Ez da gauza bera lanak 30 urtean amortizatzea edo 10 urtean.

**"Bezeroari proiektua egin aurretik, bideragarritasun plana egiten diogu"**

**Zuekin kontaktuan jarri gura duenak zer egin dezake?**

Bergaran gaude, San Lorentzo industrialdean, Altube Tailerraren lokalean. Gurekin hartu-emanetan jartzeko: 973 76 22 74 telefonoa edo *renovables@talleresaltube.com* helbidea ditugu. Bestalde, informazio gehiago dugu *www.altuberenovables.com* webgunean.

ALTUBE RENOVABLES
Energia Berriztagarriak

San Lorentzo industrialdea
Urarte 22 • 94 P.K.
20570 Bergara
Tel.: 943 76 22 74 • Faxa: 943 76 04 99
www.altuberenovables.com

Biomasa
•
Geotermia
•
Eguzki-energia
•
Eolikoa
•
Berokuntza










80ko hamarkadako Gatzagako Igoerako erretratuak; ibilbideko azken tramuan jende asko batzen zen, zubiaren osteko zelaian. ARGAAZKIAK: RAFA BELOKI

**AUTOMOBILISMOA** > GATZAGAKO 14. IGOERA

# "Autoaren karterra leher eginda geratzen zen Marulandan"

## 22 urteren ostean Gatzagako igoera egingo dute bihar, 15:00etan hasita

## Lehengo antolatzaile eta pilotu ohiek gogorarazi dute zelako proba zen

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Ibarreko motorzale gazteenak ez dira gogoratuko, baina bihar, zapatua, Gatzagan irtengo diren 50 pilotuek ez dute igoera hori estrainekoz egingo. Igoera horretako bide bazterrak 70eko eta 80ko hamarkadetan jendez beteta ezagutu dituzte askok, eta halaxe egongo dira bihar ere (15:00).

**'PANADERO' ETA TELLERIA**

Gatzagako igoera 1971n egin zuten lehenengoz. Eta, orduko sailkapen orokorrari begiratuz gero, bi debagoiendar daude lehenengo postuetan, Jose Joakin Jauregi *Panadero* aretxabaletarra (Mini Authi) hirugarren postuan eta Fermin Telleria arrasatearra (Min Cooper S) laugarrenean: "Sailkapen hori, baina, *scrach*-ekoa da, orokorra. Lehenengo hiru sailkatuek Grupo 2 kategorian lehiatzen ziren eta ni Grupo 1 kategorian –autoari moldaketarik egin barik– ibiltzen nintzen", azaldu digu Telleriak.

Hala, Arrasatekoak Gatzagan parte hartu zuen hamar lasterketetan lehenengo amaitu zuen, Grupo 1 kategorian: "Malagako enkante batean erosi nuen Minia, eta zuzenean joan nintzen Herrerako igoera korritzera". Korritu eta irabazi, Telleriari *El Curiosito* deitzen zioten: "Gidatzen nuen moduagatik, derraperik egin barik, bestela abiadura galtzen genuen-eta".

Lagun onak ziren Telleria eta *Panadero*; gainera, batera ere korritu zuten Rally Vasco-Navarroan, BMW 2002 TI autoaz, lehenengoa gidari, eta bigarrena kopilotu. Ez ziren izan, baina, hasierako urte haietan Gatzagako igoeran parte hartu zuten debagoiendar bakarrak: "Javier Linazisororen Simca 1000 autoa ere Gatzagan gora ibili zen, eta geroago haren seme Aitor Linazisorok ere korritu zuen –profesional moduan korritu zuen Citroen eta Ford etxeendako, batez ere rallyetan eta lurgainean–. Ondoren etorri ziren, 80ko hamarkadan, ibarreko beste pilotu asko, tartean bihar Gatzagan egongo den Aitor Zabaleta bergararra.

**CASTAÑARESEN 'HEGAN'**

Hasierako urteetan batez ere, lasterketa ikusteko orduan ikusleak Castañaresko zubiaren inguruan jartzen ziren, lehenago zegoen sestra aldaketan (*rasante* aldaketa) autoak *hegan* irteten zirelako: "1971ko eta 1972ko lasterketak Eskoriatzan hasi genituen eta Castañaresko baserrietara iritsi orduko abiadura bizian joaten ginen. Saltoa egin ondoren, Marulandara iritsi orduko autoaren karterra leher eginda izaten genuen. Lehenengo bi urteetan, bietan apurtu nuen karterra. 1973tik aurrera, baina, salto hori arriskutsuegia zelako lasterketaren irteera puntua aurreratu egin zuten, eta lehen besteko abiadura hartzen ez genuenez saltoak txikitu egin ziren". Telleria, baina, ondo gogoratzen da igoerako beste tramu kritiko batekin: "Goialdean, gaur egun landetxea dagoen tokian hasi eta trenaren zubi azpiko tarteraino zati ikusgarria zen. Ezkerretarako kurba zaila zegoen han, eta jende asko batzen zen aurreko zelaian –ikus erretratuak– autoak ikusteko. Gaur egun ondo asfaltatuta dago zati hori eta zubia, gainera, zabaldu egin zuten".

**EZUSTEKO BAT BAINO GEHIAGO**

Gatzagako igoeran ezusteko bat baino gehiago izan da: 1979an Naia izeneko barketa errekara jausi zen lasterketa hasi eta berehala eta 1972an lasterketa irabazi zuen Claudio Aldekoa gasteiztarrak hurrengo urtean (1973) kolpe galanta hartu zuen Renault Alpine 1440 autoarekin, gaur egun Aterbe landetxea den erainkinaren hormaren kontra.

Istripu larriena, baina, Gatzagako igoerako azken edizioan izan zen, 1988an. Ordurako Rafa Etxabek, Xabier Ota-



Renault GT Turbo autoa igoerako azken tartean, goiko zubira iristeko metro gutxiren faltan. RAFA BELOKI

ESANAK

**"Lehengo urteetan Eskoriatzan hasten genuen lasterketa, eta Castañares auzoan autoek 'hegan' egiten zuten"**
**Fermin Telleria** > Pilotu ohia

**"Lasterketak antolatzeko ere beste sasoi bat zen; guk bi egunean lortzen genuen lasterketarako aurrekontua"**
**Rafa Etxabe** > Antolatzaile ohia

**"Aste honetan hasi dira langileak Marulandako tartea konpontzen, baina ibilbidea aldatzeko berandu da"**
**Mikel Otxoa** > Antolatzailea

KONTUAN HARTZEKO

### Gatzagako igoera Marulanda auzoan hasiko dute

Biharko lasterketa Marulandan hasiko dute, ez Castañaresen. Hori zen antolatzaileen hasierako asmoa, baina barketekin ibiliko diren pilotuek garbi esan zuten errepide zati hori egoera oso txarrean zegoela. Hori ikusita, lasterketa Marulandan hastea erabaki zuten antolatzaileek. Eta, kasualitatez, aste barruan ibili dira langileak txarto zegoen errepide zati hori konpontzen: "Pena galanta hartu dugu, zelako kasualitatea! Langileek esan ziguten lasterketa egunerako bidea konponduta egongo zela, baina orain ezin dugu atzera egin, berandu da. Federazioari esan diogu lasterketa Marulandan hasiko dela, eta baita pilotuei ere; orain ezin dugu hori aldatu", adierazi digu Mikel Otxoa pilotuak. Datorren urterako tarte hori errekuperatu ahal izango dute.





mendik eta Juan Jose Iregik *Txurra*-k zuten lasterketa antolatzeko ardura: "Orain gertatu den moduan, guk ere antolatzeari utzi zioten proba bat hartu genuen. 1979tik 1985era arte ez zen Gatzagako igoerarik egin, eta guk hiru edizio antolatu genituen", adierazi digu Mugarriko Rafa Etxabek. "Gauzak asko aldatu dira, bi egunean lortzen genuen guk lasterketa antolatzeko behar genuen aurrekontua, eta autoekin batera motorrek ere korritzen zuten". Hala, Matxaneko baserriko lehengusu zen Jose Manuel Pedreira *Franchi*-k bizia galdu zuen, Honda VFR 750 motorrarekin Marulandako baserriko hormaren kontra jota.

Istripu hura ekainean izan zen, eta urrian, Urkiolako igoeran, Victor Abraham pilotu asturiarrak –Gatzagan 1987an irabazle– formularekin kontrola galdu zuen, eta autoak hegaldi efektua egin ostean hainbat metrotara zeuden bi ikusle harrapatu zituen. Orduan utzi zioten Gatzagako lasterketa antolatzeari, besteak beste, aseguru etxeek ez zutelako lasterketen gainean ezer jakin nahi.

**EUSKADIKO FEDERAZIOAZ**
Gaur egun Euskadiko Federazioaren onarpenarekin antolatzen dira lasterketak; eta asegurua ez da batere merkea: "Urtetan 4x4 probak antolatzen ibili gara, eta eskerrak hor batutako diru apur bat dugun; horrek lasaitasuna eman digu hasteko, baina kontuan izan behar da 21.000 24.000 euro inguru behar direla horrelako proba bat antolatzeko", esan digu Ibon Aranburuzabalak.

> FUTBOLA

## Bergarak zapatuan jokatuko du Berioren kontra eta domekan Aretxabaletak Zumaiako hartuko du

Ligako bigarren jardunaldian jokatuko dute etxean Bergarak eta Aretxabaletak. Mahoneroek zapatuan, 17:00etan, Berioren kontra, eta Aretxabaletak domekan, 17:30ean, Zumaiakoren kontra.

Maiztegiren mutilak Agorrosinen talde sendoa izaten ahaleginduko dira. Aretxabaletarrak, berriz, ligako bigarren garaipenaren bila zelairatuko dira. Mondrak eta Aloñak, bestalde, etxetik kanpo jokatuko dute bihar. Arrasatekoek Ondarroan (17:00) eta Aloñakoek Ordizian (16:30).

> TXIRRINDULARITZA

## Lehendakari txapelketako azken bi lasterketak jokatuko dituzte asteburuan Oñatin eta Bergaran

Hamaika lasterketa egin ostean, asteburuko hitzordu bikoitzarekin amaituko dute amateur mailako ziklistek (23 urtez azpikoek) Lehendakari txapelketa.

Oñatin egingo dute bihar (10:00) Oñati saria lasterketa eta domekan (10:00) Bergarako San Martin jaien barruan egingo dute urteko azken lasterketa –bi lasterketak 100 kilometrokoak izango dira–. Oñatiko lasterketan Elgeta –Epeletik–, Udana eta Deskarga gainak izango dituzte eta Bergarakoan, Asentzio.

> PILOTA

## Antzuolako Mendizabalek eta Arrasateko Bolinagak txapela jantzi dute Lezon

Lezoko Etxando oroimenezkotik txapela jantzita itzuli ziren bi debagoiendarrak, eta baita finaleko jokalari onenak izendatuta ere. Seniorren finalean Aitor Mendizabal erabakigarria izan zen (22-14), nahiz eta haren bikotekide Galarragak ere partidu ona egin. 22 urtez azpiko kategorian, Ibai Bolinaga arrasatarrak Antsotegi izan zuen lagun eta 22-19 nagusitu ziren.

Bestalde, asteburuan hasiko dituzte ibarreko pilotariek Gipuzkoako txapelketa.



iKER
**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR


www.danbaka.com
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
PARTE HARTU NAHI?
Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.
Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com
irailak 17
izena emateko azken eguna



> **LIERNI ALTUBE**
Oñatiarra pozik geratu da Sarrionandiarendako egin dituen ilustrazioekin > **34**



> **MARGOLANAK**
San Martinetako margo lehiaketako saria, gasteiztar batendako > **34**




> **DVD-A**
Aretxabaleta Abesbatzak gaur aurkeztuko du bere 30 urteen DVDa > **38**

# Arzuaga margolariaren ondarea ikusgai jarriko dute

**ERAKUSKETA**
Gaurtik hilaren 26ra arte jarri dituzte haren lanak kultura etxean

**AURKEZPENA**
Gaur 19:00etan egingo dute omenaldiaren aurkezpen ekitaldia



Pili Arzuaga, Arantza Arzuaga, Itziar Ibarrondo, Jabier Arzuaga, Jerardo Elortza eta Juan Mari Ibarrondo, erakusketako margolan batzuekin. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Miguel Angel Arzuaga oñatiarra hil zela 50 urte beteko dira urrian. Urteurren hori ospatzeko, haren ondarea biltzen duen erakusketa antolatu dute etxekoek. Bestalde, Jose Mari Arzuaga konpositorearen omenezko kontzertua egingo dute urriaren 16an agustindarren elizan.

Bi ekitaldi horien aurkezpena egingo dute gaur arratsaldean kultura etxean egingo duten ekitaldian. Jabier Arzuaga bi omenduen anaiak, Edorta Kortadi kritikariak, Jerardo Elortza historialariak eta Paulo Anduagak berba egingo dute bi anaien inguruan. Gainera, Miguel Angelen margolanen gaineko liburua aurkeztuko dute eta Jose Marik idatzitako kantuak abestuko dituzte.

Ondoren, Migel Angel Arzuagaren margolanekin osatutako erakusketa zabalduko dute. Hilaren 26ra arte ikus ahalko da, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

**50. URTEURRENA URRIAN**
Miguel Angel Arzuagaren omenezko erakusketa antolatzeko deia hainbat herritarrek egin zieten senitartekoei. "Aspaldi zebiltzan Patxi Hipolito, Jerardo Elortza eta Xabier Ugarte aitaren gaineko zerbait egiteko asmoarekin. Euren helburua zen aitaren lana ezagutaraztea, margolari ona izan arren oñatiar askok ez zutelako haren lana ezagutzen. Hipolitok katalogo bat egin gura zuen. Urriaren 5ean beteko dira 50 urte aita hil zela, eta une egokia zela pentsatu genuen", esan digute margolariaren alabek.

Etxean eta senitartekoen etxeetan zeuden margolanak batzen hasi ziren. Ondoren, beste herritar batzuek zituzten lanak jaso zituzten. Guztira, 163 margolan. "Harrituta geratu gara, ez genuelako horrenbeste espero. Denetarik jaso dugu: herriko txokoen gaineko margolanak, Parisen eta Erroman egindakoak... Gainera, ikusi dugu margolanetako batzuk oso preziatuak direla jabeendako", esan digute etxekoek.

**'ILDAKOEN MEZA'**
Omenaldian ez dute Jose Mari Arzuaga ahaztu gura. Hura ere 35 urterekin hil zen, itota. Konpositore eta zuzendari bikaina izan zen. Haren omenez kontzertua egingo dute urriaren 16an. "Aita hil eta 6 urtera osaba hil zen. Irrintzi otxotearen zuzendari zela sari asko lortu zituen. Hori horrela, kontzertua antolatu dugu urriaren 16rako. Aita Madinak osaba Jose Mariren omenez idatzitako *Ildakoen meza* abestuko du Oñati Abesbatzak Agustindarren elizan", diote etxekoek.

**Pili Arzuaga** > Miguel Angel Arzuagaren alaba

## "Gazte hil zen, baina aita presente izan dugu beti etxean"



M.B.

**M.B.** > OÑATI
**Miguel Angel Arzuaga hil zenean bi alaba zituen: Pili 2 urtekoa eta Arantza urte batekoa. Haren emaztea haurdun zegoen. Aitaren heriotzak etxean utzitako hutsuneaz eta haren irudiaz egin dugu berba Pili Arzuagarekin.**

**Nola gogoratzen dituzu aita hil ondorengo egunak?**
Ahizpa eta biok oso txikiak ginen, eta ez dugu oroitzapenik. Baina amarendako oso gogorrak izan ziren. Dena den, amak beti izan du aita presente eta hark zuen gozotasuna erakutsi digu. Haren koadroak eta argazkiak etxean gorde ditugu. Gainera, ondoko etxean lehengusuak bizi ziren eta senitartekoen laguntza izan genuen une oro.

**Osaba Jose Mariren oroitzapen gehiago izango dituzu?**
Bai; hura hil zenean 8 urte nituen. Solfeoa erakutsi zigun. Pianoaren aurrean jartzen gintuen lehengusu guztiak eta akordeak kantatzen ibiltzen ginen. Une gozo haiek gogoan ditut, bai.

**Ondorengo belaunaldiek izan duzue margolaritzarako trebetasunik ?**
Ahizpak eta biok ez, behintzat, ezta nire seme-alabek ere. Anaia txikiak egiten ditu zirriborroak noizbehinka.

**Gustura erakusketarekin?**
Bai. 163 margolan bildu ditugu. Ez genituen horrenbeste espero. Ea, ba, herritarren gustukoa den.

**Lierni Altube** > 'Idazlea zu zara irakurtzen duzulako' liburuaren ilustratzailea

# "Pozgarria izan da Sarrionandiaren liburua ilustratu ahal izatea"

MIRIAN BITERI > OÑATI

**Proiektu berrian murgildu da Lierni Altube oñatiar arkitektoa. Joseba Sarrionandiak idatzitako liburuan parte hartu du, idazleak egindako 133 mikroipuinak ilustratzen. Esperientzia horretaz berba egin digu datozen lerroetan.**

**Joseba Sarrionandiaren *Idazlea zu zara irakurtzen duzulako* mikroipuin sorta berrian parte hartu duzu. Nola? Zein da zehazki egin duzun lana?**

Liburuaren ilustrazio lanak egin ditut. Liburua 133 mikroipuinek osatzen dute eta gehinei marrazki bana egitea izan da nire lan hori, gogoeta guztiak irakurri eta zein irudi dagokien erabaki.

**Zenbat marrazki dira eta nolakoak dira?**

123 marrazki dira, akuarelaz eta tintaz eginak. Ipuin bakoitza bere kasa irakurtzen da eta marrazkiak ere horrelakoxeak dira, ez dute batak bestearekin zerikusirik; hala ere, teknika bera erabiltzeak ematen die beharrezkoa iruditzen zitzaidan lotura apur hori. Irudi gehienak ipuinarekin bat datoz, baina badira gutxi batzuk ez dutenak testuarekin harremanik; horrela, marrazkia bera ere ipuin bilakatzen da.

**Zenbat denbora behar izan duzu marrazki horiek egiteko?**

Lau bat hilabete izan dira; marrazkiak egiten baino gehiago, ipuin bakoitzari zein irudi jarri erabakitzen pasatu dut denbora gehiena.

**Nolakoa da *Idazlea zu zara irakurtzen duzulako* liburua?**

Liburuak 133 ipuin eder ditu eta oso atsegina da irakurtzeko. Hiru partetan banatzen da: lehena *Leihoak egiten zituen neskatoa* da; atal horretan, irudimenaren indarra da nagusi, fantasia eta surrealismo puntuarekin. Bigarrena, *Biba Zorrien Izurritea*; eskola duena gai nagusitzat, eskola horrek gizarte osoaren alegoriatzat ere funtzionatzen duen arren. Eta azkena, *Unibertsoaren historia eta beste istorio batzuk*, halako itxura entziklopediko baten azpian gai soziologikoak ere agertzen dituena.

> **"Liburuak 133 ipuin eder ditu eta oso atsegina da irakurtzeko"**
>
> **"Liburua erabiltzeko proposamen didaktikoa ere egin da"**

Uste dut ipuin bilduma hau pertsona helduek irakurtzekoa dela, baina badu ezaugarri berezi bat, badaude adin txikikoek edo gazteek ulertuko dituzten hainbat ipuin ere eta irakurlearen arabera ipuinaren esanahia aldatu egingo da.

**Asmo pedagogikoa ei du lan horrek, ezta? Nola?**

Hik Hasi argitaletxekoek pentsatu dute ipuin labur hauek irakurtzean, ziurrenik, irakurle guztien interpretazioak ez direla berak izango. Horregatik, irakurle adina ikusmolde eta iritzi sortuko dira. Horiek komentatuz gero, berehala sortuko dira aukerak eztabaidatzeko, bestea entzuteko, arrazoitzeko eta ideiak defendatzeko. Horra hor, beraz, pentsamendu autonomoa, dibergentea eta kritikoa lantzeko ezinbesteko osagaiak.

Ipuin liburuarekin batera, liburua erabiltzeko proposamen didaktikoa egin dute, ipuinak sailkatuaz bai adinari begira bai gairi begira.

**Zelan sortu zitzaizun lan horretan parte hartzeko aukera?**

Betidanik izan dut marrazkiak egiteko zaletasuna eta asko gustatu izan zait ilustrazio mundua. Lanbidez arkitektua naiz baina Hik Hasikoek ikusi zituzten nik egindako ilustrazio lan batzuk eta egokia iruditu zitzaien lan honetarako.

**Gustura emaitzarekin?**

Ni gustura geratu naiz emaitzarekin, ipuinak oso ederrak direla iruditzen zait eta benetan pozgarria izan da Joseba Sarrionandiaren liburu hau ilustratu ahal izatea. Orain, jendeak eros dezala falta da.



Lierni Altube, Sarrionandiak idatzitako liburua eskuan duela. MIRIAN BITERI

**PINTURA** > BERGARAKO AGERIKO 37. PINTURA LEHIAKETA

# Margo onena, Koldo Goienolarena

Aurkeztutako bederatzi lanak hilaren 26ra arte bisita daitezke, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan

M.B. > BERGARA

Dagoeneko ikus daitezke joan den domekan Bergaran egindako Ageriko 73. pintura lehiaketan parte hartu zutenen lanak. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan daude margoak erakusgai, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Hilaren 26ra arte bisitatu ahalko da erakusketa.

Beart elkarteak domekarako antolatu zuen lehiaketari dagokionez, Koldo Goienola gasteiztarrak irabazi zuen 23 urtetik gorakoen atala. 800 eurotik gorako saria lortu zuen. Juan Berrospe bigarren geratu zen eta Martin Guridi, hirugarren.


Koldo Goienolaren lana erakusgai dago udaletxean. M.B.

**MAITE AZKARGORTA**

Bestalde, bergararraren saria Maite Azkargortak jaso zuen. 23 urtetik beherakoen mailan, azkenik, ez zen inor apuntatu, eta antolatzaileek horretarako zuten saria bergararren artean banatzea erabaki zuten: Jose Mari Larrañagak irabazi zuen azken momentuan sortutako sari hori.

Beart elkarteko Rikardo Azkargortak azaldu du lehiaketan 10 lagunek izena eman bazuten ere bederatzi lan aurkeztu zirela; orain arte aipatutakoez gain, Joseba Iruretagoiena, Unai Azkarate, Jone Telleria eta Selena Lizartzabururenak. Azkargortak onartu zuen lehiaketak harrera eskasa izan duela, eta, hortaz, datorren urteari begira aldaketak egin beharko direla.

**DANTZA**

# Txapelketa egingo dute gaur Bergaran

M.B. > BERGARA

Gaur, egubakoitza, bikote helduendako 26. dantza txapelketa egingo dute, Moises Azpiazuren oroimenez, Bergarako Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Txapelketan bederatzi bikotek parte hartuko dute: Haizea Ormaetxea-Lander Campos, Nagore de las Cuevas-Arkaitz Pascuas, Amaia Bolinaga-Aritz Arrillaga bergararrak, Idoia Besada-Jon Ibarguren, Lierni Martiarena-Xabier Segura, Ibane Baseta-Mikel Igartua bergararrak, Jone Iriarte-Jon Ansuaga, Izaro Otaegi-Oier Laborde eta Lierni Kamio-Iker Sanz. Partaideek fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com* edo *www.goiena.net/sailkatuak*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza berria saldu edo errentan ematen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Lehen solairua. Bi logela, komuna, egongela-sukaldea, trastelekua, ganbara eta garajea. Beerokuntza indibiduala. Jantzia. Eguzkitsua. 664 74 90 23 edo 679 45 57 62.

**Aretxabaleta.** Aukera bikaina. Guztiz eraberritutako etxebizitza salgai Muru-Bide kalean. 50 metro koadro, egongela, bi logela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoia. Oso argitsua. 23 metro koadroko ganbara eta guzti. Erdi jantzia. 214.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara:. 943 79 96 55 edo 685 72 46 86.

**Arrasate.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Agerre kalean. Bi logela, egongela, sukaldea. Komuna eta leihoak berrituak. Berogailuarekin. 126.000 euro. 657 71 41 68.

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolan. Hiru terraza dauzka. Igogailuarekin. Estreinatzeke. 17 metro koadroko garaje itxia. 618 00 89 17.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean etxebizitza salgai. 90 metro koadro, ganbararekin, hiru logela, egongela, bi komun eta lehorlekua. Balkoi handia. 675 71 50 36.

**Antzuola.** Etxe berria salgai Sagasti kaleko 6. zenbakian (1B) 88$m^2$ Bi bainugela, sukaldea, hiru gela eta balkoi eguzkitsua. 20 metroko garaje itxia. 675 71 50 36.

**Luz Saint Sauvert.** Luzetik 500 metrora 58 metro koadroko duplexa salgai. Bi logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena egoera oso onean eta jantzita. 635 74 62 26.

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Garajea aukeran. 945 15 87 70 edo 615 70 86 04.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Guztiz eraberritua. 150.000 euro. 635 71 41 39

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Unibertsitate ondoan. Berokuntza zentralarekin. Argitsua. Ekonomikoa. Interesatuok deitu zenbaki hauetara:. 647 22 09 38 edo 945 44 51 11.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Berokuntza zentrala. 635 72 27 81.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea eta egongela. 600 euro hilean. 665 70 75 80.

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Kalefazio eta igogailuarekin. 680 48 94 04.

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua alokatzen da, unibertsitatetik gertu. Bost pertsonentzat egokitua, lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 653 71 78 94 edo 697 18 30 02.

**Arrasaten** ikasleentzako etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela (bat bikoitza), sukaldea, egongela, komuna eta terraza. Unibertsitatetik bost minutura eta erdigunetik gertu. 696 34 29 26.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategi kalean. Jantzia. 943 76 46 15 edo 652 53 42 81.

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Deitu 626 81 71 28 telefonora.

**Eskoriatza.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. 652 70 08 00.

**Gasteiz.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erdigunean, Jesus Guridi kaleko 1ean. Hiru logea, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 5.solairua, igogailuarekin. 656 79 73 66 edo 943 71 46 46

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Bostgarren solairua, igogailuaz. Jantzia. Hiru gela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Unibertsitateko ikasleentzat egokia. 627 34 96 03.

**Oñatiko** erdigunean, Lope Agirre kalean, etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Etxea jantzita dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 659 64 39 63.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola edo inguruan** etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. Deitu 603 62 08 84 zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko logela bat daukagu errentan. Logela handia, bainugela eta guzti. 695 72 79 55.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat zein bestela. 648 86 05 49 edo 666 68 00 04.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

**Arrasate.** Pisukide baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. Pisua erdigunean dago, alde zaharrean. Handia eta argitsua da: lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifi eta telefonoa, 200 euro pertsonako, hilean, gehi gastuak. Animatu eta deitu. 665 71 69 10 edo 943 77 07 00.

**Bergara.** Logela ematen da errentan, prezio onean. 655 71 41 24.

**Bergara.** Neskez osatutako etxebizitzaren batean logela beharko genuke errentan, 2010-2011 ikasturtean zehar, institutoko irakasle batentzat. 943 76 31 42. Leire.

**Oñati.** Logela bat daukagu errentan emateko. 617 14 39 41.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Ilargi plazan. 26 metro koadrokoa. Autoa garbitzeko lekua dago bertan. 675 70 53 79.

**Oñati.** 14 metro koadroko garajea, marra, salgai Mendiko kalean. 28.000 euro. 661 68 11 24.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bulegotarako** egokitutako, 90 metro inguruko lokala eta 100 metro inguruko lokal industriala salgai Bergaran. Atsegina eta bista ezin hobeak. Aukera ona. 943 76 33 56.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943 53 33 92.

**Aretxabaleta** eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. Deitu 607 73 16 78 zenbakira.

**Arrasate edo Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko eta baita sukalde laguntzaile lanetan jarduteko ere. 665 75 41 32.

**Arrasate** eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679 73 92 66

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618 41 24 79.

**Arrasate** eta inguruko herrietan, neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54.

**Bergara** Haur heziketa ikasi duen emakume euskalduna umeak zaintzeko gertu. Egun guztian zehar. 943 53 42 54 edo 688 65 30 62.

**Bergaran.** Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. 685 77 56 35.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635 00 58 17

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. 686 33 66 66

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra lan bila dabil, eta edozein motatako lanak egiteko gertu dago. 695 71 27 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany. 630 94 65 76.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetan edota sukaldari laguntzaile moduan. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Egunez eta gauez lan egiteko prest; interesatuok bidali e-posta: *animilena@hotmail.com*. 943 79 04 69.

**Debagoiena.** Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. 689 64 32 15

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. 671 84 71 71

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, nagusi, gaixo zein umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko gertu nengoke. 638 44 41 94.

**Debagoiena.** Neska etxeko lanak egiteko prest orduka, interna edo ez; edozein modutan.Tabernetan ere lan egingo luke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat eta baita paper guztiak behar bezala. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko gauez zein egunez, edo etxean bertan lo eginda ere bai. Klinika laguntzaile titulua daukat. 646 38 46 81.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa, nagusi, gaixo zein umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko gertu nengoke. 659 57 41 95.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630 20 12 03 edo 638 10 28 85

**Debagoiena.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. 602 12 03 47

**Debagoiena.** Taberna, etxebizitza edo garajeak garbitzen ditut. 679 60 08 48.

**Emakumezko** batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke. 606 64 16 09

**Oñati.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. Deitu 606 15 11 47 zenbakira.

**OÑATI**

**Ile apaintzaile profesionala behar da. Esperientziaduna. Egun osoz. Euskara baloratuko da.**

**673 42 56 56**

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo bigarren mailako eskola partikularrak behar ditut. Deitu zenbaki honetara:. 685 75 80 42.

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. Deitu 943 76 03 75 edo 605 26 24 62 telefonora.

**Bergaran** EGA azterketa prestatzen lagunduko didan norbait beharko nuke. Gorka. Deitu 628 51 22 78 zenbakira.

**Debagoiena.** Errusiera irakatsi diezadakedan pertsona baten bila nabil. 679 15 31 65.

**Oñati** DBH bigarren mailako eskolak emango dituen pertsona esperientziaduna behar da. 627 91 23 21.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 653 01 76 67 telefonora.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira Batxilergo mailara arte. Deitu 677 75 12 90 edo 943 79 79 86 zenbakietara.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniari industriala. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa, ... maila guztiak unibertsitatea barne. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. DBH eta Batxilergo mailak barne. Itsaso. 699 39 20 20 edo 943 79 78 96.

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak, sei urtetik aurrera. Arantxa. 688 64 12 56.

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak LH eta DBH-ko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko First Certificate du. 636 16 30 10.

**Bergara** Ingeleseko eskolak ematen dira. Maila guztiak. Azterketetarako gertatzen da. 618 91 32 89.

**Bergaran** ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 654 94 87 26 zenbakira.

**Debagoienean** matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta Batxilergo mailak. 696 38 10 07

**Oñati.** Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentziatua arratsaldeetan LH edota DBH-ko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. 606 15 11 47.

**Oñati** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. DBH nahiz lanbide heziketako ikasleei. 646 42 13 63.

### 503. BESTELAKOAK

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. 602 12 03 47

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** Euskal artzai txakurra, Gorbeiakoa. Abuztuaren hirugarren astean jaiotakoak. 150 euro. Artzantzarako zein konpainia ona egiteko oso aproposak. Ama eta aita apartak bezain maitakorrak. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

**Txakurkumeak** American Pit Bull Terrier arrazako txakurkumeak salgai. Abuztuaren 4 ean jaiotakoak. ADBA pedigreearekin. 669 17 09 51.

**Usoak** salgai 5 euroan. 699 72 34 42.

### 703. EMAN

**Husky siberiar** txakurkumeak ematen dira opari. 11 txakurkume dira, hilabete eta erdikoak. Presazkoa da. Etxean jaso nahi badituzu, deitu zenbaki honetara: 686 93 43 59

**Pointer** txakurkumeak ematen dira opari. 656 71 73 02.

**Txakurkumea.** Txakurkume bat oparitzen da. Abuztuaren bigarren astean jaioa. Ama Border Collie-a da. 663 91 12 61.

### 704. BESTELAKOAK

**Katu persa galdu** zen abuztuaren 29 iluntzean Aretxabaletako Andra Mari auzoan. Persa txintxilla zuria da, arra, eta Roko du izena. Mesedez, ikusi edota topatu duenak dei dezala zenbaki honetara: 616 17 94 01.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bugaboo Cameleon** salgai. 2008koa. Kapazoa, negu eta udarako zakuak, euritarako burbuja, moskitera eta bi eguzkitako. Orain dela 5 hilabete aldatutako txasia. 500 euro. Deitu 618 19 10 96 zenbakira.

**Chico Trio aulkia,** kapazoa eta maxicosia salduko nituzke. Egoera onean. 120 euroan hiru gauzak. 678 59 47 71 edo 637 00 01 58.

**Fotokopiagailu** digitala salgai. Gestetner DSM615 markakoa da eta ADF DSM615 dokumentuen elikagailua dauka. 66.100 kopia aterata. 943 79 75 53 edo 637 83 18 07

**Haurrak eramateko** mendiko motxila salgai. Interesatuak deitu honako telefonora:658 12 43 38

**Karabana** salgai. 2008 urtekoa. Scarlet markaduna. Hiru anbiente. 12.000 euro. Interesatuak deitu honako telefonora: 617 08 60 68.

**Karabana** salgai. Burstner 490. Prezio onean. Oso ondo zainduta. Sei pertsonendako. Interesatuak deitu honako telefonora: 635 74 17 37.

**Karro-denda** salgai. Raclet Minto modeloa. Bi ohe, bi arkoi eta abantzea. Sukaldeko denda opari. Bizikletak eramateko parrilla dauka. Oso egoera onean dago. Interesatuak deitu honako telefonora: 615 71 09 13.

**Klarinetea eta tronpeta** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 80 87 85.

**Lowepro Primus AW motxila.** Mendira joateko oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa sartzen dira. Gainera, beste bi objektibo edo flasha ere sartzen dira. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. 667 95 73 16

**Maclaren** aulki-aterkia eta Jane Slalon Pro kapazo-aulkia. 0 taldekoa, poltsa eta burbujarekin. Dena 500 €. Erosketarekin, aulkirako 2 zaku opari. 657 77 91 74.

**Mahaiko ordenagailua** Asus P5GC-MX/1333 E2140 2GB 400GB" mahaiko ordenagailua saltzen dut. Guztiz ekipaturik (plasmako pantaila, altabozak...). 2 urte eta erdi ditu eta oso egoera onean dago. Prezioa 230 euro. 670 52 58 74.

**Piraguarako Anoraka** Piraguarako anoraka saltzen dut, berri berria dago, Artistic markakoa, Mikroporeskoa , M tailakoa eta semi-lehorra. 679 10 95 23.

**Umea eramateko** motxila. Baby Börjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 80 €. 607 06 22 20

### 802. EROSI

**Bizikleta.** 6 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Deitu 649 00 53 42 telefonora.

**Ineska Dakota** edo antzerako karro denda erosiko nuke. 696 40 82 19.

**Lursaila** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 zenbakira.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Automobileko giltza galdu dut. Renault Megane autokoa da. 680 60 94 74

**Eskoriatza.** Uztailaren 29an Nokia telefono mobil bat galdu nuen. Topatu baduzu utzi Udaltzaingoan (Eskoriatzako Udaletxean) edo deitu telefono honetara. Mila esker. 629 47 30 51.

**Poltsa beltza** galdu nuen irailaren 14an, San Prudentzioko biribilgunean. Aurkitu baduzu, deitu deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskertuko da. 699 40 73 35.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 $m^2$. Berritua.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319 €.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- **Garajeak salgai San Lorentzon. Aukera ona.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



**Vanesa** eta **Jorge** bihar ezkonduko dira Dorletako elizan. Ondoren, lagunekin eta etxekoekin ospatuko dute Gure Ametsa jatetxean. Guztien partetik, baina bereziki Markelen partetik, "zorionak eta ondo pasa bihar. Patxo asko".



Arrasateko **Begok** eta **Jonek** eta **Marijok** eta **Luciok** zilarrezko ezteiak ospatu zituzten irailaren 11n koadrilakoekin. Bizkaiko kostaldean hasi zuten festa eta Bilbon bukatu zuten egunpasa. Lagunen partetik, "izan zoriontsu".

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 17**

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur.
**15:45** Tertulia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Ordiziako Euskal jaiak.
**22:45** Kiroleroak.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 18**

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** Ordiziako jaiak.
**12:00** Magazinea, errepasoa.
**13:00** Erreportajea: Ordiziako Euskal jaiak.
**14:00** Animalia.
**14:30** Barrebusa.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kantari.
**18:00** Ur eta lur.
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**20:00** Goiena Magazinea.
**21:00** Erreportajea: Lekeitioko jaiak.
**22:00** Gipuzkoa kultura.
**22:00** Animalia.
**22:30** Iragana gogoratuz.
**00:00** Harmailatik.
**00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 19**

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** Iragana gogoratuz.
**12:00** Kantari.
**13:00** Ikusten.
**13:30** Estetika: Colagenoa.
**14:15** Goiena Magazinea.
**15:15** Erreportajea: Lekeitioko jaiak.
**14:15** Gipuzkoa Kultura.
**16:45** Marrazki bizidunak.
**19:00** Barrebusa.
**20:00** Ikusten.
**20:30** Goiena Magazinea.
**21:30** Erreportajea: Ordiziako Euskal jaiak.
**22:15** Gipuzkoa kultura.
**23:00** Erloklip.
**23:15** Iragana gogoratuz.
**23:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 20**

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Kolagenoa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Lekeitioko jaiak: Batelak.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** 28 Klik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 21**

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Erreportajea: Arraiotzeko jaiak.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Eskuokin.
**17:55** Kurtulzulo.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Iragana gogoratuz.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 22**

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Kolagenoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Iragana gogoratuz.
**15:50** Onein.
**16:20** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Iragana gogoratuz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Goiena Magazinea, tertulia.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Jazz jaialdia.
**00:45** Emisio amaiera.

**Eguena, 23**

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Permanentea.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Goiena Magazinea, tertulia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Onein.
**18:15** Marrazkibizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
> Albistegia
> Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
> Astelehenetan Kirolak
> Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzua
> Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, iratiko bloga)
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Musika
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 22:00:** Errepikapenak

OROIGARRIA

## Joakin Gastesi Agirrezabala

Leniz autoeskolakoa

2010eko irailaren 11n hil zen.

*Zu, gu gabe*
*Gu, zu gabe*
*Bidea eginez, aurrera,*
*Ez adiorik.*



Leniz autoeskola.
Arrasate-Eskoriatza, 2010eko irailaren 17an.

ESKER ONA

## Asuncion Altuna Arana

Teodoro Trojaolaren alarguna

Gasteizen hil zen 2010eko irailaren 13an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Ondra meza domekan, irailaren 19an, 11:00etan, Gesalibarko Santa Ageda elizan ospatuko da.
—
*Gure bihotzean egongo zara betirako.*



Etxekoak.
Gesalibarren, 2010eko irailaren 17an.

1. URTEURRENA

## Agustin Azkoaga Aldanondo

Dolores Villarren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 18an, 96 urte zituela.

*Gaur urtebete*
*gure ondotik joan zinela.*
*Ez zaitugu ahaztuko.*
*Beti egongo zara*
*gure bihotzetan.*

Senideak.
Arrasaten, 2010eko irailaren 17an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 122.50 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163** euro.
**GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



ESKER ONA

## Jose Axpe Zubizarreta

'Kabido'

Arrasaten hil zen 2010eko irailaren 7an.

Samin-agurrak eman eta bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko etxekoen izenean.



Arrasaten, 2010eko irailaren 17an.

URTEURRENA

## Francisco Maure Barrio

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




Arrasateko **Anton Leibar** eta **Espe Sampedro** 1960ko irailaren 19an ezkondu ziren Arantzazun. Domekan urrezko ezteiak ospatuko dituzte familiarekin Zelai Zabalen. Domekan bertan, gainera, Antonen urtebetetzea da. Etxekoen partetik, "zorionak, bikote".



**Felix Martin** eta **Boni Barcala** 1960ko abuztuaren 20an ezkondu ziren Cantaracillon (Salamanca). Bihar urrezko ezteiak ospatuko ditute etxekoekin. Lasa jatetxean bazkaria egingo dute. "Zorionak, etxekoen partetik, eta patxo asko biloben partetik".



Oñatiko **Kristina** eta **Iñaki** irailaren 11n ezkondu ziren. Koadrilakoen partetik, "ondo pasa ezazue eztei-bidaian. Ea, bada, zenbat kontu kontatzen diguzuen. Zoriontsu izan zaitezte. Patxo asko bidaltzen dizkizuegu".




Aramaioko **Antonio Gardoki** eta Aretxabaletako **Marije Isasisasmendi** 1985eko irailaren 14an ezkondu ziren Aixolan. Bihar zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte etxekoekin. Eurek mezua bidali diete: "Ondo pasa bihar eta izan zoriontsu".



Oñatin bizi diren **Jose Gartzia** eta **Juana Rodriguez** 1960ko irailaren 12an ezkondu ziren Portajen (Caceres). Domekan urrezko ezteiak ospatuko dituzte etxekoekin. "Ondo pasa ezazue domekan. Patxo asko familiarekoen partetik".



Arrasateko **Irantzu Ezkurra** eta **Iker Hernando** bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, guztiok elkarrekin ospatuko dute. Euren familien eta lagunen partetik, "zorionak eta ondo pasa ezazue eztei-bidaian".



Arrasateko **Marisa Tierno** eta **Agus Carrillo** bihar ezkonduko dira Arrasateko parrokian. Bazkaria Zelai Zabal jatetxean egingo dute. Eztei-bidaia New Yorkera eta Maien Erriberara egingo dute. Lagunen eta etxekoen partetik, "izan zoriontsu, bikote".



Oñatiko **Miren** eta Granadako **Nacho** irailaren 4an ezkondu ziren Granadan. Lagunek mezua bidali diete: "Zoriontsu izan zaitezte. Badakigu ondo pasa zenutela ezkontza eguna. Aurrerantzean ondo pasa ezazue. Zorionak!".



Oñatiko **Nagore Zubia** eta Aramaioko **Erik Gartzia** bihar ezkonduko dira Aramaion. Ondoren, etxekoekin eta lagunekin elkartuko dira Etxe Aundi jatetxean. Oñatiko lagunek mezua utzi diete: "Zoriontsu izan, bikote".

URTEURRENA

## Jose Ramon Ugarte Irazabal



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Miguel Galdos Guridi



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Zure izatearen muina,*
*zure bizitzeko erak*
*gure artean dira*
*gaur ere.*

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

## Gabino Caballero Benitez

Donostian hil zen 2010eko abuztuaren 19an, 62 urte zituela.



Haren aldeko meza domekan, irailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Juana Ibabe Errasti



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:00etan, Aramaioko San Martin parrokian ospatuko da.

—

*Ama, amandrie, hoberena.*
*Ezin banau negarrez ikusi,*
*nola ahal nau utzi?*

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maximiano del Palacio Alonso



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 18an, 19:00etan, Aretxabaletako Andra Mariaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Irailak 17-23

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguaztenko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE

**> Nacho Umbert-ek kontzertu akustikoa egingo du Kulturaten**

Paperhouse taldeko abeslari eta konposatzaile izandakoa da Nacho Umbert. 15 urte igaro eta gero, berriz igo da agertokietara, *Ay…* izeneko diskoarekin; akustikoa da, eta ahotsa da protagonista. Gaur, egubakoitza, 20:00etan.

## Txapelketa



BERGARA

**> Bederatzi bikote lehiatuko dira dantza txapelketan gaur, egubakoitza**

Moises Aspiazuren oroimeneko bikote helduendako 26. dantza txapelketa jokatuko dute gaur, egubakoitza, Abarka taldeak antolatuta. Udal Pilotalekuan izango da, 19:30ean. Bederatzi bikotek jardungo dute, tartean Bergarako bik.

## Antzerkia



ESKORIATZA

**> Bi kale antzerki egunotan, Hortzmuga eta Kukubiltxo taldeekin**

Gaur, Hortzmugak *Zirku iluna* egingo du (plazan, 19:00), zirku baten historiaz; eta bihar, zapatua, Kukubiltxok *Morttimer* antzeztuko du (kontzejupean, 22:30), beste munduan dagoen maitearengana joan nahi duen pertsonaiaren inguruan.

## Ospakizunak

OÑATI

**> Trikitilariek girotutako bi erromeria izango dira**

Bi erromeriakin gozatzeko aukera izango da zapatuan: Laja eta Narbaitza trikitilariek joko dute 19:00etatik 21:30era eta Izer eta Alabierrek, 23:30ean.

Bihar, zapatua, Kale Zaharreko plazatxoan.

OÑATI

**> Haurren Eguna ospatuko dute, jai nagusien aurrekari**

Dantza taldeak Otadui zuhaiztian batuko dira (10:00); Foruen plazan, alkate txikiaren agurra eta aurreskua izango dira (12:00); kalejira egingo dute (12:15); eta dantza talde guztiek erakustaldia egingo dute plazan (18:30).

Etzi, domeka.

ARETXABALETA

**> Urbaltz elkartearen 25. urteurreneko jaialdia**

Bihar, zapatua, egingo dute Urbaltz elkartekoek euren urteurreneko ospakizuna, honako ekitaldiekin: Rikardo eta Enbeita bertsolariak (13:00) eta triki-poteoa, jarraitzeko; bazkaria eta Lide eta Lurrekin erromeria (14:30); errifen zozketa (17:30) rock kontzertua (19:00) eta erromeria (22:00); gauerdira arte, Elviskaino disko-jartzailea.

Bihar, zapatua, Mitarte plazan.

## Musika

OÑATI

**> Ruper Ordorikak herrian aurkeztuko du diskoa**

*Haizea garizumakoa* orain azkeneko atera duen diskoko abestiak joko ditu Oñatin Ruper Ordorikak. Sarrerak 6 eurotan saltzen dihardute kultura etxean, eta 10 eurotan leihatilan.

Kontzertua gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ARRASATE

**> Berlingo District eta Pascal Briggs taldeak, St Pauli jaiean**

St Pauli lagunartea aurkezteko jaialdian, honako taldeek kontzertua egingo dute: District (Berlin), Pascal Briggs (Berlin), Dirty Brothers (Arrasate) eta AMD (Arrasate).

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI

**> Oñatiko Ez! taldeak diskoa aurkeztuko du zuzeneko batekin**

Ez! taldeak diskoa aurkeztuko du. Kontzertua egingo dute eta luntxa ere emango dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

ARAMAIO

**> Gasteiz Big Band taldeak kontzertua egingo du**

Gasteiz Big Band taldeak soul, swing, funk, jazz… estiloetako emanaldia egingo du.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

ARRASATE

**> Valentziako Maderita taldeak kontzertua egingo du**

Ciudadano taldeko hainbat kidek osatzen dute, Julio Bustamanterekin batera.

Bihar, zapatua, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

## Ikastaroak

ARRASATE

**> Plazako dantza tradizionalak emango ditu Patxi Monterok**

Plazako dantzen ikastaroa emango du Patxi Monterok, Portaloi taldeak antolatuta eta AEDk lagunduta. Dantzan ikastea –dantza ulertzea, sentitzea, txukun jardutea eta konfiantza hartzea–, disfrutatzea eta dantzak eurak ikastea dira helburuak. Urritik ekainera izango dira eskolak, astelehenetan, bi mailatan (1.a, 18:30-20:00, eta 2.a, 20:00-21:30), eta urriaren 1a da izena emateko azkeneko eguna. Eskolak AEDren lokalean izango dira.

Izenematea: 943 77 12 28 edo *aed@aedelkartea.com*.

ARETXABALETA

**> Erritmo eta dantza tailerra emango du Jaiki elkarteak**

Funka, erritmo afroamerikarrak, hip-hopa, afroa eta beste estilo batzuk erakutsiko ditu Magdalena Milanok, Jaiki elkartearen eskutik. Martitzenetan 18:30etik 20:00etara izango da, urriaren 5ean hasi eta Gabonak arte, kuartel zaharrean.

Prezioa: 25 euro langabeek eta 35 euro langileek.

Izena emateko: 943 53 43 96 edo *jaikielkartea@yahoo.es*.

## Erakusketak

ARRASATE

**> Iraunkortasunaren gaineko erakusketa dago Kulturaten**

*Ezagutu formularik iraunkor eta solidarioena: -3R=-CO2* delako erakusketa dago ikusgai, Emaus fundazioaren

PROPOSAMENA



ARETXABALETA

**> Hogeita hamar urteko historia batzen duen DVDa aurkeztuko du Aretxabaleta Abesbatzak**

*Aretxabaleta Abesbatza, 30 urteko ibilbidea* delako DVDa aurkeztuko du talde horrek, Udaleko eta Foru Aldundiko kideek lagunduta. Hainbat kantu abestuko ditu eta DVDaren aurrerapen bat ikusi ahal izango da. Alde batetik, 35 minutuko dokumentala eta, bestetik, bideo musikala batzen ditu diskoak. Ekitaldiaren ostean, ikus-entzunezkoa salgai ipiniko dute, 12 eurotan. Argazkian, taldeko ordezkariak.

Gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean, 19:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

SUAREN ZIENTZIA (ANIMAZIO BERRIA!)

Animazio berri honetan, hainbat esperimentuen bidez, sua lortzeko modu ezberdinak ikusiko ditugu. Lortzeko errezak eta amankomunak diren elementuak erabiliz, suaren konkista nolakoa izan den ulertuko dugu eta prozesu horretan zein elementu erabili diren ere ezagutuko dugu.



Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

eskutik. Ehunak, arropak berrerabilita prestatzen dituzten produktuak ikusteko aukera dago. Hilaren 23ra arte dago zabalik.

Ordutegia: martitzenetik domekara, 17:30-20:30.

OÑATI

**> Arzuaga anaiei omenaldia hasteko, ekitaldia**

Gazte hil ziren Arzuaga anaia artistei omenaldia hasteko, gaur, egubakoitza, erakusketa inauguratuko dute. Hitzaldiak egingo dituzte Jabier Arzuaga, Jerardo Elortza, Paulo Anduaga eta Edorta Kortadik.

Ekitaldia gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan; erakusketa zabalik geratuko da hilaren 26ra arte (18:00-20:00).

BERGARA

**> Aire zabaleko margo lehiaketako lanak ikus daitezke**

San Martin jaietan aire zabaleko margo lehiaketa jokatu zen eta lanak erakusketan ipini dituzte; irailaren 25era arte egongo da zabalik.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Astelehenetik egubakoitzera: 18:00-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00.

BERGARA

**> Beart elkarteko hainbat kideren margolanak**

Erakusketa ipini dute Kute Erdabidek, Pili Azkaratek, Mari Paz Alustitzak, Maite Azkargortak, Anton Arrillagak eta Ricardo Azkargortak.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

## Bestelakoak

ELGETA

**> Vespa eta Lambretta motorren topaketa egingo dute**

Bosgarren urtez, Vespa eta Lambretta motorren jabeen topaketa egongo da Elgetan. 40 kilometroko ibilaldia egingo dute 12:15ean hasita, eta Iñaki jatetxean bazkalduko dute 14:30ean. Bazkarirako izenematea zabalik dago: jatetxean (943 76 82 83) edo Fermin Iribarri deituta (669 10 79 07).

Etzi, domeka.

BERGARA

**> Orhipean kulturgunea zabalik egongo da aste bukaera osoan**

Orhipean kulturgune eta erakusketa iraunkorra egongo da egubakoitzetik domekara. Gaur, honako ekintzak egongo dira: hainbat herrialdeko artisautza eta elikagai azoka (17:00), *Euskal Herria, Euskadi, Nafar Estatua eta Baskonia kontzeptuak* delako mahai ingurua (19:30), eta *Agur Everest: 30 urte gailurrean* delako ikuskizuna (20:30); bihar, zapatua, azoka (10:00), *Ezina ekinaren ekinez eginda* mahai ingurua (10:30), Jean Bordaxar Laukotearen kontzertua (12:00), *Orhiko xoria, Orhin laket* delako ekitaldi nagusia (13:30), literatura eskola (16:00) eta *Sagarren denbora* delako dokumentala (20:00); eta domekan, azoka (10:00).

Herriko erdigune osoan.

# Zinema

## ARRASATE

### KULTUR ETXEA

**Ipar gazi, Hego geza**
Eguaztena: 19:00.

## OÑATI

### KULTUR ETXEA

**Centurión**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## ELGETA

### ESPALOIA

**Crepúsculo**
Eguaztena: 21:30.

## GASTEIZ

### GURIDI

**Karate kid**
17:30.

**Salvando las distancias**
20:15, 22:30.

**Origen**
18:00, 20:45.

**Resident evil: ultratumba (3D emanaldiak)**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un pequeño cambio**
22:30.

**El aprendiz de brujo**
18:00, 20:15.

**El americano**
18:00, 20:15, 22:30.

**Un juego de inteligencia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Lope**
18:00, 20:15, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Contracorriente**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mis tardes con Margueritte**
20:00, 22:30.

**Toy story 3**
17:30.

**Conocerás al hombre de tus sueños**
17:30, 20:00, 22:30.

**Resident evil: ultratumba**
18:00.

**Todo lo que tú quieras**
18:00, 20:15, 22:30.

**Amanecer en Asia**
18:00, 20:15, 22:30.

**El silencio de Lorna**
18:00, 20:15, 22:30.

**Bright star**
20:15, 22:30.

Irailaren 17tik 23ra.

### YELMO CINEPLEX

**El aprendiz de brujo**
15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Lope**
16:10 (zapatua eta domeka), 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Un pequeño cambio**
16:20 (zapatua eta domeka).

**Karate kid**
15:45 (zapatua eta domeka), 18:30, 21:30, 00:15.

**Conocerás al hombre de tus sueños**
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Predators**
19:50, 22:00, 00:10.

**Step up 3 (3D emanaldiak)**
16:30 (zapatua eta domeka), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Salt**
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20;15, 22:15, 00:15.

**Resident evil: ultratumba (3D emanaldiak)**
15:30 (zapatua eta domeka), 16:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30, 23:30, 00:30.

**Resident evil: ultratumba**
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Centurión**
15:50 (zapatua eta domeka), 17:50.

**Toy story 3 (3D emanaldiak)**
18:25.

**Salvando las distancias**
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45.

**Adele y el misterio de la momia**
16:10 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Origen**
15:40 (zapatua eta domeka), 18:40, 21:40, 00:30.

**El americano**
15:50 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

**The runaways**
21:45, 23:45.

**Shrek 3 (3D emanaldiak)**
16:25 (zapatua eta domeka).

Irailaren 17tik 23ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.

### ÁBACO BOULEVARD

**Lope**
16:05, 18:15, 20:25, 22:40, 01:00.

**Origen**
16:00, 18:50, 21:50.

**Centurión**
20:15, 22:20.

**Adele y el misterio de la momia**
16:20, 18:20, 20:20.

**Resident evil: ultratumba (3D emanaldiak)**
16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

**Resident evil: ultratumba**
16:30, 18:30, 20:30, 22:15, 22:40.

**Toy story 3**
16:15, 18:15.

**Salvando las distancias**
20:20, 22:25, 00:30.

**Salt**
16:15, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**Karate kid**
16:10, 19:00, 22:00, 00:45.

**Predators**
22:25.

**El americano**
16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 00:50.

**Campanilla y el gran rescate**
16:30, 18:30.

**El aprendiz de brujo**
15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

**Step up 3**
16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:45.

Irailaren 17tik 23ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**SUBMARINO ****

## Dogmatik gertu dagoen urpekoa

> **Zuzendaria:** Thomas Vinterberg.
> **Aktoreak:** Jacob Cedergren, Peter Plaugborg, Patricia Schumann.
> Danimarka, 2010.
> 113 min.

Duela urte batzuk sortu zen Danimarkan dogma izeneko zinema egiteko modu berezi bat. Mugimenduaren aitzindaria Lars von Trier izan zen, eta beste hainbat zuzendari berri ezagutu genituen. Thomas Vinterberg zen horietako bat, eta, dogma mugimendua ia ahaztuta badago ere, zuzendari horiek jarraitzen dute filmak egiten.

Garai hartan, Vinterberg-ek *Celebración* filma zuzendu zuen. Bertan, familia bat biltzen zen, patriarkarekin zerikusia zuen festa handi bat ospatzeko. Eta festan, familiaren traumak eta ezkutatuko sekretu gordinenak ateratzen ziren. Benetan film txundigarria zen. Oraingo honetan, Vinterberg-ek dogmaren erregelak alde batera uzten baditu ere, *Submarino*-ren istorioa, pertsonaiak eta gertakizunak, agian zerbait baretuagoak egon arren, *Celebración*-en alde itzeletik nahiko gertu daude. Bi anaia dira protagonistak. Hasierako eszenan euren haurtzaroko gertakizun traumatiko bat ikusiko dugu. Gero, istorioak urte askoko aurrerako jauzi bat egingo du. Bakoitzaren zorigaiztoko bizitzak jarraituko ditugu: lehenengo anaia helduarena, gero gaztearena eta azkeneko partean biak elkartuko dira istorioari bukaera emateko.

*Submarino*-n lau zati bereiz daitezke: hasiera, bi anaien ondorengo bizitzak eta bukaera. Lehenengoa eta azkena ondo daude, hirugarrena aurrera doan neurrian hobera ere egiten du; hala eta guztiz ere, minutu asko pertsonaien bizian sortzen diren zoritxarrak eta pertsonaien utzikeria deskribatzen pasatzen ditu, eta momentu batzuetan ematen du filma geratu egiten dela zertxobait, pertsonaiei gertatzen zaizkien egoera harrigarriek ez dutela istorioa inora eramango, baina ez: bukaera aldean denak indar handiagoa hartzen du eta urpekoak portura heltzea lortzen du.

**Antonio Zabala**

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

## bono fotoa



**Joan den zapatuan San Martin Agirreren omenez urteroko azoka egin zuten, baina ze urtetan izendatu zuen Pio IX.ak bergararra santu: 1662, 1762 ala 1862an?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

**ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:**

Oñatiko **Jagoba Igartua**.

**Erantzun zuzena: Goikoetxe baserria. Aretxabaletan.**




ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
**BOTILA ARDO PACKA***
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA ................................................
IZEN-DEITURAK................................................
HERRIA .................................... TELEFONOA ....................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

**Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-09-17

# 'Youtube'-ko izar berriak

**AREANTZA AUZOAN** Bideo bat grabatu zuten auzotarrak kantu bat abesten eta orain Internetera igo dute

**'NAFARROA GURE ABERRIA'** Bizardunak taldearen abestia aukeratu dute auzoan gustuko dutelako

**70 LAGUN INGURU** Auzotarrez gain, Basotxo erretiratuen elkarteko abeslariek ere hartu dute parte

**ARRITXU BARRUSO** > ARETXABALETA

Areantza auzoko bizilagunek urtero zerbait berezia egin gura izaten dute Agorreko Andramari jaietan. Bada, aurten ere halaxe egin dute eta emaitza Interneten dago ikusgai: Areatzako doinuak eta ahotsak *Youtube*-ra iritsi dira.

Auzotarrak batu, kantuan ipini, bideo bat grabatu eta, esan bezala, emaitza *Youtube*-ra igo dute orain, mundu guztiak ikus dezan.

**'NAFARROA GURE ABERRIA'**

Joan den domekan, irailak 12, 70 pertsona inguru batu ziren Areantza auzoko elizaren ondoan. Etxeko lanak ongi eginda joan ziren guztiak: Bizardunak musika taldearen *Nafarroa gure aberria* abestia ondo ikasia zuten denek. Etxeko lan horiek antolatzen eta koordinatzen ibili zen, besteak beste, Julen Abasolo: "Musikariek lan bikaina egin dute. Txistuak, gitarrak, ataba-la, soinua... instrumentu asko lortu genituen. Guztiek ere lan handia egin zuten abestiaren partiturak lortzeko eta auzotarrak ere oso motibatuta ibili dira. Horixe zen gure helburua eta uste dut aukeratutako abestiak berak ere lagundu duela. Gazteak ilusio handiarekin ibili dira prestaketa lanetan. Auzotarrez gain, Basotxo erretiratuen elkarteko abeslarien laguntza ere izan dugu. Guztiok elkarlanean egindako bideoa da".



**AREANTZAKO JAIETAN** Auzotarrek elkarrekin Bizardunak taldearen *Nafarroa gure aberria* kantua abestu zuten eta bideoa *Youtube*-ra igo dute. JULEN ABASOLO

**LEHENENGOAN BALEKOA**

Abesti osoa sekuentzian jasotzen duen bideoa dela kontuan izanda, pentsa daiteke saiakera bat baino gehiago egin behar izan zituztela. Bada, Abasolok kontatu digu hiruzpalau entsegu egin ostean, kamera grabatzen ipini eta lehenengoan lortu zutela dena ondo egitea. *Youtube*-ko izar berriak dira. Bideoak 300dik gora bisita jaso ditu dagoeneko.

## ahobero

### "Egia esan behar badut, azken hamabost urteetan ikasi dut nik abesten"

**Julio Iglesias** > Abeslaria

1968an, duela 32 urte, igo zen Julio Iglesias lehen aldiz agertokira. Sekulako arrakasta lortu zuen eta Espainian disko gehien saldu dituen artista dela diote. Asteon egin dioten elkarrizketa baten esan du hasierako urteetan oso gaizki abesten zuela. Zer pentsatuko dute etxean haren diskoak dituzten jarraitzaileek?

## iturri onetik

### Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du Elgetako Espaloian abenduaren 10ean

Lekunberriko taldeak 2009ko irailean kaleratu zuen azken diskoa: *Payola*. Diskoaren aurkezpena Eskoriatzan egin zuten, gainera. Bada, aurten ere gure ibarrera etorriko dira. Abenduaren 10ean kontzertua eskainiko dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta oraindik ere zehazteke dago ze beste talde igoko diren nafarrekin batera agertokira.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Orhipean

Mundumira jaialdia ezagutzen dugu Debagoienean, munduko kultur adierazpenak gurekin uztartzen dituen ekimen ibiltaria. Eta arrakasta erdietsi du, behar dugulako etxeko leihoak ireki mundua ezagutzeko; garaia arnastu, ikuspegia osatu eta izaera aberasteko.

Beste aldera, neurri berean behar dugu etxekoa ezagutu, mundumira bezainbeste etxemira ibili; iraganaz jabetu eta nortasuna sendotu munduan suelto ibiltzeko, izaeraren txapela buruan. Horretara dator asteburu honetan Bergarara beste jaialdi bat, Orhipean izenekoa. Durangoko Landakon egin zenean ikusi nuen eta bikaina iruditu zitzaidan, euskal unibertsoaren erakusle aberasgarria, iragan gaurkotuaren plaza atsegina. Ondo pasatzeko aukera, burua janzten dugun bitartean.

## ai, ene!



### Medizaletasuna barruan darama, zalantza barik

Lana dela-eta mendira edo oporretara joan barik geratu zarela? Hartu motxila, kanpin denda eta bulegora!

www.taringa.net

